


ANTONIO ZAVALA, S.J.



ZAPIRAIN ANAIAK

Juan Krutz (1867-1934)

Joxe (1873-1957)

ZAPIRAIN ANAIK

Juan Krutz (1867-1934)

Joxe (1873-1957)

AUSPOA LIBURUTEGIA

123 - 124 - 125

COLECCION AUSPOA

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 66 16 12 — Tolosa
(Guipúzcoa)**

ANTONIO ZAVALA

ZAPIRAIN ANAIK

Juan Krutz (1867-1934)

Joxe (1873-1957)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1975

DOÑUAK magnetofonotik entzun eta solfeoz idatzl dituztenak: Ernani'ko Manuel Yaben eta Donosti'ko Ambrosio Zatarain jaunak.

AZALEAN: Errenderi zarra, Henry Wilkinson'en marrazki batez: **«Croquis de Paisajes en las Provincias Vascas de España, con una selección de música nacional arreglada para piano y guitarra. Ilustrado en Vizcaya y Castilla. Por Enrique Wilkinson, miembro del Real Colegio de Cirujanos, y últimamente cirujano del Estado Mayor en la Legión Británica. Londres. Publicado por Ackermann y Cía, 96, Strand. 1838».** (Liburu ori Ingleses dago noski; Itzulpena: RIEV, 19, 176 orri-aldetik aurrera).

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)
Inprimatzalle: IZARRA - Polígono 36 - Usúrbil (Gulp.)
Depósito Legal S. S. 485/75
I. S. B. N.: 84-7158-075-6
Junio 1975

**ZAPIRAIN ANAIK
(BIZITZA)**

ZAPIRAIN ANAIAK

IRU ZAPIRAIN

Iru Zapirain izan dira, bertsolaritzan beren izena azaldu dutenak.

Bata, Jose Zapirain Irastortza. Karlis-ten bigarren gerra ondoren, bertsolari-saioak antolatzen asi ziranean, Jose Zapirain ori izaten zan puntu ta gai-jartzallea. Izen-goitiz, oker ez banago, *Txapillo* esaten zioten. Berak ere, aotik aora egiten zuan ez dakigu, bañan bertsoak jarri eta *Euskal-Erria* aldizkarian agertu oi zituan. Zapirain onezaz ez gera liburu onetan mintzatuko.

Beste biak, Juan Krutz Zapirain Etxeberria eta Jose Zapirain Aranburu, aita baten semeak ziran; bi amarenak, ordea.

Bi anai auen bizitza ta bertso-lanak osatuko dute liburu au.

Errenderi'ko semeak ziran: bertan jaio, bizi ta il ziranak.

Errenderi'koak ziran, baita ere, Xenpelar aundia, Saiburu iru anaiak, Zabaleta bi anaiak, Taberna, Urrutia, Frailia, Txin-

txua, Telleri-Txiki, Panderitarrak, Salaberria, Joxepa Antoni Aranberri... Oietatik batzuk, etorkiak ziran, bañan beren denbora geiena bertan egiñak; orregatik, bertsolari ziran aldetik, errederiarrak. Txirrita ere ala zala esan diteke; Errederi'n bertsolari egin zana alegia.

Ta, oiek danak gutxi balira, beste bi izen erastera goaz gaur zerrenda orri: Juan Krutz eta Jose Zampirain.

Erririk bai ote da, Errederi'k ainbeste bertsolari sortu duanik?

AITA ERE BERTSOLARI

Juan Krutz eta Joxe bi anai bertsolari auen aita, Jose Bizente Zampirain Esain zeritzan, eta bera ere errederiarra zan, 1820. III. 26'an jaioa (1).

Manuel Lekuona jaunak, bere idazlan batean, onela dio Juan Krutzengatik ari dala: «*Es hijo de padre bertsolari como él*».

Juan Krutz eta Joxeren semeai, Jose Bizente orren billobai alegia, zera onezaz galdetu ta baietz erantzun digute: ala zala; etxean, Bordaxarren alegia, sagardotegia izaten zutela ta antxe jarduten zala.

(1) Errederi'ko 11'garren bataio-liburuan, 79 orrian.

Bañan aren bertsorik etzekiten, Joxeren seme batek, Salbadorrek, eman diguna izan ezik:

Karlista gerratea, bigarrena, bukatu berria omen zan. Balak, bala osoak beren polbora ta guzi alegia, nunai azaltzen ziran.

Juan Krutz-eta, iru edo lau lagun juntatzen omen ziran; danak mutil koskorrak. Batean, bala-mordo bat bildu ta gaztañ aundi barru-uts batean sartu zuten; baita ote-mollo batzuek ere, ta gero su eman.

Andik aldendu, babesean jarri ta begira zeudela, an ikusi zuten auzoko gizon zar bat, Ataño baserrikoa, bere lan-tresnak artuta nola zetorren. Zijoan bidetik aurrera joanda, gaztañaren ondotik igaro bear zuan.

Orduan Juan Krutzek, atera ta onela esan zion:

—Ez aurrera pasa! Ez aurrera pasa!

—Zer ba?

—Gaztaña tiroka asiko da ta ez aurrera pasa!

—Utikan!

Purrustada egin da bialdu zuan mutikoa, ta, ia parera iritxi zanean, asi da gaztaña tiroka.

Orduan etzan giro! Atxurrak eta danak botata, igesari eman zion Ataño orrek, eta

nora ta Bordaxar'ko atarira. Antxe omen
zan Jose Bizente ere, tiro-otsarekin-edo
etxetik irtenda.

Gaztaña zutik gelditu, ala ere. Ondoren,
bertso au kantatu zion Jose Bizentek Ata-
ño orri:

Onuzkero gutxinez
eun urte baditu,
bere eginkizuna
daneiri serbitu;
orren pazientziyak
zenbaitek balitu,
sua emanagatik
ez dute mugitu.

Gaztañaren izenean kantatu alegia, ba-
ñan auzoko Ataño arek entenitzeko mo-
duan: pazientzi geiago edukitzeko esaten
zion; andik aurrera ez pasatzeko esan zio-
tenean, zerbaitegatik izango zala.

JUAN KRUTZ, JAIO

Jose Bizente ori, Astigarraga'ko Felipa
Ramona Etxeberria'rekin ezkondu zan.

Onoko seme alaba auek izan zituzten:
Jose Anjel, 1848.III.1'an jaioa; Josefa Ina-
zia, 1849.XI.12'an; Josefa Antonia Justa,
1852.VIII.6'an; Jose Joakin, 1855.I.28'an;

Jose Ramon, 1857.V.14'an; Juana Bautista, 1859.X.19'an; Polonia, 1862.II.9'an; ta Juan Krutz, 1867.I.3'an (2).

Agiri auetan, abizena Zapiain esaten da. Bañan Zampirain esan zuten beti Juan Krutz eta Joxek, eta gaur ere ala diote beren ondorengoak. Orregatik, guk ere ala idatziko degu.

Aiton-amonak, aitaren aldetik: Salvador Antonio Zampirain, Errenderi'koa, ta Maria Anjela Esain, Altza'koa.

Amaren aldetik: Kaietano Etxeberria ta Josefa Inazia Oiartzabal, biak Astigarraga'koak.

Juan Krutzen aita ta ama-pontekoak: Juan Felipe Belamendia, Beizama'koa, ta Maria Krutz Azkue, Errenderi'koa. Auek ezarri zioten, beraz, Juan Krutz izena.

Ta nun jaio ote zan bertsolari au? Beraren seme Bizentek, Azken-Portu'n jaio zala esan digu, *Lanera*'ko ondoan. Garai batean, itxas-ontziak araño sartzen omen ziran, da ortatik omen du Azken-Portu izena.

Gaurko *Maria de Lezo* kalean, 30'garren zenbakian, etxe txiki bat omen zan orduan. Etxe artantxe jaio omen zan. Gaur, lengo etxe txikia bota ta etxe aundi bat egiña dago.

(2) Errenderi'ko 13'garren bataio-liburuan, 41, 63, 110, 148 ta 189 orrian; eta 14'garren bataio-liburuan, 35, 76 ta 169 orrian.

Beren baserria, Bordaxar, lenengo karlista-liberalen gerratean erre egin omen zan. Orregatik izango ziran Azken-Portu'n. Bañan, Bordaxar berritu zutenean, ara aldatu ziran. Aldaketa ori, Juan Krutz jaio, ama il da andik denbora gutxira egingo zuten.

Ama, Juan Krutz jaio ta berealaxe il zan; Juan Krutz, Ilbeltzaren 3'an jaio, ta ama, andik bostgarren egunera il, 8'an, berrogei ta bi urterekin (3).

Aur-egite-ondorioz il zan; *de sobreparto* alegia, eriotz-agiriak dionez.

Ama ilda, nola azi ote zuten aur jaio berria? Manuel Lekuona jaunak bi tokitan eman du orren berri. Batean erderaz, 1929 urtean, Santa Jenobebaren bizitzaren itzurrean:

Refiriéndose el poeta a esta época de su vida, dice con desenfado: «No es frecuente el uso del biberón. En mi tiempo no se estilaba. Cuando me ponía a llorar, mi hermana mayor me tomaba en brazos y me llevaba por los caminos, y a la primera mujer que pasase le pedía por favor me diera de mamar. Y me daban... Así me crió, a falta de madre, mi pobre hermana».

Ta euskeraz, 1973'eko Oarso aldizkarian, onela dio:

(3) Errenderi'ko 7'garren eriotz-liburuan, 113 orrian.

Alderdi au, berari entzun bear zitzaion esaten!

«Bularreko aur nintzala, amarik gabe gelditu nintzan ni. Arreba zaarrenak azi ninduan... besteren bularrean. Goizero plazara joaten ziran emakumeen bularretik azia naiz. Emakumeak, plazatik etxera zi-joazen garaian —goizeko amarrak aldean— bidagurutzetara ateratzen ninduan arrebak, emakume aietakoren batek bularra eman-go ote zidan. Baita pozik eman ere aiek, ordu artan esnez lertzen zeramaten bularretik».

Jose Zapiirain'en seme batek, Salbadorrek, onela esan digu:

«Goiko bidera ateratzen zan arreba ori bere anaiarekin. Astigarraga ta Errenderi'ko mendietatik, andik barrena pasatzen baitziran emakumeak plaza aldera.

Urrutieneko, Eguzkitza baserritik etor-tzen ziran; ta gero Intziñarte, Floriaga iruak, Aitzondo ta abar. Bordaxar ondotik pasa ta segi Ametzagain'dik barrena, Otxoki, Polloe ta Donosti'ra. Sailka joaten ziran, alkarrekin bulla ta berritsukeritan, beren asto ta tratuarekin.

An bide-gurutze bakarra dago, gure etxera, Bordaxarrera, joateko. Ta emakume aiek aurra artu, exeri, bularra eman, ondoren muxu bat ere bai, eta etxe aldera segitzen zuten».

JOXE, JAIO

Juan Krutzen ama il da andik iru urtera, aita berriro ezkondu zan, berrogei ta iru urterekin, 1869.XII.20'an (4).

Andregaia, Maria Josefa Aranburu Arizmendi zeritzan, ta Oiartzun'go alaba zan, Sagartzazu baserrikoa, Txiki-erdi ondoan. Ogei ta amar urte zituan.

Aita, Agustin Maria, oiartzuarra zan; ama, Josefa Antoni, amezketarra.

Iru seme-alaba izan zituzten: Mikaela Josefa, 1871.IX.27'an jaioa; Juan Jose, 1873.XI.4'an jaioa; ta Josefa Antoni, 1876. VI.14'an jaioa (5).

Juan Jose orri, senideetan bigarren bertsolaria izango zanari alegia, Juan alde bat utzi ta Jose esan zioten beti: Joxe Zapirain. Anaiak ere Juan zuan; Juan Krutz alegia. Bearbada, orretxegatik izango zan izenaren erdiarekin gelditzea.

Joxeren amak, bere aurrakin-da ari zala, askotan onela kantatzen omen zuan:

Askoren arrazoiak
aditzen ditugu:
«Umiak txit gaiztuak
atera zaizkigu!»

(4) Errenderi'ko 10'garren ezkontza-liburuan, 45 orri-aldean.

(5) Errenderi'ko 14'garren bataio-liburuan, 267, 311 ta 352 orrian.

Ez eman balitzaie
biar ainbat kastigu;
flojo bizitu dira,
obra da testigu.

Garai artako eziketa olakoxea baitzan.
Bearbada, orduan gogorregi ta gaur bigu-
ñegi. Bañan erdiko bide ori asmatzen ez
izan erreza...

Bertso ori eman ziguna, Joxeren seme
Manuel izan da, ta doñua ere kantatu digu:



SENIDEAK

Juan Krutz eta Joxeren senideetaz, ez
gera geiago arduratuko. Orregatik, bakoi-
tzak zer egin zuan, orain emen esango de-
gu eta orrekin bukatu.

Zarrena, Jose Anjel, aita berriz ezkondu zalako-edo zapuztuta, Ameriketara joan zan ta aren berri etzan geiago jakin.

Josefa Inazia, Loiola'ko Espartxo baserrira ezkondu zan.

Josefa Antoni Justaren berririk ez daki-gu. Senide danetan gazteenak ere, Josefa Antoni zuan izena. Bearbada, lenengo Josefa Antoni illa izango zan, bigarrena jai-zanerako, ta orretxegatik izen ori bera jarri.

Jose Joakiñen berririk ere ez degu ikasi.

Jose Ramon, Altza'ko Telleria baserrira ezkondu zan; bere ondorengoak antxe bizi dira gaur ere.

Juana Bautista, Loiola'ra ezkondu zan; gero Astigarraga'ko bentetan bizitu zan; azkenik, Errenderi'ko kalean bizi ta bertan il.

Polonia, Loiola'ko Ezkurrene baserrira ezkondu zan.

Juan Krutz, Loiola'ko Telleria baserrira ezkondu zan; bañan onen berri gero emango degu.

Mikaela, Loiola'ko Paskualdegi baserrira ezkondu zan.

Joxe, etxerako gelditu zan; bañan onen berri gero emango degu.

Bigarren Josefa Antoni ori, Altza'ko Aizpurutxo deritzaion etxera ezkondu zan.

Argibide auek danak Juan Krutz eta Joxeren semeai zor dizkiegula, esan bearrrik ez dago.

GERRATEA

Gerrate ori, liberalen eta karlisten arteko azkena, 1872'an asi zan eta 1876'an bukatu.

Bordaxar baserria, mendian dago: San Markos eta Txoritokieta kaxkoak, ego aldera ditu; Altza ta Pasaia erriak, berriz, ipar aldera.

Tarte orretan, burruka latzak izandu ziran. Ango baserriak, berriz, batean karlisten mende ta urrengoan liberalak sartu. Ta bien jokera zer izango zan jakiña dago: baserriak erre, kosetxak galdu, aziendak eraman ta abar. Gozamen ederrik artuko zuten inguru artako baserritarrak...

Bordaxarren ere, kontu bera izango zan.

Bost urte zituan Juan Krutzek gerra-asieran, eta amar bukatu zanean; Joxe, berriz, gerra bero-beroenean zala jaio zan.

Urteen buruan, onela esango zion Juan Krutzek Manuel Lekuona jaunari:

«Umetan gogoan daukat, baita —jarraitzen zuan— nola Erreterria'ko Samarko mendiaren oñean, gu ume koxkor, josta-

tzen ibiltzen giñan, soroan billatzen genituan, karlistateko bala biribillakin. Bigarren karlistatea, izan berria bait zan artean» (6).

Beste ondorenik ere ekarri zuan Juan Krutzentzat gerrateak. Gerrate ori, Juan Krutzen eskola-urteetan izan zan, ta mutilla eskolarik gabe gelditu.

Ona nola dion Lekuona jaunak:

«Juan Krutz, bigarren karlistate-inguruan jaio zan. Gerra-ondoren gure errieta-ko gauzak oraindik ondo eratzen asi gabe zeudenean. Ez da arritzeko, beraz, gure Juan Krutz eskolatu gabea izana. Txikitan etzuan, eskolan ibiltzerik izan, orduan beste askok eta askok bezela-bezelaxe. Etzuan ikasi, ez idazten, ez irakurtzen» (7).

Bere anai Joxe ere, alatsu geratu zan: irakurtzen eta idazten ikasi gabe.

Dakigunez, bein baño geiagotan gertatu oi da ori bertsolarien artean. Ta, guri beintzat, orretxegatik are arrigarriagoa zaigu bertsolaritza, eskolagabeak ere liburu barentzat aña bertso jartzera eramaten baititu.

TELLERIA

Juan Krutz, 1892.VIII.6'an ezkondu zan, goizeko zazpiretan, Donosti'ko San Inazio-ko parrokan.

(6) *Oarso* aldizkaria, 1973.

(7) *Oarso* aldizkaria, 1973.

Andregaiia, Mikaela Indaberea Arrieta zeritzan. Ogei ta zazpi urte zituan, ta donostiarra zan. Aita, Jose, ernaniarra; ta ama, Maria Krutz, donostiarra (8).

Donosti'ko Telleria baserrian jarri ziran bizitzen.

Baserri ori, gaur Loiola'ko kuartelak dauden tokian zan. Kuartel oiek egitera-koan bota zuten. Onekin batera, beste iru baserri ere galdu ziran orduan: Ezkurrene, Urdintxo-goia ta Urdintxo-beia.

Telleria, Urumea'ko ibai-ertzean zegoan. Oso etxe polita omen zan; terraza bazuan, eta tamarindo arbolak ere bai atarian. Ta, erribera eder artan, oso lur onak, baratzak alegia, ta Donosti'rako tratu asko prestatzen zuten.

Loiola esaten ari gera, bañan ez omen da orrela. Egia omen da, berez; alegia, ibaiaren ezker aldea, Loiola, ta eskubi aldea, Egia.

Onoko seme-alaba auek izan zituzten, danak Telleria ortan jaioak eta Donosti'ko San Inazio'n bataiatuak:

Jose Antonio, 1893.VI.13'an jaioa; beste seme bat, jaio bezin laixter il zana ta Joxepa Antonik, aitaren arrebak, bataiatu zuana, 1895.II.4'an; Jose Maria, 1898.V.13'an

(8) Donosti'ko San Inazio'ko lenengo ezkontza-liburuan, 82 orrian.

jaio ta 1974.IX.23'an il dana; Jose, 1900.III.6'an jaioa; Maria Pilar, 1904.III.2'an jaio ta bost urterekin illa; ta Bizente, 1910.IV.5'an jaioa (9).

Gaur egunean danak illak dira, gazteena, Bizente, izan ezik. Emengo argibide ta berri asko, berari zor dizkiogu.

BORDAXAR

Joxe, anaietan gazteena, gelditu zan etxerako. Juan Krutz ezkondu zanean, berra artean emeretzi urteko mutil gaztea zan.

Andik amaika urtera ezkondu zan, ogei ta amar urterekin, 1904.VIII.27'an, Errenderi'ko elizan (10).

Andregaiia, Maria Kontzezion Ezeiza Oiartzabal zeritzan. Ogei ta bost urte zitan, eta Errenderi'ko Frantzesillaga-zarra baserriko alaba zan.

Frantzesillaga-zarra ori, Astigarraga'ko bentatik Landarbaso aldera artu ta andik berreun bat metrora dago, Errenderi'ko partean.

(9) Donosti'ko San Inazio'ko 2'garren bataio-liburuan, 455 ta 552 orrian; 3'garrenean, 170 orrian; 4'garrenean, 109 orrian; 5'garrenean, 90 orrian; ta 6'garrenean, 208 orrian.

(10) Errenderi'ko 10'garren ezkontza-liburuan, 230 orrian.

Aita, andik bi illabete t'erdira il zan, 1904.XI.10'an, larogei ta sei urterekin (11).

Joxe ta bere emazteak bederatzi seme izan zituzten, eta alabarik bat ere ez: Juan Jose, 1905.IX.14'an jaioa; Jose Fernando Ramon, 1906.VIII.21'an; Jose Antonio, 1907.X.22'an; Saturnino, 1908.XII.7'an; Jose Joakin, 1911.VII.17'an; Salvador, 1912.IX.5'an; Juan Krutz, 1915.XII.4'an; Jose Manuel, 1916.XII.21'an; eta Jose Mari, 1919. I.17'an (12).

Agirietan ola daude izenak. Jose geiegi noski, izketarako beintzat. Ala, oietako zenbaiti, izena laburtu eta Jose Ramon, Antonio, Joakin eta Manuel deitu oi zaie beti.

Juan Krutzen aita-ama pontekoak, Juan Krutz gure bertsolaria ta Mikaela bere andrea izan ziran; aurraren osaba-izebak alegia.

Saturninoren aita-pontekoa, berriz, Al-tza'ko Gazteluene baserriko Saturnino Erauskin izan zan. Txirritaren koñaduaren anaia zan, ta bertsolaria bera ere. Aren bertsoak eta bizitzaren berri: *Auspoa*, 76.

(11) Errenderi'ko 11'garren eriotz-liburuan, 83 orrian.

(12) Errenderi'ko 17'garren bataio-liburuan, 151 ta 190 orrian; 18'gn. liburuan, 33, 84 ta 198 orrian; 19'gn. liburuan, 50 ta 213 orrian; 20'gn. liburuan, 13 ta 115 orrian.

Ta Jose Manuelenak, Jose Manuel Erauskin eta Isabel Lujanbio izan ziran, senar-emazteak, Altza'ko Gazteluene'ko etxeko jaun-andreak.

Jose Manuel orri, *Gartelu* esaten zioten, eta Bordaxarkoak lagun aundia zuten. Isabel, berriz, Txirritaren arreba zan; berak artu ere egin zuan etxean, zartu zanean, bere anai bertsolari parrandero ura.

Bi bertsolari-pameli izan, beraz, auzo xamarrean, eta biak adiskidetasunik aundienean bizi.

Joxeren ama, 1907.X.22'an il zan, Bordaxarren, irurogei ta amar urterekin, «*por insemnia lenta*», eriotz-agiriak dionez (13).

JUAN KRUTZ, ALARGUN

Europa'ko gerra (1914-1918) bukatu ta laister, gripe-izurrite ikaragarri gaizto bat zabaldu zan. Arentzako mugarik etzan, eta Bidasoaz onuzko aldean ere gallendu ta kristau asko il zituan.

Telleria'n, Mikaela, Juan Krutzen emaztea, eraman zuan; 1918.XI.4'an il zan, gaueko zortziretan. «*A consecuencia de bronconeumonía gripal*», eriotz-agiriak dionez (14).

(13) Errenderi'ko elizako 11'garren eriotz-liburuan, 257 orrian.

(14) Donosti'ko San Inazio'ko 6'garren eriotz-liburuan, 61 orrian.

Juan Krutzek, amaika bertso jarri zituan eriotz orri buruz, emaztea il aurretik senarra ta biak egin zituzten izketa-aldiak eta abar esanaz. *Azkeneko gaba* dute izenburua bertso oiek; liburu onetan arkituko ditu irakurleak.

Ondoren, beste bost bertso ere jarri zituan, eriotz orrek biotzean utzi zion illuntasuna agertuaz. Oiek ere, liburu onetan daude.

Len esan bezela, Juan Krutzen seme-alabetatik bakarra bizi da orain: Bizente, gazteena. Onela esan digu bere amaz:

«Juxtu-juxtu gogoratzen naiz ni amarekin. Oxo txikia ni. Beti gaixo zen, nik ezagutu nuenean; beti reumarekin. Ibilpidea baldartua. Asko sufritu zuen; oñaze aundiak. Gogoratzen naiz Fitero'ra joaten zela; bañan onik ez. Azkenean gripeak arrapatuta il zen; Europa'ko gerra ondoren sortu zen gripea. Etzuen gure amak oiean denborik asko egin.

Izeba bizitu zen gurekin: Katalina, amaren aizpa. Bi aizpa bakarrik ziran; anairik etzuten. Amak baño bi edo iru urte geiago zituen.

Moja joateko zegoen, baña gure ama mintsu ta gero gazterik il zen. Ta ura geratu zen, gu danok zaintzen. Beti gurekin bizitu zen.

Ni, orrek azi niñun. Ama bezela neretza-

ko. Anai zarrenaren eta nere amandrea zen gañera.

Amak, etxeko gobernua egiten zuen; ta izeba joaten zen Donosti'ra tratua saltzera. Baratza ona baigenduen.

Ta, ama il zenean, etxeko martxa guzia izeba orrek eramane zuen, gaxoak. Oso bizkorra zen».

Katalina ori, 1939.XII.25'an il zan, irurogei ta zortzi urterekin, Arramendi base-rrian, «*a consecuencia de aristolia*», eriotz-agiriak dionez (15).

JOXE, ALARGUN

Juan Krutzen emaztea il da andik bi illebetera, Joxeren andrea il zan; gripez au ere.

Etxeko danak kutsatu omen ziran, gurasoak eta seme guziak alegia, bat izan ezik: Saturnino.

Danak, gaitzaren mendetik atera ta sendatu ziran; bañan ama ez. Aur egin berria baitzegoan, aul xamar arrapatu zuan. Gripe ez-ezik, pulmonia ere izan zuan: «*pneumonia doble gripal*», eriotz-agiriak dionez. Arek eramane zuan, 1919.II.28'an, ogei ta emeretzi urteko ama gaztea zala (16).

(15) Errenderi'ko 15'garren eriotz-liburuan, 8 orrian.

(16) Errenderi'ko 13'garren eriotz-liburuan, 47 orrian.

Bederatzi seme utzi zituan: zarrenak, amairu urte ta zenbait illabete; gazteenak, berrogei bat egun. Aitaren biotzarentzako alaibide ederra...

Bere anai Juan Krutzek bezela, Joxek ere bertsoak jarri zituan emaztearen erioztzari buruz; bein ez-ezik, bi aldiz ere bai. Ta emaztea joateak biotzean utzi zizkion utsune ta naigabea, bein baño geiagotan aita-tzen ditu bere gañontzeko bertsoetan.

Bañan Joxe etzan ez-bear orrekin kuxkurtu; arpegi eman zion, eta danak aurre-ra atera ta izugarri famili ederra azi zuan.

JUAN KRUTZEN BERTSO-LANAK

Ona nola zion Juan Krutzek berak Lekuona jaunari, onek 1973'eko *Oarso* aldizkarian esaten duanez:

«Gaztedanik, ostatuetan bertso-kantatzea atsegin izan det nik beti: neronen bertsoak eta besterenak; Xenpelar'enak etab. Nereetakoen artean, kantatu izan ditut iñoiz nere emaztearen erioztzakoak; bañan, ezin zitekean: entzuten zeudenak, negarrez asten ziran».

Ta lentxeago onela dio Lekuona'k:

«Ala ere, biotz romantiko baten jabe egin zuan gure Jaunak. Eta ezer bada-ta, bertsoak gustatzen zitzaizkion. Asko ta gustora entzuten eta ikasten zituan, eta iñoiz baita berak jarri ere».

Bertsotarako deia edo zaletasuna, gaztetandik sortu zitzaion, beraz.

Ona nola dion Lekuona'k, *Yakintza* aldizkarian (1934, XI-XII), bertsolari onen eriotzaren berri ematearren egin zuan idazlanean:

«Etzan ibiltzen erriz-erri kantari. Etzuan ark beste zeinbait bertsolarik aiñako ospe ta otsaundi baztarretan. Ixillik egiten zuan lan. Ixillik egiten zituan bere bertsoak. Biotzak eskatzen ziolako bakar-bakarrik. Atxurrean ari zanean-ta; itzai zebillenean-ta... Aopean... ixillik... Ostatueta-eta, oso bakan. Erriz-erri, bakanago».

Plaza-bertsolaria etzala esan nai du.

Oarso aldizkarian, berriz, 1973 urtean, onela zion Lekuona jaunak:

«Bañan Euskalerrian, bertsolariez gañera izan ditugu, izan, plazagizon ez diran beste bertsolari batzuek ere: zenbait lekutan *rapsoda* esaten zaien aietakoak; *rapsoda* edo *juglar*; beren bertsoak ixillean egin eta gero berak kantatzen edo besteri kantatzeko ematen dizkietenak; ez bait dira, *olerkari* esaten zaienetakoak —beren *olerkiak irakurtzeko* egiten dituztenak, eta ortarako liburu batean argitaltzen dituztenak—. Ez argitaldu, ez *irakurtzeko* egin; eskutik eskura edo belarritik belarrira, kantatuaz banatzeko baizik. Gaztelerrian *juglar* esaten bait zitzairen; Europa'n zear, berriz, *rapsoda* edo *bardo*.

Gure Euskalerriak ere izan ditu eta ba

ditu olako rapsodak. Eta oietan bat —oso ona— errenteriar bat, ez ain ezaguna azken-urte otan —ain zan ixil ta jatorra bere bertso gintzan—; bañan bai ezagungarria, ezagutzea merezi lukeana: Zapirain'dar Juan Krutz, Arramendi'koa».

Bañan zenbat bertso-sail paratu edo jarri zituan, ba, Juan Krutz onek? Liburu onetan, sail guzien aurretik, bakoitzaren berri emango da. Orain, ordea, sail oien zerrenda osatu nai genduke.

Santa Jenobebarenak, eun ta irurogei ta iru bertso dira. Sail onek ezagutu-arazi du Juan Krutzen izena Euskalerrri guzian; onek eman dio famarik geiena. Itxurak diranez, 1899 urte-inguruan jarri zuan.

«*Ai gure antxiñeko guraso nobliak...*» asten dan sailla, bestea. Au ere, aurrekoaren garaitsukoa-edo izango da. Zortzi bertso dira.

Mixio bati jarritako bertsoak ere badi-tu. Auek ere, jaso al izan ditugunak, zortzi dira; bañan geiago ere izango ziran.

Azkeneko gaba edo emaztearen eriotza, amaika bertso, 1918 edo 1919 urtean jarriak.

Gure euskera beste bertso-sailla, Erren-deri'ko Euskal Olerki Egunerako jarria, amabi bertso, 1930'an.

Ta, azkenik, *Oraingo legia*, lau bertso, 1930'eko *Oarso* aldizkarian argitaratuak.

Oiek, gorde diranak; gure eskuetara gabe, beste zenbait ere izango dira. Ona emen Juan Krutzek berak Lekuona'ri esaten ziona, onek *Yakintza* ortan dionez:

«Elizan entzundako itzaldietatik gaia artu-ta, orain berriro egiñik utzi digu beste lan luze bat ere: «Jesus'en Nekaldi ta Eriotza».

Sail onezaz Lekuona'ri berari galdetu ta onela erantzun digu:

«Ezeren arrastorik ez daukat orain buruan. Bertso oiek nunbait ere idatzirik gelditu bear zutela ematen du, bañan ez dakit ezertxo ere. Izan ere, andik laixter gerra etorri zan, eta olako gauzak joan egingo ziran nere burutik».

Ta gure artxiboari ere astiñaldi bat eman diogu, alakorik ezer agertuko ote zan; bañan alperrik gure egiñala. Beraz, oraingoz beintzat, galdutzat eman dezakegu sail ori.

Lekuona'k *Yakintza* ortan idatzitako beste itz batzuek ere aitatu bear ditugu oraindik:

«Lenago egiñik ere bazituan laburrago ko beste batzuek. Errenderi'ko Olerki-Egunerako Euskerari buruz egindako bertso berri orria; ta lenago egiñak gutxienez beste bi aldi ere bai. Emeretzi urtetan, gaixorik ia illean egon zenean, berak bere buruari aterea bat; eta andre maitea il zizaionean aren eriotzari aterea bestea».

Oietatik, euskerari eta andrearen erioztzari atereak aitatu ditugu. Bañan emere-tzi urtetako ori, gaixorik egon zanekoa alegia, ez degu iñon arkitu. Au ere galdu-tzat jo bearko degu.

Ta, len esan bezela, seguru aski bertso geiago ere izango zuan jarririk.

Dakigunez, Juan Krutzek idazten eta irakurtzen etzekian. Norbaiten sekretario-tza bearko zuan, beraz, bertsoak paperera-tzeko. Santa Jenobebarenak zeñek kopiatu zizkion, badakigu: andreak. Ezkondu on-doren ta alargundu bitartean, aretxek egin-go zion lan ori. Bañan ezkondu aurretik eta alargundu ondoren, ez dakigu zeñen laguntzaz baliatuko zan.

JOXEREN BERTSO-LANAK

Joxe Zapirain bertsolaria, bertso-jar-tzalle ugaria izan zan. Guk bildu ditugu-nak, ogei ta amaika jarri-aldi ditu.

Oinbeste izanik, ezin asiko gera orain, anaiaren bertso-lanakin egin degun antze-ra, zerrenda guzia osatzen.

Sail bakoitzak, bertsolarien artean oi da-nez, amar, amabi edo amasei bat bertso ditu. Bertso geiago duanik, oso gutxi. Ta bat ere ez, noski, Santa Jenobebaren bizi-tza bezin luzea.

Galdu diran bertso-saillak ere baditu bertsolari onek. Bere seme Salbadorrek onela esan digu:

«Txirrita ta Fermin Imaz asarretu zira-nean, gure aitak bazituan Txirritaren alde jarriak; gure aita, Txirritaren lagun aundia baitzan. Bañan etziran atera; bukatu egin baitzuten beren auzia edo gaizki esaka-aldia».

Guk, beintzat, ez degu iñondik bertso oien aztarrenik atera, ta galdutzat eman ditzazkegu.

Auspoa'ren 76'an, 80 orri-aldean, Altzako Marrus baserriko Andres Arrieta'k-eta, bei jatea nola egin zuten esaten da; ta ondoren, batenbatek bertsoak jarri zizkiela ere bai; bañan ez da ematen ez bertsorik eta ez bertsolariaren izenik.

Joxeren seme Salbadorrek eman digu argibide ori:

«Bertsoak jarri zizkiena, gure aita izan zan. Andresi berari kantatu omen zizkion, berak kantatzeko eskatuta. Ondoren, onela esan zion Andres orrek:

—Txorrotxa aiz! Bañan barkatzen diat!»

Bañan oiek ere inprentatu gabe gelditu ziran, eta buruz dakizkianik ez degu iñor arkitu. Beraz, oiek ere galduak.

Errenderi'ko Aitzondo baserriko Pilar Etxebeste'k, beste jarri-aldi baten berri

eman digu: Joxe, norabait joan eta an gaizki artu zuten. Ondoren, bertsoak jarri zituan. Bañan Pilar ori, bertso bakarras oroitzen da:

Eskatu nion sagardua ta
ni an neguen begira,
ta esan ziran: «Emen zu baño
lenagokuak badira;
pakian ondo konpondutzeko
ai zer nolako segira,
estorbu egiten dirazu eta
zuaz nai dezun tokira!»

Aitzondo'ko Pilar orrek berak esan digunez, radioari jarritako bertsoak ere bazituan. Oietako bat, auxe:

Radio orren pasadizuak
kontatutzeko irian:
danian igual korritutzen du
legorrian da urian,
ikusi eta sentitu gabe
pasatutzen da parian,
segundo batez korritutzen du
eun legua birian.

Pilar orri berari zor diogu beste argibide au ere: beste batzuek ere ba omen zituan eguzkiari ta lurrari jarriak; bertso oietan, bueltaka zebillena ekuzkia zala esaten zuan, eta lurra geldirik zegoala.

Askotan kantatzen omen zituan. Bañan oietatik, orain alerik ez daki ez Pilarrek eta ez beste inork.

Ta aien berri guk jaso gabeak, beste zenbait bertso-sail izango dira edo izan ditezke.

Bildu al izan ditugunak, geien-geienak, inprentatik pasata daude; argitaratuak alegia. Moldiztegi-lan ori, Errenderi'ko Makazaga'k egin oi zuan; iru modutara egin ere.

Lenengo, bertso-paperetan. Joxek-edo, bertsoak norbaiten eskuz idatzita eramango zituan, inprentatzeko enkargua eman, da Makazaga'k bere lana egin.

Bigarren, *Bertsolariya* aldizkarian. Bertso zarrak eta berriak argitaltzeko asterokoa izan zan ori, Makazaga orrek berak antolatu ta ateratzen zuana. Urtebete iraun zuan. *Bertsolariya* ortan, Joxeren lau bertso-sail badira.

Ta, irugarren, liburuxka bat. Joxe artean bizi zala zan. Bere seme Manuelek onela esan digu:

«Bera zebillen bertsoak ateratzeko intentzioan. Zeñen bitartez egin zuan, ez dakit. Amaren anaiak lagunduko zion. Kopiatu, Aitzondo'ko Pilarrek».

Ala, Makazaga'k liburuxka bat atera zuan. Onela zeritzaion: *Zapirain'dar Jose-*

ba — Nere bizitzako bertso batzuek — Makazaga'ren irarkolan — Errenderi.

Danetara, Joxeren 168 bertso ditu; ta beste amabost seme batek, Salbadorrek, jarriak.

Bañan, len esan bezela, bertsolari onek idazten ez baitzekian, nork egiten zion lan ori?

Gazte-denboran ortarako zein ote zuan, batere ez dakigu.

Ondoren, bere seme Manuelek bein edo bitan egin zion; Salbadorrek, berriz, geiagotan. Salbador, ordea, praile joan zan, eta besteren bat billatu bear orduan.

Auzoko neskatxa batengana jo zuan; neskatxa ori, orain berriro aitatu degun Aitzondo'ko Pilar Etxebeste izan zan. Onek, aldi askotan egin zion sekretariotza; beste iñork baño askoz geiagotan.

Joxek esan alean, kuaderno batean idazten zituan bertsoak. Kuaderno ori izan omen zan, ain zuzen, aitatuko liburuxka ori egiteko, Makazaga'ren moldiztegira eram zutena.

Joxeren semeai galdetu genien kuaderno orri zer egin zioten, ta ez genduan eran tzun pozgarririk jaso: bati ta besteari utzita, etxez-etxe ibilli zala, ta azkenerako galdu; aren aztarrenik etzutela.

Bañan, Aitzondo'ko Pilar Etxebeste'ren-

gana joan giñanean, onek albiste ohea eman zigun: Berak, kuaderno bat Joxerentzat, Bordaxarrerako alegia, izaten zuala; bañan beste bat ere bazuala beretzat; bi kuadernotan idazten zituala Joxeren bertsoak; ta bigarren kuaderno ori, bere anai batek eramana zuala, bañan etxeratuko zuala.

Ala, urrena Aitzondo'ra joan giñanean, antxe zegoan kuaderno ori, gure zai. Orduan ez giñan asarre.

Kuaderno ori maiz xamar aitatuko degu liburu ontan. Ta beti orrela deituko diogu: Aitzondo'ko kuadernoa.

Aitzondo'ko kuaderno onek, Makazaga'ren liburuxkak baño bertso geiago du, ta garbiago ere bai. Utsegitez zikindu gabe alegia. Jakiña, kuadernoari kopiatu diogu.

Orain baño len esan oi degu, bertsolari zarren bertsoak, moldiztegien erruz daudela, aldi askotan, neurritz trakesturik eta itxusiturik. Oraingo ontan, geren begiz ikusi egin degu ori, eskuz idatzia eta moldiztegi lana alkarren ondoan jarriaz. Ta moldiztegi danak Makazaga'ren añean gelditu izan balira, gaitz erdi.

JUAN KRUTZ, AOTIK AORA

Aotik aora ere kantatzen zuten noski bi bertsolari auek.

Joxeren seme Salbadorrek, onela esan digu osabagatik, Juan Krutzengatik alegia:

«Arpegiz-arpegi ere egiten zuen bertsotan. Askotan ikusi nuen nik bertsotan Arramendi'n, sagardotegia baitzuten. Abots txikia, abots bajua zuen. Tabernan ere askotan aritzen zen ura.»

Joxeren seme Manuelek, berriz, onela:

«Eztarri bajua, bañan kanta ona zuen; indarrik gabeko boza, bañan gustagarria.»

Juan Mari Lujanbio, Saiburu bertsolariaren semeak, asko ezagutu zuan Juan Krutz zana. Arramendi'n-eta bertsotan ikusi ere bai; askotan gañera. Onela esan digu:

«Berak gogoia zuenean, bera asten zan ura. Bruxan eskua sartzen zuan; ola sartu-sartu eginda jarri ta bera asten zan. Bañan baju-bajutikan beti; beiñere etzuen boza altxa ere egiten.»

Bañan, zoritxarrez, baju kantatuz entzuteko erreztasuna ematen etzualako-edo, ez dit iñork Juan Krutzen aotik aorako bertsorik eman.

JOXE, AOTIK AORA

Joxe ere, askotan jarduten omen zan aotik aora. Etxean ez ordea; kanpoan bai, lagunartera joanda. Ezer gutxi asko omen zuan bertsotan asteko.

Are geiago oraindik, zartu zanean. Bordaxar inguruko baserritarrak esan digutez, Joxe, bere azken urteetan, buruan bertsoa besterik etzuala jarri omen zan.

Bakarrik zala ere, naiz bidean joan edo belarretan edo ganaduakin lanean ari, nuna eta beti bertso-argurioa somatzen omen zitzaion.

Egun batez, etxetik Loiola'rako bidean, Ametzagaña'tik bera Plazentzi baserriko ataritik igarotzean, kantari omen zijoan.

Bi emakume, alkarrekin izketan, antxe; ta, ura kantari somatuta, batek onela esan zuan:

—Aiton ori kantari zien! Egoaizea aterako din!

Bañan Joxek entzun zuan ori ta jira ta onela esan zion:

—Aizan, atsoa! Ni kantari noanean egoaizea atera bear badu, geienean gorde gabe ibilli bearko din! (17).

Bertsolari geienak oi dutenez, Joxek ere bazituan bertso-tako izketa-aldiak ere. Onako au, bere seme Salbadorri jasoa degu:

«Bein batez, aitak gallega bat ikusi zuen gure mendian, egur-sorta bat egin eta ezin jasorik.

(17) Gertaera au, Joxeren seme Manuelek esana.

Onela esan zion gallega orrek:

—*¡Abuelo, venga a aquí!*

Ta gure aitak:

—Bai zertara baneki!

—*¡Arriba, arriba!*

—Makurtu ari ba!

—*¡No entiendo vasco!*

—Etzekiñat, ba, nik erderaz asko!».

Beste au, berriz, Altza'ko Gazteluene'ko Jose Ramon Erauskin Lujanbio'k emana:

«Joxe ori tabernara joan, asi eztabaidan ta ango etxeko andreari onela esan:

—Agur, Balentina, betiko!

Ez egun bat eta biko!

Sekula geio ez naiz etorriko!

Bañan andik bi egunera, osteran zan».

Ta aotik aora kantatutako bertso bana-ka batzuk ere jaso al izan ditugu; ez guk nai aña, bañan bat edo beste bai.

Lendabiziko au, Oiartzun'en, Ugaldetxo ballaran, Larria baserriko Patxi Labandibar zanari jaso:

«Astigarraga'ko Elio bertsolaria zanarekin bertsotan ari omen zan. Elio ori jaio-tzerakoan, bere ama il omen zan; bera ere saietsetikan atera bear izan omen zuten. Ta Joxek onela kantatu zion:

Bertso bat kantatzeko
artu det idia,
Elioi ein biaiot
gauza onen galdia:
Aztu egin al zaiken
joandako bidia?
Sartu itzan tokitik
ez aiz ateria!

Elio ori, Astigarraga'ko Elionea baserri-ko semea zan. Inazio Berasarte zeritzan. Gazterik il zan, aldamio batetik-edo erorita. Biziko balitz, gaur berrogei ta amar bat urte izango zituan. Lexoti, Lazkao-Txiki, Arozamena ta kide ortako bertsolariekin, askotan kantatu zuan.

Beste bertso au Joxeren seme Manuelek emana degu:

«Elio ori, bakarrik bizi zan bere baserrian. Aita ta ama il, arrebik etzuen, eta bakarrik. Parrandan asko gustatzen ziztaion eta lanean gutxi; ta gure aitak, Eliorekin tabernan topo egin zuen batean, onela kantatu zion:

Bordaxarrek gaurkuan
esango'izkik ederrak:
juiziyua artuko dik (18)
ote eta larrak;

(17) *Juizioa*, terrenoai esaten diete Errenderi ta Astigarraga aldean.

an egingo dizkitek
suak eta garrak,
onak izango dituk
jendiaren parrak!»

Beste bertso au, Eliorena da. Bere libururik ez degu egingo, ta obe emen partzea. Saiburu'ko Juan Mari Lujanbio'ri jaso da. Onela kantatu omen zuan bein batez:

Katiakin lotuta
etxian zezena,
mantentzeko ez dakit
nun dan almazena;
neoni're ez nabil
sujeto zuzena,
eztet gobernatzen da
eztago gizona.

Beste bertso au, Joxeren seme Manuelek eman digu:

«Intziñarte, Errenderi'ko baserri bat da; Tolareberri'ko eskoletatik lenengo baserria, Oiartzun aldera.

Ango mutil gazte batek, Joxek, lana Errenderi'n egiten zuan. Bizikletan joaten zan.

Egun batez, beti bezela lanera goitik bera zijoala, Isatseko aldapan, Txirrita baserriaren parez-pare, bere koñaduaekin,

gurdia ta beiakin maldan betik gora zeto-
rrela, topo egin zuan. Ta Joxe ori, gurdia
jo ta bertan il zan.

Aren gogoangarri, gurutze bat dago
gaur ere bide-bazterrean.

Ta Joxe Zapirain'ek, bein ez-ezik, bide
artan pasatzen zan bakoitzean, bertso au
kantatzen omen zion:

Lore ederrak ortxe
dauzkizu botiak,
orra zer egin dizun
presaka juatiak;
ordaindu badituzu
munduko kaltiak,
irikiko zaizkizu
zeruko atiak (19).

Urteak aurrera ta bere burua osasuntsu
Joxek. Bere kideko lagunak ajez ederki
aberastuak, eta bera ondo. Barrengo poza
gañez egin da arronka piska bat jotzen asi
zan. Ala ematen dute aditzera urrengo bi
bertsoak.

Lenengoa, Aitzondo'ko Pilar Etxebeste'
ri jaso da. Ez dakigu ondo aotik aorakoa
zan edo sailla zan. Bañan nunbait jarri bear
ta ara emen:

(19) Mutil orren izen-abizenak: Jose Olaziregi
Etxeberria; 27 urte zituan; 1948.IX.10'an il zan.

Gazte-denboran pizkorra nitzan
saltoka eta korrika,
besua ere ez nuen txarra
ta banekien arrika;
sasoi batian etzidan neri
iñork egiten parrika,
ama batendik etzan sortuko
pizgorragoko aurrika,
ta oso txarra etzan izango
ni sortu nitzan paurrika.

Bigarrena ere, ez genduke esango sailla
zan edo bakarra zan. Errenderi'ko Saibu-
ru'n jaio ta Altza'ko Etxeberri'n bizi dan
Anjel Lujanbio'ri jasoa da. Onela esan zi-
gun:

«Irurogei ta amar edo irurogei ta ama-
bost urte baño geiago zuan, nik ori aditu
nioneko. Bere kintako edozeñi, iru aziota-
ra jokatuko ziola esaten zuan: korrika,
segan eta bertso jartzen; eta irutatik bi
irabaztea seguru bazekiela. Bere kintako
gizonak, orduan bakar batzuk bizi ziran.
Ta bertsoa ere bazuen:

Urtiak pranko badauzkit eta
ez nago mutil gaztia,
eta alare pentsatutzen det
desapiyoka astia;

nik daukazkidan bentaja oiek
oso eskasak ezta:
korrika eta belar ebaten,
bertsuak jartzen bestia,
jokatzen badet, iruratik bi
seguru irabaztia».

Beste bertso au, Anjel orren anaia dan
Juan Mari Lujanbio'ri jaso. Onela esan
zigun:

«Batean, zakarrak biltzen ari nintzan.
Oso giro txarra zegoela joan nintzan, goi-
zean; izotza ere egiña zegoela. Bazekien
ni arek nolatsu ibiltzen nintzan, da goi-
ko bidetikan batere kaso egin gabetandik
bazijoan. Ta adio esango zuelakoan, bañan
etzuen esan; bertso au kantatu zuen:

Ai zenbat ondatzen dun
nekia ta lanak!
Nola bizitu naizen
badakite danak.
Urte batzuak dauzkat
desgustora juanak,
danak aztuko ditu
erremate onak».

JUAN KRUTZEN AZKEN URTEAK

Len esan bezela, Telleri'tik atera be-
rra izan zuan Juan Krutzek, Loiola'n kuar-
telak egitera zijoazela-ta.

Telleri'ko nagusia, Heriz jauna omen zan; Errenderi'ko Arramendi baserria ere berea zuan, ta ara aldatu zan Juan Krutz bere familiarekin.

Arramendi baserri ori, Errenderi'ko kaletik amar bat minutura dago, Astigarragara dijoan kamio-bazterrean.

Toki polita ta paketsua izango zan garai artan. Gaur egunean, ordea, etxe berri aundi oiek oso urreratu zaizkio; autopista ere ondo-ondotik pasako zaio, ta lengo pake ta edertasunak, andik ere ondotxo uxatuko dira.

Bertsolari-tokira zetorren Juan Krutz. Errenderi'ko kaletik Astigarraga'ko benta bitartean, Telleri-Txiki, Saiburu ta Txirrita baserriak daude, ta orrekin dana esana dago.

Arramendi'n jarri zituan Juan Krutzek *Gure euskera* ta *Oraingo legia* deitzen diraden bertso-saillak. Bañan, bertsolari zan aldetik, Telleria'n eman zituan, guk uste, fruturik onenak: Santa Jenobeba, andrea il zitzaioneko bertsoak, eta *Ai gure antxiñeko...* asten diranak ere bai, bearbada.

Arramendi ortantxe ezagutu zuten alkar Manuel Lekuona'k eta biak. Ezagutu eta adiskide miñak egin. Ori gertatu ez balitz, askoz gutxiago jakingo genduke bertsolari oni buruz.

Ta Arramendi ortan il zan Juan Krutz, 1934.III.8'an, arratsaldeko seiretan, pleuresia gaitzaz, irurogei ta zazpi urterekin (20).

Ondoren, bertsolariaren il-berria ematearren *Yakintza* aldizkarian argitaldu zuan idaz-lanean, onela zion Lekuona jaunak:

«Eskergarri dira euskaldunontzat Euskeraren alde zer edo zer egin duten oro. Naiz bertsolari xume izan. Gure bertsolariak, beste edonork baiño geiago egiten dute Euskeraren alde. Zillarrezko izkiz idatziak euki bear genituzke, bertsolari guztien izenak, iltzen diranean aztu ez dakizkigun.

Eta iltzen ari zaizkigu.

Orain berriro il zaigu bat. Juan Krutz Zapirain. Errenderiarra. *Brabante'ko Jenobeba*'ren egillea».

Illeta nolakoa izan zan ere esaten du:

«Ozte aundia izan giñan bere illetan Errenderi'ko eliza ederrean. Gutxitan bezelakoa. Ebanjelio-ondotik Mezerdia bitarteko *ofrenda*... Adiskide asko zuan baztarretan gure Juan Krutz zanak».

Juan Krutzen seme bat gelditu zan Arramendi'n, Joxe Mari, orain berriro 1974.IX.23'an il dana. Ta Joxe Mari orren semeak-eta, gaur an bizi diranak.

(20) Errenderi'ko 14'garren eriotz-liburuan, 233 orrian.

JOXEREN AZKEN URTEAK

Joxek, bederatzi seme azita, azken urteak pakean eta goxoki igarotzeko itxaropenetan egongo zan noski. Bañan ez izan ura artarako jaioa. Berak bertso batean diona:

beti gustora ibilitzeko
ez naiz mundura jaiua...

Ala, gerra sortu zan eta bi semek, Jose Ramon eta Antoniok, bizia galdu zuten. Beste batzuek, berriz, preso edo soldaduzka serbitzen. Aita, Joakin eta Joxe Mari bakarrik etxean. Amar lagunek betetzen zuten sukaldeko maia, ondo utsik geratzen omen zan irurekin...

Ondoren, gerra bukatuta, berriz ere itxaropenetan jarriko zan noski. Ondo alperrik.

Gerratik bizirik atera ziranak etxeratu ziranean, andikan laister berriz ere ez-bearra. Urumea'ko ondarra ateratzen ari zala, Saturninok su artu eta andik egun batzutara il, 1942.I.2'an.

Joxek oso zartzaro luzea izan zuan, eta oso sasoi onekoa ibilli zan beti; bizkor eta osasuntsu, ia eriotzera arte.

Larogei urterekin, arboletara ere igozten zan eta segan ere egiten zuan. Ordukoxea omen da, bere seme Manuelek kontatu digun gertaera au:

«Bein batez, segan ari zala, ortan izugarri piña zan, bañan egun artan terrenuaren muga pasa-edo egin omen zuan.

Beste aldekoak ikusi ta onela esan zion:

—Sartu aiz, Joxe, sartu!

Ta onek, *sartu* ta *zartu* berdin eginda:

—I ere zartuko aiz, bai, nik ainbeste urte munduan pasatzerako!»

Ta, azkenik, oso gaixo-aldi laburra izan zuan.

Larogei ta iru urte zituala, perlesiak jo zuan. Itzegiten zuan, bañan ezkerreko alderdi guzia geatuta zeukan.

Lenengo, Aiete'ko gaixotegi berrira eramán zuten, da andik Martin Santos'en klinikara. Bañan onerakorik etzuan eta berak eskatu zuan etxera, bere Bordaxarre-
ra eramatea: jaio ta bizi izan zan tokian ilnai zuala.

Ala, eramán zuten eta antxe il zan, 1957.I.27'an, «*a consecuencia de hemorragia cerebral arterioesclerosis*», elizako eriotz agiriak dionez (21).

Gaur egunean, Bordaxarren, Joxeren iru seme —bat ezkondua— eta billoba-mordoska bat bizi dira.

(21) Errenderi'ko elizako 16'garren eriotz-liburuan, 316 orrian.

GURE AITAREN PASADIZUAK

Manuel Zapirain, Joxeren semeak, bere aitaren gertaera ta bertso batzuek idatzi ditu, zenbait orri-alde beteaz eta aurretik or goien ezarri degun izenburua jarriaz. Ona emen zer dion:

★ ★ ★

Gau batean, neskari lagunduta zetorrela, Benta baserriko atzeko oraindik an dagon zelai batean, garia omen zegoen meta-txorrotua.

Ain illargi ederra omen zan, eta, goiko bidetik begiratuta, non ikusten dituen lau edo bost mutil, bat bota ta bestea bota.

Bi arri koskor artu ta tiriaz, oju egin omen zien:

—Lan ederra ari dezute, mutillak!

Uso-demoniño sakabanatu omen ziran alde banetara, zutik zeudenak utzita.

★ ★ ★

Beste batean, Benta inguru ortan, zabaldu omen zan, astoa edo asto-tanke-
ran, sorgiña edo duendia ateratzen zala bi-
deetan. Ikaratuak omen zeuden ango jen-
deak.

Len esan dedan bezela, bada-ezbada
ere, bi arri koskorrekin omen zetorren
etxeruntz.

Tolareberri ta eskola pasata, Intziñar-
te'ko bide-gurutzearen parez, ezker aldeko
sasi-kroska batetik, salta omen zion aurre-
ko aldean, bide erdira, asto aundi batek.

Bi arri koskorrak tira omen zizkan, da
laixter gorde omen zan aren bixtatik.

☆ ☆ ☆

Gaxtelu xarra zuen lenbiziko laguna, ta,
ura zartu zanean, Manuel Kataliñene'koa-
rekin segitu zuen; ta arek seme baten bo-
dara konbidatu zuen.

Bazkaria aurreratu zanean, Altza'ko bi-
karioa zuen aldamenean Manuelek, eta
bertso bat bota omen zion gure aitari, esa-
naz arratsalde ederra pasa zuela, ura asa-
rre zegonarekin.

Gure aita, asarre ez bada ere, ez bai-
tzan ondo ibiltzen bikario arekin. Ola eran-
tzun omen zion:

Orain ere zuk egiña dezu
laguntzalle segurua,
nolabait ere bildutzen dezu
olako bat inguruâ;
oso tontua ez da izango
apaiz jaun orren burua,
orren esanak ondo egiñaz
seguru dezu zerua.

—Etzidaken lan ederra jarri! —esaten
zuen.

☆ ☆ ☆

Meza nagusira joaten ziran Altza'ra.
Martillune'n amaietakoa egin ta etxera.
Guk bazkaltzerako, Manuel ori an izaten
zan askotan, kafea artuta.

Biak bruxa beltzarekin, egualdi ona
bazan, *buelta-Gipuzkoa* esaten ziotena egi-
ten zuten: Benta, Otsazulueta, Zamalbide
ta Kantina. Txarra bazan, *buelta txikia*:
kantinara joan, arratsaldea pasa ta etxera.

Etxera bidean bada Perretzeku-lekueta
deitzen zaion bide-gurutze askoko kasko
bat. Bide erdian zan, gurdi-ardatzak doi-
doi utsegiten zuen arri koskor bat.

Manuel orrek, —poliki piztuak ere etor-
tzen ziran—, aren gañean exeri ta bertso
bat botatzen omen zuen aldiro. Gureak ere
bai batzuetan.

Ura il ezkeroztik, esaten zuen, pasatzen zan aldiro, agur-mari bat esaten zuela aren animaren alde.

☆ ☆ ☆

Umetan beiñere ez omen zan eskolara joan, ta, amalau urte zituela, bere aitak Errenteri'ra eskolara biali omen zuen.

Egunero paluak eta paluak egin, nazkatu omen zan, eta esan omen zion geiago etzijoala.

Ta aitak:

—Zer egin bear dek orduan?

—Nik? Lana!

Ondo bete zuan bere denboran orixe!

Zartu zanean, broman esaten zuen:

—Gipuzkoa guziko lineak osatzeko diña palo badek nik egiña!

☆ ☆ ☆

Gure auzoko baserrian, iru edo lau neska omen ziran, aren kidetsukoak. Lau edo bost bat mutil ibiltzen omen ziran ondotik, eta beti artan aritzen nunbait.

Bertso bat moldatu omen zuen. Kantatzen ari zala, bere arreba Joxepa Antonik entzun ta esan omen zion:

—Zer uan ori? Kanta zak berriz!

Ta kantatu omen zion auxe:

Arkiri'ra dabilta
Brillante ta Koskor,
Paskual Txikiya ta
Luixio Mozkor;
beste nobiyorikan
ez ote da iñor?
Erramun Beltza ere
allegatzen da or.

☆ ☆ ☆

Beingo batean, Martillune'n sartu omen zan, an jende asko zegola, denak pixtuak berriketan ari zirala.

Ta asi omen zan bati ta besteari, denak nastutzen zituela. Berari ere ekin omen zioten: zer ari zan, batere balio etzuen berriketa artan, ixilik egoteko esanaz.

—Ixo denak! —oju aundi bat egin omen zuen orduan gure aitak, eta denak ixilik.

Asi omen zan orduan:

—Itzegin zazute orain!

Ta denak ixilik. Ta berak:

—Ni ixiltzeko baitziñaten, itzegin orain!

Noizbait ere, gizon sano-patxaratsu zan Joxe Mari Txurdiñene'koak esan omen zuen:

—Beirik bai al dezute ernari?

An omen ziran algarak eta parrak!

☆ ☆ ☆

Donosti'tik gatozela, aldapa bizi bat da, gure etxera iritxi baño lentxeago. Malobra egin nai ta ezin alkartu.

Zaldi-karroarekin kalera anaia joaten zan.

Sasoi zeukan-da, bultzaka ta abar, ederki kostata egunero biziena utsegiten zuela, alako erreztasun bat edo xabalune bat zeukan terrenuak.

Or bururatu zaio gure aitari, bide berria egin bear duela. Asi ta egin; ogei ta amar bat metro, arrizko bidea. Alako lanik oraindik gizon bakarrak egiteko! Bakarrik egin zuen, ba.

Gure zaldi-karroak bakarrak zuen libre.

Egun batean, Altza aldetik zetorrela, Txurdiñene'ko Joxe, San Marko aldetik iratze gurdiarekin, Irazuene'ko atarian topo gure aitak.

Ekin omen zion broman, eltzeko itxura egiñez:

—Nondik pasa aiz: zarretik edo berri-tik?

Baimenik atera al dek erritik?

Ikusiko dek, eltzen badit gerritik!

☆ ☆ ☆

Ernia zuen urte askotatik. Etzuen inoiz esan.

Gau batean, larogei urterekin, Oiartzun'era segara zijoala, terraplen batetik erori ta min artu zuen. Amabost-aldiren bat egin zuen oiean.

Mediku bearrik etzuen izaten.

Andik urtebeteren batera, pulmoniya arrapatu zuen, bere itxurak ematen zute-nez. Sagardoa edanez pasa zitzaion.

Esan nionean medikuari:

—Jainkoak etzuen naiko iltzea! —esan zidan.

☆ ☆ ☆

Azken urteetan askotan esaten zuen:

—Jainkoak bere eskuetatik utzia zioke mundu au! Mundu berria zetorrek!

Bere denboran apaizak errespetoko izan bazituen ere, etzuen ondo artzen apaiz askoren joera:

—Apaiz txar oiek galdu ditek dena! —esaten zuen.

☆ ☆ ☆

Esaten zuen:

—Ni ez naiz besteak bezelakoa!

Llagaz betea jaio zala esaten omen zion amak.

Besteetan:

—Ni, altzairua bezela nak: zuzenean fin okertzen asi ezkerro, autsi!

Askotan berriz:

—Sekula, nere bizitzan, etziot iñori len-bizi faltatu!

Azken urteetan askotan esaten zuen:

—Jesusek esaten dit, Arek bere erriari Bera ezagutarazteko abildaderik etzuela izan, eta nik ere nere familia ez dedala konbentzituko!

Biotz onekoa, umilla, alaia, zelebrea, jostallua berez, dena bide onetik artzen zuena zan. Nerbiosoa ta fiñegia; orrek gal-tzen zuen.

☆ ☆ ☆

Klinikatik azkeneko gaixo-aldian ekarri genduen ezkerro, oitura zuen iru gauza elkarri nastuak eskatzeko. Iru gauza oiek ziran kafea, patarra ta azukrea.

Azkeneko gabeen, oitura genduen bezela emaztea ta biak joan giñanean, mutil txikia gelan korrika somatu ta esan zuen:

—Gizon ttikia ibiliko dek or?

Gizon ttikia esaten zion. Gero esan zigun:

—Ekarri iru gauza elkarri nastuak!

Ez dituk-eta gaiztuak!

Nik esan nion kalte egingo ziola.

—Piskak ez dik kalterik egiten! Piska dana ona dek! —zion.

Gero, altxa naiean, iru aldiz onela esanez asi zan:

—Zuek... Zuek... Zuek...

Ezin esan izandu zuen ezer. Uste degu, «Zuek emen bear dezute!» esaten zigun len da, ura esan nai zigula.

Ala, oieratu giñan, ta anaia gelditu zan kontuan. Goiz aldera, iru ta erdiak edo lauak aldera il zan.

☆ ☆ ☆

Baimena eskatuaz
mundutar danari,
bertsoz bere denboran
saiatu zanari,
nola ez bada sortu
bertso bat edo bi?
Zerutik ere ez luke
barkatuko ori.

Birjiña izan zendun
munduban zuk maitez,
lagundu biar zizun
zeruban Ark nai t'ez;
pixtuko zan Ura're
zurekiko gaitez,
munduban ez baña or
atsedendu zaitez.

Zu juañ ziñan baño
emen gabiltza gu,
estropozua nonai
billatutzen degu;
seme guziengatik
egizu erregu,
Manuelek orrela
desiatutzen du.

Parte artu nai nuke
goiko korte ortan,
ni ere arkituko naiz
arnasaren faltan;
Jesusi erregutu
kantu edo kantan,
oroi dedilla nitzaz
une gallur artan.

**JUAN KRUTZ ZAPIRAIN'EN
BERTSO-LANAK**

SANTA JENOBEBA

(ARGIBIDEAK)

Juan Krutz Zapirain bertsolariari famarik geiena eman diona, Santa Jenobebaren bizitza izan da; Brabante'ko Jenobebaren bizitza 163 bertotan.

Bizitza edo poema ori salbatu zuana, berriz, Don Manuel Lekuona apaiz jauna izan zan. Salbatu ez-ezik, Juan Krutzen lan oni dagozkion argibide guziak eman ere bai. Bein baño geiagotan mintzatu da gai orrezaz. Mesede ederra guretzat: orain ez baitegu bere esanak onera aldatu beste lanik.

Lenengo, Santa Jenobebaren kontraera gure artera noiz sartu zan aztertzen du Lekuona'k. Onela dio erderaz, 1929 urtean, bertso-saillari erantsi zion itzaurrean:

«No sabemos en qué fecha se introdujo en la literatura oral vasca la bella leyenda alemana de Genoveva de Brabante. Son muy populares en nuestros caseríos cuentos cuyo ciclo temático corresponde perfectamente al de la referida leyenda».

Ain zuzen, Don Jose Migel Barandiaran'ek ipui bat badakar gai onekin berarekin (1): Santa Jenobebaren ordezt, etxe batego erraña; Golo gaiztoaren ordezt, amagiarreba; kondearen ordezt, etxeko jaun bat; ta seme bat ez-ezik, seme-alabak.

Ipui ori bi tokitan jaso du Barandiaran jaunak: *Andre doakabea*, Ataun'en, 1904 urtean; eta *Erraña ta Amagiarraba*, Zigoitia'ko Etxaguen'en 1919'an.

Bañan idatziz noiz jarri ote zan? Onela jarraitzen du Don Manuelek, leku berean:

«Quizás no sea tan difícil establecer la data de su incorporación a nuestra literatura escrita. La editorial tolosana de Gurruchaga publicó en 1868 un librito de 140 páginas en 8.º con el título de *Santa Genovevaren vizitza —anciñaco denboretaco condairen ederrenetaco bat— Persona pres-tu guztientzat; — baña beresquiro amaquin beren seme-alabantzat era egoquin*; en 1882 publicaba la misma casa otra edición con idéntico título, y otra en 1892. La popular casa, también tolosana, de Eusebio López, daba por su parte a la estampa en 1885 otro volumen de 224 páginas en 8.º bajo el título de *Brabanteco Genovevaren — bizitz arrigarri miragarria. — Cristobal Schmid-ec egin eta — eusquerara itzulia Dn. Gregorio Arruec. — Bear dan baimenarequin*».

(1) J. M. Barandiarán: *Obras Completas*, II, 271 ta 273 orri-aldeetan.

Geroztik ere argitaratu da liburu au. Zarautz'ko Itxaropena'k atera zuan, 1960 urtean, bere *Kuliska sorta*'ren 37-38'garren alean, izenburu onekin: *Brabante-co Geneveva-ren bizitz arrigarri miragarria. Egi-lla Kristobal Schmid, euskeratzallea Gregorio Arrue.*

Ondoren onela dio Lekuona jaunak:

«La leyenda obtuvo buena acogida entre los lectores *euskaldunes* a juzgar por el número de ediciones; tanto más cuanto que en nuestras aldeas es corriente que de libros de esta naturaleza no haya en toda una vecindad más que un único ejemplar, que cada año, durante la invernada, pasa de casa en casa hasta que se lee en todos los hogares».

Ta oar batean onela esaten du:

«Las vidas de nuestra heroína son seguramente las que han batido el *record* de tales rondas en nuestros caseríos. No hay en Guipúzcoa quien no haya oído hablar de «Santa Genoveva». En los años de nuestra infancia, nos eran familiarísimos los relatos de la emocionante historia, de la que era fama que nadie la había leído ni podía leer sin llorar».

Badakigu, beraz, Santa Jenobebaren bizitza noiztsu euskeratu zan eta nolako arre-
ra egin zion gure erriak. Bañan artean itz-lauz, prosaz bakarrik degu. Bertso-
tan noiz eta nola jarri zuan Juan Krutz bertso-

lariak? Orixe degu urrengo pausoa. Ona Lekuona'ren itzak leku berean:

«Fue el año de 1899 cuando compuso el poema de Genoveva de Brabante.

He aquí la historia de su gestación.

En el caserío de nuestros buenos Juan Cruz y Micaela existía la costumbre de leer vidas de santos durante las veladas de invierno. Entre aquellas no podía faltar la de Genoveva de Brabante.

Reunida toda la familia alrededor de la lumbre, la *etxekoandre* lee un capítulo del *Brabante-co Genovevaren bizitz arrigarri miragarria*. Terminada la lectura, todos se retiran a descansar.

Juan Cruz permanece silencioso. En su espíritu persiste tenazmente la impresión causada por los relatos leídos poco ha. El es poeta y no puede descansar hasta dar forma a la emoción que le acosa. Por fin ésta cristaliza en una docena de estrofas que a falta de conocimientos de escritura, el poeta va almacenando en la prodigiosa arca de su tenacísima memoria. Al día siguiente, marido que dicta y mujer que escribe, trasladan al papel el fruto de aquella inspiración, que se repetirá del mismo modo todos los días mientras dure la lectura del libro».

Len ere esanik daukagunez, Juan Krutz Ilbeltzaren 3'an jaioa zan. Ain zuzen, egun orretan ospatzen zan Santa Jenobebaren

fiesta eguna. Santa ori, Paris'ko zaindaria da, 422 urtean jaio ta 512'an illa.

Brabante'ko Jenobeba ere, Juan Krutzek bertsoak jarri dizkiona alegia, santatzat dauka edo euki du gure erriak; bañan bere bizitza *leyenda* bat da.

Bearbada, Juan Krutzek biak bat zira-la usteko zuan; ta, ala, kontaearen ederrak ez-ezik, ustez bere eguneko santa zanari zion jaierak ere mugituko zuan, guk uste, bertso jartzera.

Ondoren, gure erriak bertsoak-eta buruz nola ikasten eta gordetzen dituan adierazten du Lekuona jaunak; gero, bertso berriak deritzaion literatura-motaz mintzatzten da. Bestela ere geiegi luzatzen ari baigera, ez ditugu oiek onera aldatzen.

Azkenik, Schmid'en liburua eta gure bertsolariaren poema konparatzen ditu; onoko aldaketa auek arkitzen ditu:

«En cuanto al argumento se nota la presencia de dos diferencias de alguna importancia entre nuestra versión y el original de Schmid. Una confusión de personajes, fácilmente explicable en las circunstancias del poeta, le ha hecho a éste poner a modo de confesión en boca de Golo (estrofa 98) lo que en el original es un consejo de Volfio al Conde (Cap. XIV). En el original, Volfio entrevé el crimen de Golo. En la versión, es el propio Golo quien aparece

confesando desde el primer momento de su entrevista con el Conde, el crimen por él cometido; crimen que, con gran sorpresa del lector, queda injustificadamente perdonado, para recaer luego sobre él sin nuevo motivo el castigo merecido.

La otra variante obedece sin duda a motivos de honestidad. Para nuestro poeta, en el ambiente de recato que reina en el seno del hogar vasco —donde se han de cantar sus *bertso berriak*—, desentona demasiado el eco del adulterio aun como recurso literario a emplear en un poema de los tonos de «Genoveva de Brabante»; y así, aun cuando en el decurso de su obra deje flotar entre líneas tan siniestro eco (estrofas 25-26-29-30-117-118), la acusación del nefando crimen no llega a formularse en el momento culminante. En el poema aparece Genoveva acusada de homicidio. Golo imputa a ella la muerte del fiel cocinero Draco, asesinado por el pérfido Mayordomo (estr. 32-39).

Por lo demás, tampoco faltan en la obra detalles de alguna consideración debidos exclusivamente al numen personal del buen *bertsolari erreteriarra*, que tuvo el feliz acuerdo de dotar a la literatura popular vasca de una obra de tanta ponderación».

Ta Juan Krutzen eriotzaren berri ematearren *Yakintza* aldizkarian (1934, XI-XII) argitaratu zuan idaz-lanean, berririo adierazten du Lekuona'k, bertsolari onek

nola egin zuan bere lana; Santa Jenobebaren bizitza bertsoan nola jarri zuan alegia:

«Ez bait-zekian idazten. Ezta irakurtzen ere. Ortantxe dago, ain zuzen, gure bertsolariaren arrigarritasunik bereziena. Berak irakurtzen jakin ez, ta, bestek irakurri alean, berak gaia gogoan artu ta gero bertso ederretan ipiñi. Ta idazten jakin ez, ta egiten zituan ahapaldi guztiak, bakar bat ere idatzi gabe, danak gogoan euki... Andreak, bere andre Mikela maiteak irakurtzen zion illunabarretan gure Arrue'k idatzitako «Brabanteko Genobebaren bizitz arrigarri miragarria». Eta bigaramonean, andreak berak idatzi ere, olerkariak gabero-gabero loak artu baiño lenago ateratzen zituan ahapaldiak... Andreak irakurri gaia ta andreak idatzi bertsoak. Baiñan ez Juan Krutz'entzat; yostundegietara eramateko-ta, eskatzen zituanari emateko-ta baizik. Juan Krutz'ek etzuan idatziaren bearrik, asi ta buka, bere 1.804 bertso-lerroak buruz kantatzeko. Izugarri bertsolari zan ontan».

Ta 1973 urtean, Errenderi'ko *Oarso* aldizkarian onela zion:

«Bañan, Jaunak ala nairik, gure Mikaela'k, orduan eskutik eskura zebillen «Brabanteko Jenobeba'ren bizitza» —erriak «Santa Jenobeba» esaten zuanaren bizitza— eskuratu zuan nunbait —Schmid batek alemanez idatzi eta Arrue ernaniarrak euskeratua—. Eta orduan baserrietan oitura zan bezela, neguko gau luzeetan, afal-ondoan

gure Mikaela'k liburu bitxi ura irakurtzen zuan, eta gure Juan Krutz'ek entzun.

Esata bat da gure artean, ez dala iñortxi ere, «Santa Jenobeba'ren bizitza» negarrik egin gabe irakurri duanik; ain dira negargarriak aren bizitzako pasadizuak... Gure senar-emazteak ere, bizitza artako zenbait pasadizu negarrez irakurriko zituzten.

Gauza da, emazteak irakurri-alean, gure Juan Krutz'i pasadizu aiek bertotan jartzeko gogo sortu zitzaioala. Eta, esan-da-egin, gabero sutondoan irakurtzen zana, berak gero, oiean loak artu baño len, dana bertso biribilletan —puntu luzeko bertotan— jartzen zuan, eta bigaramonean, lanera joan baño len, dana emazteari buruz kantatzen zion, eta emazteak dana pape-rean jartzen zuan, arik-eta liburu osoa bukatu zuten arte: senarrak kanta, eta emazteak idatzi.

Olaxe egiña da, gure Juan Krutz'en «Brabante'ko Jenobeba'ren bizitza»: 163 bertso-aapaldi, 525 puntu eder dituan Poema luze askia...»

Ikasi degu, beraz, Juan Krutzek bere lana nola egin zuan. Bañan nola eldu da guregana? Ona nola jarraitzen duan Lekuo-na jaunak *Oarso* aldizkari ortan:

«Juan Krutz'en lana, emazteak idatzia, etzan joan zuzenean iñungo Irarkoletara. Erreal biko kaier-kuadernotxo batean kuriosoki birridatzia, erriko jostundegi batera etorri zan. Jostundegiak, gure Aozko

Literaturaren baratza jator izan bait dira beti. Jostundegietan kantatu izan dira, gure errietan iñoiz sortu diran kanta guztiak, Santu-bizitzak, batez ere, eta neska-mutil-kantak zer esanik ez.

«Santa Jenobeba'ren bizitza'k» gure jostundegiko neskatxaen artean arrera ona arkitu bide zuan.

Jostundegi artatik etorri zan nere eskuetara, 1925'gn urte-inguruan.

Oyartzun'go neskatxa bat —Estrataburu'ko Joxepa— «Errenteriyen dendari» ibilki («dendari», jostun, alegia) eta ark kuadernotxoa gure arreba Pilar'i eman irakurtzeko, eta arrebak neri. Gogoan det oraindik, nolako arrera egin genion etxean kuaderno bitxi-bitxi arri. Egun berean, afal-ondoan kantari asi giñan, bertso bertsorik bertso. Ordu bete igaro, bi ordu igaro, eta, irutaratzean, gure ama, kexa: «Umiak: amabi orduak dirala!». Bañan bera ere, gaxoa, gurekin, bertso ukigarri aiek antzuten, azkena kantatu genduan arte...

Olakoxea izan zan neretzat, gure Juan Krutz'en Poemaren Epifania. Gero neronek eraman nuan irarkolara, itzaurre berezi batekin».

☆ ☆ ☆

Zenbat bider argitaratu ote dira Santa Jenobebaren bertso auek?

Juan Krutzen seme Bizentek, berak esan digunez, lenengo Iruñe'n argitaratu ote zi-

ran-edo, aditu izan omen du. Ori entzunik, Iruñe'ra joan eta ango Diputazioko liburutegian galdetu degu; bañan ez da olakorik ezer azaldu. Beraz, agertu bitartean beintzat, ez daukagu aintzat zer arturik dudazko argitaraldi ori.

Guk dakigularik, lenengo aldiz Gazteiz'en, *Eusko-Folklore* aldizkarian, agertu ziran. *Eusko-Folklore* ori *Eusko-Ikaskuntza* elkarteak ateratzen zuan: lau bat orri-aldeko illeroko bat zan, eta erriaren aotik jasotako ipuiak-eta azaltzen zituan. Zuzendaria, Jose Migel Barandiaran jauna zan. Santa Jenobebaren bertso auek, 1928'eko Garagarrillean asi ziran argitara ateratzen, eta 1929'eko Urrian bukatu. Gazteiz'ko *Montepío Diocesano*'ren *Irarkola*'k egin zuan moldiztegi-lana.

Urte berean, 1929'an alegia, bertso guziak batera bildu ta liburuxka bat osatu zuten. Itzaurre mamitsu bat erantsi zion aurretik Lekuona jaunak. Itzaurre orretan esanak, onera aldatuak ditugu, geienak beintzat.

Beste argitaraldi bat ere izan zuten bertso auek urte berean, 1929'an, Gazteiz'ko *Montepío Diocesano* orrek berak egindako liburuxka batean. Ontan ez dator Lekuona'ren itzaurrerik.

Argitaraldi au ez dakigu nundik eskuratu genduan. Apuntatu gabe gelditu zan

ori. Bañan daukagun liburuxkak, Tolosa'ko Mokoroa liburutegiaren sellua du.

Liburuxka ontan, eta emendik aurrerako argitaraldi guzietan ere bai, itzak pixka bat aldatuta daude. Adibidez, *Eusko-Folklore*'n eta 1929'eko lenengo argitaraldian, onela asten da lendabiziko bertsoa: «Konbeni zaigun ixtoriya bat...». Ta beste guzietan: «Danontzat on dan gertakizun bat...». Gañerako aldaketak ere, ola-moduzkoak dira. Oien berri ez degu oarretan emango, euskera garbitzearren-edo sartuak dirala nabarmen dago-ta.

Urte berean, 1929'an au ere, beste argitaraldi bat ere bada. Urtea badakar, bañan moldiztegi-izenik ez. Gure iritzirako, Erren-deri'ko Makazaga'k egingo zuan. Letraren itxura moldiztegi orrena baita. Argitaraldi au, Bidani'ko Berantegi baserrian jaso genduan.

Beste agitaraldi bat bada, *Imprenta Macazaga - Rentería*'n argitara emana. Onek moldiztegi-izenik badu, bañan urterik ez. Ez nuan apuntatu zeñen eskutik jaso nuan. Bañan liburuxkak, Azpeitiko Martínez'tarren liburutegiaren sellua du.

Ta, azkenik, beste argitaraldi bat; au ere *Imp. Macazaga / Rentería*'koa, bañan urterik gabea. Daukagun liburuxka, berri-berria dago, ta liburu-dendaren batean-edo erosia izango degu.

Ta gaur, liburu onetan alegia, beste argitaraldi bat.

Beraz, argitaraldiak kontatu ta besterik gabe ere, garbi asko ikusten da zer-nolako arrera egin dion gure erriak bertso-sail oni.

☆ ☆ ☆

Argitaraldi oiek, 1929 urtea ezkerozko danak, bertso auen doñu berezia ere bada-karte. Onoko auxe:



Bañan bestela ere kantatu izan digute.
Ona emen, lenengo, Errenderi'ko Saiburu
baserrian jaio ta gaur bertako kalean bizi
dan Juan Mari Lujanbio'k kantatu bezela.

Bigarren, bere anai Anjelek (Etxeberri
baserria, Altza) kantatu diguna.

Ta, irugarren, Errenderi'ko Aitzondo
baserriko Pilar Etxebeste'k kantatu duana.



A musical score consisting of six staves. The first staff is in treble clef, and the remaining five are in alto clef. The time signature is 3/8, and the key signature has one sharp (F#). The music is written in a single melodic line across all staves, featuring eighth and sixteenth notes, rests, and a final double bar line.

A musical score consisting of three staves. The first staff is in treble clef, and the second and third are in bass clef. The time signature is 3/4, and the key signature has two flats (Bb, Eb). The music is written in a single melodic line across all staves, featuring eighth and sixteenth notes, rests, and a final double bar line.



☆ ☆ ☆

Santa Jenobebaren beste bizitza bat ere bada bertsoan. Egillea: Juan Maria Zubizarreta, azkoitiarra, 1855'an jaio ta 1905'an illa. Bere bertso-bilduma: *Auspoa*, 82; bertso-sail au, 161 orri-aldean. Ogei ta zortzi bertso dira, ta, zazpi argitaraldi izan dituzte bertso-paperetan. Oiek gure eskuetara iritxi diranak, eta zortzigarren bat ere bai *Bertsolariya* aldizkarian, 1931/XII/13'an.

Beraz, Zubizarreta'ren bertso auek ere, gure erriaren gogokoak izan dira.

Onela esaten da 27'garren bertsoan:

pekatariak, ikasitzera
orain egin alegiña,
liburu oiek kostatzen dira
errial bi ta erdiña.

Liburu oien berri emana degu: Schmid'ek alemanez idatzi ta Arrue'k euskeratu zuan Santa Jenobebaren bizitza.

Zubizarreta'k, Zapirain'ek bezela egingo zuan: lenengo Arrue'ren liburutik esakizunak jaso, ta urrena bertsoan jarri.

Bañan sal-neurria ere esaten du bertso orrek: errial bi ta erdiña. Beste aldetik, berriz, Zubizarreta ori bertso-paper saltzen ibiltzen ziran oietakoa omen zan. Aldi artan, bearbada, Arrue'ren liburua izango zuan salgai, ta orduan bertso auk jarriko zituan, kantuan ari zalarik liburua ere erre-xago salduko zualakoan-edo.



Geiegitxo luzatu gera, bañan ala ere badegu oraindik beste zerbait esateko.

Lekuona'k, berak esan digun bezela, 1925 urte-inguruan jaso zituan bertso auk. 1928'eko Garagarrillean asi ziran *Eusko-Folklore'n* argitaratzen, eta 1929'eko Urri-an bukatu zuten lan ori. 1929'ekoak, beste iru argitaraldi ere badira; iru liburuxka, alegia. Ori alde batetik.

Bestetik, berriz, 1930'an, Bergara'n *La Poesía Popular vasca* izeneko itzaldia eman zuan Lekuona'k. Itzaldi ori, 1934'an argitaratu zuan. Ta 1936'an, *Literatura oral euskérica* izeneko liburu ezaguna atera zuan.

Lan auek danak, alkarrekin zer ikusi
aundia dute; alkarrekin lotuta daude. Bide
batean egindako pausoak dirala esan gene-
zake. Bañan lenengo pauso, Santa Jen-
obaren bizitza, Juan Krutz Zampirain'en
bertso-sailla alegia, eskuetaratzea eta argi-
taratzea izan zan.

SANTA JENOBEBA

(BERTSOAK)

I

SANTA JENOBEBAREN ITZ BI

- 1/ Konbeni zaigun ixtoriya bat
kantatu al bageneza...
Orretarako lagun zaiguzu,
zeru-lurreko Jueza.
Beljika'n ziran birtute aundiko
dukia eta dukesa,
aien alaba Jenobeba zan,
Rin-Bosela'ko kondesa.

- 2/ Duke-dukesen alaba au zan
ttikitandikan aziya;
bost urterako berak bezela
ardatzian ikasiya.
Amak au ziyon: «Aur onek badu
bestek ez duen graziya».
Ain umil ta ondo egiten ziyon
agindutako guziya.

- 3/ Amaika urte zitubeneko
ikusitzen zan elizan;
aingeru baten bizi-modua
jendiak zala zeritzan:
gaxo zeudenak bixitatuaz
gazte-gazterik asi zan,
al zezakian limosna egiñaz
oso kontentu bizi zan.
- 4/ Aren aita zan Brabante'kua;
Beljika'n ziran bizitzen;
gerra-batalla izugarriyak
zituben irabazitzen;
bere obrakin ona besterik
etzuben irakutsitzen;
dukesa, berriz, palaziyuan
alabatxua azitzen.
- 5/ Sijifredo zan konde aberats bat,
oso prestuba ta ona,
Jenobebaren aitak askotan
gerrara deitzen zubena,
eriyotzako peligrotikan
berak libratu zuana,
mesediaren orde zukiak
alaba eman ziyona.

- 6/ Duke-kondiak ziraden diruz
mugarik etzeukatenak,
soldadu-talde izugarriyak
berekin zeukazkitenak,
Jaungoikuaren beldurrekuak,
prestubak eta zuzenak,
gauza danetan biyak igualak,
berdin egiten zutenak.

II

JENOBEBA'REN EZKONTZA

- 7/ Ezkondutzeko prestamenakin
kondia abiyatu zan,
baliyo aundiko erregaliya,
oso ondo portatu zan.
O, Jenobeba gazte noblia
berela konformatu zan;
emezortzi urte zitubeneko
gaxua esposatu zan.
- 8/ Orretarako obispo jaun bat
esposatzeko bazuten;
bendiziyo ta kontseju asko
biyeri eman zizkaten:
«O, ezkonberri gazte nobliak!
Biyotza ari zait esaten,
zenbat tristura, neke ta pena
pasa biarko dezuten».

- 9/ Allegatu zan aita ta ama
despeditzeko eguna:
«O, Jenobeba! Beti egizu
emen ikasi dezuna!
Ai, Sijifredo! Andria maite;
baita zuk ere gizona!
Bera da zure mesediaren
ordez ematen zaizuna!».
- 10/ Bior eder bat Jenobebari
azpiyan jarri ziyoten,
egun askoko biria nola
beren etxera baitzuten.
Erriyan danak, aurretaraño,
negarra egiten zuten,
aitak eta amak begiratzeko
biyotzik izan etzuten.
- 11/ Aldez aurretik mandatariya
bialdu zuten etxera,
zer moduz eta nola zetozen
abertentziyan jartzera.
Aurretaraño txukun jantzi-ta
atera ziran birera,
beren kondia kondesarekin
pozez errezibitzera.

- 12/ Urrutitikan ikusi zuten
soldadu danen tartian:
ain emakume gazte ederra
bior apaindu batian.
Saludatzera jua zitzaizkan
bire guziya betian;
danari ondo itz egin ziyen
guzizko borondatian.
- 13/ Biorretikan jatxi zitzaien
aurpegi alaiarekin,
onla danari itz egin ziyen
arreta aundiyarekin:
«Zubek nerekin konten zerate;
baita ni ere zubekin.
Jaungoikuaren pake santua
izan dedilla gurekin».
- 14/ Au senarrari eskatu ziyon
palaziyora juateko:
soldadubari paga doblia
urti artan emateko;
gañekuari jarri limosna
oparo zabalduzteko,
gero're antxe izango zala
danari lagunduteko.

III

SIJIFREDO-PALAZIYUAN JENOBEBAREN SARRERA

15/ Oien etxeko sarrera izan zan
prozesiyo bat bezela,
ainbeste jende akonpañatzen
aldamenian zutela.

Gero kondiak esan ziyoten
erretira zitezela;
andre kondesak agindutako
dana emango ziyela.

16/ Allegatu zan Rin-Mosela'ko
ibai-ondoko ertzera;
jende guziya saludatu-ta
sartu ziraden etxera.

An zeuden danak kondesagana
esku emanaz eltzera:

«O, Jenobeba bedeinkatua!
Ama guria zu zera!».

17/ Konde-kondesak ibiltzen ziran
alkarren aldamenian,
nola etxian, ala kanpuan,
atera biar zanian,
zeruko santu-santak bezela
ain bizi-modu onian,
Jaungoikuaren borondatera
obediturik danian.

- 18/ Ango jendia gozatu zuben
eguzki batek bezela,
bazirudiyen inguru artan
gabik illuntzen etzala,
ona zalako eskerrak milla
askok ematen zizkala.
Gurasuari karta egin ziyen
txit ondo bizi zirala.
- 19/ Apal-onduan miradorera
juatia zuten usatzen:
linaia artu, kanta onak esan,
ardatzian zan aritzen;
senarra, berriz, kitarrarekin
aren bozari laguntzen...
Gaba artan bertan kondiarentzat
gerrara deia izan zuten.
- 20/ Erregegandik bi zaldun ziran
kondiagana etorri:
beren arteko pasaizuak
esan zizkaten alkarri.
Andre kondesak betikan gora
laster zituben ekarri:
sillak para-ta jan zezatela
mayian zituben jarri.

- 21/ Soldadubari agindu ziyen
gerra-soñua jotzeko;
bakoitza beren erremintakin
prebenitu-ta jazteko;
egun askoko bidia zala,
abere onak jartzeko...
ordena zala al zan lenena
moruetara juateko.
- 22/ Jende aiekin gure kondesa
lenbizi ibilli zala,
gero senarra prebenitutzen
asko nai ziyon bezela:
lantza ta ezpata berak, esanaz,
eskura eman zizkala,
Jaungoikuaren serbiziyan
ondo enplea zitzala.
- 23/ Burutik asi oñetaraño
armatu zuben kondia;
besora auspez jauzi zitzaion;
lastimatu zan jendia:
«O, Jenobeba! Ez egin negar,
nere emazte noblia!
Golo uzten det zure emengo
danen gobernadoria».

24/ Azken agurra doi-doi egin-ta
gelara juañ zan atzera,
negar-malkuak zerizkiyola
Jaunari errezatzera:
Komeni bazan senarra ondo
etorritzeko etxera...
O, Jenobeba! Gutxi ikusi-ta
mundutik juana etzera!

25/ Golo ori zan konde-kondesena
gauzen gobernatzallia;
buruz abilla, iztun ederra,
gezur-adornatzallia;
ain kontzientzi galdukua zan,
biziyo danen jabria...
Itz gutxirekin bukatutzeko
besteren andre-zalia.

26/ Kondia juañ zan momentutikan
Golo asi zan prestatzen
eguneroko ase-betiak,
jendia gaizki tratatzen;
etxeko andria besterik iñor
etzuben errespetatzen,
bere buruan zer zebilkiyen
etziyon manifestatzen.

27/ Sifre-burgo'ko gaztelu artan
ezkillak jotzen zituzten;
aitu orduko Jenobeba an zan
goizero meza entzuten.
Aren lekuba denbora artan
utsikan etzan ikusten,
gabian ere antxen askotan
Jaunari eskerrak ematen.

28/ Aberatsa zan kabu-gabia;
begira nola jatxi zan:
auzuetako neskatxatxuak
edukatuaz bizi zan.
Gure kondesa bisitatzera
etortzen etzan gutxi zan.
Orduan Golo pixkabanaka
galdu nayian asi zan.

29/ Jaungoikuaren bildurrekua
Jenobeba zan munduan;
bere morroiak tratatu zuben
infame baten moduan.
Kondesak ondo ezagaturik
Golok zer zeukan buruan,
senarragana eskribitzia
pensatu zuben orduan.

30/ Senarrarentzat pentsatu zuben
eskribitu biar zala;
orretarako bazerekiten
kartik pasatzen etzala;
morroi batekin entregatzia
obia izango zala:
gizon galgarri biyurrekua
andik aiena zezala.

31/ Kondesak zuben bere gelara
kozinerua ekarri;
karta ura nola pasako ote zan
esan ziyoten alkarri:
«Nere kontura nik artuko det,
ez kuidadorikan jarri!»
Momentu artan biyen aurrera
Golo zitzaien etorri.

32/ Drako zeritzan kozinerua;
kondesak maitia zuben.
Jenobebaren oñetan Golok
ezpatarekin il zuben.
Etxekoandriak egiña zala
berak deklaratu zuben.
Orduan preso eramateko
lagunak artu zituben.

IV

JENOBEBA SARTZEN DUTE PRESONDEGIAN

- 33/ Orra urrezko palaziyotik
gure kondesa atera
ura zeriyaon lurpeko zulo
kartzela illun batera.
Noizik-bein Golo juaten zitzaion
bisita bat ematera,
lenguan zegon; baietz esan-ta
bueltatutzen zan ostera.
- 34/ Bildurgarrizko soñubarekin
zabaltzen ziyon atia;
Golok bakarrik, besterik iñork
etzuben libre juatia.
Galdetzen ziyon ez al. zan asko
ainbeste eramatia.
Erantzun ziyon: «Konpli dedilla
Jaunaren borondatia!»
- 35/ Kartzela arrek altu-altuban
saietera bat baziyon;
zein tristia zan ikusitzeko
besterik serbitze'etziyon.
Illunbi artan seme bat, berriz,
Jaungoikuak eman ziyon...
Esnia falta, zer jantzirik ez,
lastimatutzen zitzayon.

36/ Estadu (b) artan arkitutzia
ama batentzat zer pena!
Txarruan ura, ogi pixka bat,
izan ziteken beltzena...
Jaungoikuari ofrezitu-ta
au da esaten zubena:
«Desditxatuba izan dedilla,
aurtxua, zure izena!»

37/ Abuan busti ogiya, ziyon:
«Ai, ene seme laztana!
Tori, gaxo orrek; txupatu zazu
ama zuriak daukana.
Neretzat ere urri det baña
ematen dizut dedana...
O, zeñen pobre kondesagandik
mundura jaio zerana!»

38/ Argiyarekin Golo juan zan;
jarri zitzaion aurrian.
Oraziyuan billatu zuben
belaunikoka lurrian,
semetxua artu besuan eta
estutubaz bularrian...
O, Jenobeba, kontsolatzeko
etzeunden leku txarrian!

39/ Kulparik gabe preso zegola
au Golok ondo zekiyen.
Alere kartaz beti kondia
engañatutzen zebillen:
«Drako morroia kondesak il du;
begira nola dabillen;
sinistu beza ni onen plantan
zein penatua nabillen».

40/ Ain gezurrezko kartak egin-ta
kondia engañatu zuten.
Ama-semiak il zitzatela
baimena eman ziyoten.
Golo ta bere lagun gaixtuak
danak uraxen nai zuten...
Ai, Jenobeba! Zuk dakizu ondo
nola tratatu zinduzten.

41/ Albisti onekin Golo jua-ta
kartzelan zitzaion sartu:
«Ama-semiak iltzeko karta
senarragandik det artu.
Oraindik ere itxoingo det,
nai bazenduke mudatu...»
Ain zan umilla Jenobeba ta
itzik etziyon trukatu.

42/ Malko goriyak asi zitzazkan
au zuenian jakindu:
«Ai, ene seme! Biyak iltzeko
aitak ordena eman du!»
Aurtxuak, parrez, bazirudiyen
nai ziyokela lagundu...
Ama, negarrez, lurrian auspez
luzaruan zan egondu.

43/ Illabetiak zeramazkiyen,
gorputza zeukan galduba;
txutik doi-doia ibillitzen zan,
ainbesteraño aulduba;
aurtxua, berriz, zatar gañian
mantalarekin bilduba...
Ai, Desdixado! Gaztetik zera
aitak iltzeko salduba!

44/ Azkeneko aldiz Golo juañ zan
amorratuba bezela:
zenbat denboran itxoingo ziyon,
kontu atera zezala...
Ai! Jenobebak erantzun ziyon
ura mudatuko etzala.
Aserratuta esanaz juañ zan
illerañiko zubela.

- 45/ Desesperatzen etxera juan zan;
 etzegon urrikaltzeko.
 Borreruari deitu ziyoten:
 Aizkora zorrotzuteko;
 ama-semiak mortura eraman,
 lepuak ebakitzeko.
 Il zituztela sinistu zezan,
 begiyak ekarritzeko.
- 46/ Sententzi (y) ori neskatxa batek
 Golori aditu ziyon.
 Gabian juan-ta Jenobebari
 zelatan jarri zitzayon;
 saieteratik ixillik deika,
 ark naitasuna baziyon:
 «Zein zera zu?» «Ni, Berta, señora».
 Orduban itz egin ziyon.
- 47/ Kondairak diyo saieteratik
 bertan itz egin ziyola:
 «Ai, Jenobeba...» Albixte trixte
 batekin zetorkiyola:
 Ura iltzeko borreruari
 Golok agindu ziyola;
 kontu ixillik bazeukan ezer,
 arren, esan zezayola.

48/ Erantzun zion: «Aulduba nago
kartzela ontan nagola...»
Itz egiteko adiña indar
arkitzen etzitzayola.
Papera, argiya, tinta ta pluma
ekarri zeizkiyola:
senarrarentzat azken despeira
eskribituko ziyola.

49/ Penagarrizko estadu (b) artan
zegola zizkan ekarri:
saieteratik al zan bezela
eman zizkaten alkarri.
Arrilluaren gañian auspez
eskribitutzen zan jarri;
senarrarentzat karta egin zuben
guzizko lastimagarri.

50/ Esaten zuben: «O, Sigifredo!
Nere esoso leiala!
Seguru nago Goloren birez
engañatuba zerala.
Karta au letzian jakingo dezu
nik maitasuna dedala;
esan dizuten mantxarik gabe
iltzera garbi nuala».

- 51/ Aita ta amaz akordatzen zan
eriyotzako orduban,
paper ta tinta malkoz nasturik
lastimatzeko moruban:
«Geiago alkar ikusitzerik
ez dadukagu munduban;
Jaungoikuari nai dakiyola
gertatutzia zeruban.»
- 52/ «Bai, Sigifredo, karta au letzian,
andria maite badezu,
Golori ta ni iltzen nautenai
barkatu biar diyezu;
neregatikan odol-tanto bat
ixuri bear ez dezu;
gaizki egiña obra onakin
pagatu biar diztezu.
- 53/ Bai, Sigifredo! Zuk ezkontzeko
egintako erregaliya,
orain mozteko agindu dezun
lepoko apaingarriya,
gau triste ontan erantzitzeko
ustez ez nuben jarriya».
«Torizu, Berta; orain zuretzat
nere akordagarriya».

- 54/ Urrena karta eskañi zion:
«Torizu, Berta leiala!»
Golok billatu gabetandikan
txit ondo gorde zezala;
«Etorritzian kondiai eman
esan dizudan bezela...
Adios! Beste mundura arte!
Jainkuak paga zaitzala!»

V

JENOBEBA BASAMORTURA

- 55/ Belaunikoka jarri-ta zion:
«Aurtxua, atoz nerekin;
Jaungoikuaren tribunalera
laster jun biat zurekin».
Bi borrreruak sartu zitzaizkan
bekozko illunarekin.
Esan ziyoten: «Altxa zaitia;
segitu zazu gurekin!»
- 56/ Abiyatu zan borrreruaren
oñak malkuaz bustirik:
«Zein pena aundiya dedan, aurtxua
iltzia onen gazterik!»
«Guk ez diyogu ezer egingo
Golok esana besterik.
Etxeko andria, ez da posible
zuben biziya uzterik».

- 57/ Allegatu zan basamortura
deskantsatuaz aldizka:
«Tira, Enrike; aurra kendu-ta
begiyak tapa akizka!»
«Aizak, Gontzalo; au egitia
lastimatzen nak kasika.
Nere partetik il gabetandik
utziko nitek pozika».
- 58/ Gontzalok ziyon gora altxarik
ezpata eta besuak:
«Mutil: gaur bertan jango dizkitek
legoiak eta otsuak».
«Bai nai badute. Kulparik ez dik
gure kondesa gaxuak.
Ona dalako ontaratu dik
Golo inbidiosuak».
- 59/ Gontzalok il nai; Enrikek ezetz:
biyek zeukaten auziya:
«Nik bazekiyet nola ingañatu
Golo gure nagusiya.
Ire zakurra akaba zagun...
Bertan zaukagu guziya...
Aren begiyak eraman-da oni
utzi zaiogun biziya».

60/ Konformaturik eraman zuten
erreka triste batera.
Juramentatu zedilla, andik
sekula etzedin atera...
Elur-tartian biyok utzi-ta
buelatu ziran ostera,
beren zakurra il-ta begiyak
Golori erakustera.

61/ «Jenobebaren begiyak ona!»
aurrian jarri zizkaten.
Etzitubela ikusi nai ta
begira aitatzen bazuten.
«Berri onikan ez dek gurekin!»
alkarri esan ziyoten.
Jerusalen'a igesi juan-ta
urtiak pasa zituzten.

62/ Jenobebaren despeira onekin
esanaz zauden altxiak:
«Illundu dira gure barrenak,
kanpuak eta etxiak...»
Ainbesteraño pena eman ziyen
beren kondesa galtziak:
kulparik gabe borreru aien
atzaparretan iltziak.

VI

JENOBEBAREN BASAMORTUKO BIZITZA

- 63/ Jenobebaren bizimodua
 nolakua zan basuan
 pixka bat beden esan bear det
 ontara naizen kasuan.
 Elur azpitik belar-zain biltzen,
 aurtxua berriz besuan,
 biatz-muturrak odoltzeraño,
 gaxuak jango bazuan.
- 64/ Lur azpitika zañak billu-ta
 abuan zizkan mazkatu:
 «Ai, ene seme; tori gax'orrek;
 al bazeneza txupatu».
 Arkaitz tartian leor pixka bat
 etzuben errex topatu:
 basauntza baten etzan-lekuba,
 ala zitzaion tokatu.
- 65/ Sartu orduko Jenobebari
 aberetxuak nai ziyon;
 errapetikan lertzen zegon-ta
 —umia otsuak jan ziyon—
 kristabarentzat ain zan mantxuba,
 gaitzik egiten etziyon:
 orduban aurra esnia eraten
 tititik asi zitzayon.

66/ Kalabaz-puska billatu zuben
kueba-zuloko onduan;
Jenobebaren kontsuelua
eztakit zer zan orduan.
Esnia ara kendutzen ziyon
berak nai zuben moduban:
«Onen gozorik izaten zanik
ez nuben uste munduban!»

67/ Basauntza oso kontentu zegon
errapia txukatu-ta;
bai ama ere bere aurtxua
lo gozo batek artu-ta.
O, Jaungoikua! —esaten zuben
bi besuak zabaldu-ta—.
Oraindik ere nola gabiltzan!
Gutzaz etzaude aztu-ta!»

68/ Goroldiyozko egur batekin,
gero zitzaion burura,
bi puska egin-ta zumez lotzia
gurutziaren modura:
«Zu zera gure Salbadoria
igo ziñana zerura.
Pazientziya probatutzeko
egin ninduzun mundura».

69/ Otso ta legoi, artza ta azeri
danak zituben aldian;
aien orrua izugarriyak
jarritzen zuten aidian.
Ai, Jenobeba! Argirik gabe,
negu luzeko gabian,
oraziyuan egoten ziñan
gurutziaren parian.

70/ Geien-geiena akordatzen zan
bere guraso onakin:
«Ni naizelako pekatariya
daramazkiten penakin!
Ai, Jaungoikua, balekitekete
zer gertatu dan gurekin...
ama-semiak bizi general
basamortuan Zurekin...»

71/ Negua ola pasa zuben ta
sartu zan udaberriyan;
bere ondora asi zitzaion
aurtxua larru gorriyan.
«Ai, kondetxua! Mundura ziñan
paraje penagarriyan;
geroztik beti biyak gabiltza
estadu negargarriyan!»

72/ Basauntza larru pintarratuba
azeri baten gañian
ikusi zuben; kentzera juan zan
txit intentziyo fiñian.
Semetxuari moldatu ziyon
al zezakian aiñian.
Zazpi urtian erantzi gabe
ibilli zuben soñian.

73/ Aurra zetorren eder ta lodi,
indartsua ta fuertia.
Pasiatzeko aren plaza zan
basoko arkaitz-tartia.
Izketan trebe zijuan eta
argitasunez betia...
Nork esan zer zan arenganako
amaren borondatia?

74/ Amak aurrari Jaungoikuaren
legia eman nai ziyon;
mundu ontako pasaizuak
ziaro esan zizkiyon:
Gaixtuak nola Jesus il zuten...
au ontzat artu etziyon;
samurtasunez biotza lertu,
negarrez asi zitzayon.

75/ Ikusirikan aurtxuak itzik
ezin ziyola bueltatu,
txori-kabi bat erakustera
eskutik zuben aldatu:
«Amatxo: abek ere Jainkuak
mantendu bear al ditu?»
«Bai, ala fede! Gu bezelaxe
Berak egiñak bait-ditu!»

76/ Jenobebari gertatu zaio
soñeko danak austia,
alegiñian saiatu arren
zumez konpontzen trixtia.
Pentsatu zuben Jaungoikuaren
eskubetara uztia,
disponitzeko, komeni bazan,
aren gorputza jaztia.

77/ Egun batian goiz atera zan
makil aundi bat egiñik;
otsua topo, ardiya ito-ta,
sasiyan pasa eziñik.
Eskuban zuben bordoiarekin
golpe portitz bat emanik,
bertan utzi-ta igesi jua zan
etzubelako gauz onik.

78/ Otsuak utzi zubena artu-ta
erreka ondora jetxi zan;
arri zorrotz bat billatu eta
larruba kentzen asi zan;
urtan garbitu, legortu txukun,
antolatutzen ari zan;
Jaungoikuari eskerrak eman
lenbizi, gero jantzi zan.

79/ Ariya zuben sarats-azala,
jostorratz berriz ziriya:
jakiña dago etzala izango
pitxikuletan josiya...
Oñuts gorriyan, besuak igual,
illia bera utziya:
au izandu zan Jenobebaren
basamortuko jantziya.

80/ Egun artan goiz ateria zan
aurtxua kueban utzirik;
illundutzian abiyatu zan
gaxua luzetetsirik;
arkaitz artetik ikusi zuben
amatxo zuriz jantzirik:
nork eman ziyon esan artian
etzeukan pazientzirik.

81/ «Amatxo, nondik atxitu dezu
soñeko zuri eder au?»
Erantzun ziyon: «Seme laztana,
zeruko Aitak eman nau».
Galdetzen zuben: «Ni ere orla
Jainkuak maite ote nau?»
«Bai, ala fede! Asko nai dizu...»
Saltoka asi zan aurtxu au.

82/ Udara aisa pasatzen zuten;
beti neguko beldurrez.
Azkenekua gogorrena zan
aize, jela ta elurrez.
Bide guztiyak itxi zitzaizkan
autsi ta arbola-adarrez...
Kueba busti-ta miñez jarri zan
iya illian negarrez.

83/ «Askotan, aurra, len esan dizut
aita dezula zeruan;
jakin biazu beste bat ere
bizi zaizula munduan.
Laister nik illa gelditu biat
tronko zar baten moduan:
iru egunian muitzen ezpanaiz,
juatia dezu orduan».

84/ Erantzun ziyon inozentiak
persona aundiyak bezela:
«Ez nuben uste munduan iñor
besterik bizitzen zala».
«Bai; eraztun au ark emana det...»
Gizon gaiztua etzala...
Zijuanian, biatzetikan
kendu-ta eman zezaiola.

85/ «Bañan, amatxo, nora juango naiz?»
Au zan aurraren galdera.
«Aspertu gabe iru egunian
zuaz eguzki aldera;
Sigifredoren izenarekin
sartuko zera kalera...
Eraztun ori eman zaiozu
artutzian magalera».

86/ «Bañan, amatxo, zertara nua?»
galdetu ziyon bertatik.
«Jakin dezaten nola jua naizen
munduko penen artetik.
Gorputza illa eramateko
basoko pizti tartetik...
Kontseju oiek eman zaizkatzu
danari nere partetik».

87/ Itzikan gabe an gelditu zan...
Zer negarrak mutiltxuak!
Bear adiña arnasa artzen
etziyon uzten petxuak.
«Ai, Jaungoikua! Amatxo, ez il!»
esaten zuben aurtxuak...
Esnia eraten eskeintzen ziyon,
bañan alperrik gaxuak.

88/ Gorputz guziya otzak gogortu,
iñon etzeukan indarrik;
aurrak esnia eskaintzen ziyon,
bañan gaxuak alperrik.
«Ai, Jaungoikua! Ni ere il nazu;
ez utzi emen bakarrik!
Ez det nik amak agindutako
munduko aitan biarrik!».

89/ Belaunikoka zeguan aurra
bere amaren onduan,
bi eskutxuak gurutzetu-ta
len egoten zan moduban.
«Ai, Jaungoikua —esaten zuben—
bizi zerana zeruban!
Komeni bada piztu zazu au;
lasaituko naiz orduban».

90/ Konturatu-ta aurrari zizkan
bere besuak ezarri:
«Basauntzagandik esne pixka bat
al baezazu ekarri...»
Kalabazara bildu-ta eraman:
Torizu, ama gax'ori...»
Bera eraten lagundu zion;
ain zegon lastimagarri.

91/ Azpiyan zeuzkan goroldiyuak
elurrarekin bustiyak;
aiek kendu-ta leorrek jarri,
txukundu zizkan guztiyak.
Zer ejenplua utzitzen zuben
gaztetan erakutsiyak!
«Amátxo, orain Jaungoikuari
eman zaizkagun graziyak».

92/ Ama asi zan erregututzen
esanaz modu onetan:
«Bedeinkatua izan dedilla
Jainkua gauza danetan».
Bai aurtxua ere belaunikoka
deboziyoz ta benetan:
«Eskerrak, Jauna, piztu dezula!
Orain ez nago penetan!».

- 93/ «Ai, nere seme biyotzekua;
gu beti otzak gabiltza».
«Guazen, amatxo, eguzkitara:
txori politak dabilta...»
Eskutik artu, eraman zuben,
marrubi biltzen zabiltzan...
Au izandu zan Jenobebaren
basamortuko bizitza.
- 94/ Golo bizi zan palaziyuan
berak nai zuben bezela.
Jakindu zuben erida aundi bat
kondiak artu zubela.
Poz bat bazeukan, ura il ezkeru
ondorengorik etzala;
seguru zegon aen gauzakin
nagusi jarriko zala.
- 95/ Geiago iñork agindutzerik
Golok etzuben espero;
jantziyan ere mudatzen zuben
amaika moda-jenero;
jendiarentzat festa berriya
somatzen zuben gabero,
geroztik beti artan zebillen
kondia juan ezkeru.

VII

SIGIFREDO KONDIA GERRATIK BUELTATZEN

- 96/ Orra gerratik soldadubakin
bueltatutzen da atzera;
ustekabian gabez sartu zan
pestan zeudela etxera.
Kondia zala jakindu zuten;
guziyak saludatzera...
Bai Golok ere aberiari
brenuetatik eltzera.
- 97/ Pultsu guziyak salta zitzaizkan,
kolore danak zuritu,
izketan ere aztu zitzaion,
pausuan ezin segitu.
Ezagaturik galdetu ziyon:
«Golo, zerk estutzen zaitu?»
«Ai, jauna, nere griña gaixtuak.
Ezin niteke lasaitu».
- 98/ Negarrez Golo asi zitzaion
lastimatzeko moduban:
«Esan dizudan mantxa gabia
Jenobeba zan munduban».
Kulparik gabe garbi il zala
jakindu zuben orduban.
Barkatu ziyon aren anima
zeguelako zeruban.

99/ Urti aietan Goloren mende
giltzak ziraden izandu;
eskatu eta gelara ziran
aren pausuak zuzendu.
Kondesa preso artu ezkeru
iñork etzuben zabaldu:
Jenobebaren leialtasuna
antxe zitzaion azaldu.

100/ Karten kopiyak, gañera berriz
gerriko sedazko fiña,
errekuerdotzat zetorreneko
urrezko letraz egiña...
Begiyetik ura zeriyon
iturri bati adiña:
«A, Jenobeba, nere esposa!
Munduban bizi baziña!»

101/ Orduban Berta sartu zitzaion
kondesak esan bezela:
Jenobebaren agoniyako
Karta au letu zezala.
Ain penagarri eskribituba (1)
ezagaturik bezela,
ezpata artu-ta abiyatu zan
Golo il biar zubela.

(1) *Eusko-Folklore'n = eskrituba.*

102/ Beti berekin ibiltzen zuben
Bolfio gizon prestuba;
aren erreguz Sigifredo zan
pazientziya artuba;
Bestela Golo josiko zuben,
ain zan jeniyoze estuba.
Ordutikan zan Jenobebaren
presondegiyan sartuba.

103/ Geroztik beti palaziyuan
kondia triste bizi zan;
jendiarentzat oroipengarri
obra egiten asi zan.
Agindu zuben bezelakua
arri sillarez egin zan
bere letrakin, kulparik gabe
Jenobeba nola il zan.

104/ Kondia beti galtzen ari zan
barrenan zeuzkan kezakakin;
iñork etzuben kontsolatutzen
mundu ontako pestakin.
Bere lagunak esan ziyoten
naitasun aundi batekin:
«Pentsatu degu jua biagula
danok eizira zurekin».

105/ Agindu ziyen, gaztetan nola
beti ibiltzen baiziran,
pezperatikan prebenitu-ta
ateratzeko goizian.
Jan, edan, morroi, oñez ta zaldiz
juan ziran bire luzian;
zakurrak bota basuan eta
asi ziraden eizian.

106/ Kondia, nunbait ala biar-ta,
puntutz bakarrik jarri zan;
basauntzatxu bat ikusi eta
aberetikan jatxi zan.
Zaldiya lotu arbolari ta
bere ondora asi zan;
elur-marketan billatu zuben
zein artzulotan bizi zan.

VIII

SIGIFREDOK BERE ESPOSA JENOBEBA ARKITZEN DU

107/ Ar-zuloaren bokan zeguan
barrengo aldera begira;
beregana ziyon: «Emen personak
diruditenak badira».
Kristaba bazan deitutzen ziyon
«Atoz ni nagon tokira!»
Ai, Jenobeba! Nolakua zan
orduko zure mugira!

- 108/ Abiyatu zan kueba-zulotik
bañan nolako moduan!
Oñuts gorriyan, besuak igual,
ille nastuba buruban;
ardi-larruban bilduba zegon
oso itxura galduban.
Kondia bera ikaratu zan
ikusi zuben orduban.
- 109/ «O, Jaungoikua! Aundiyak dira
pekatuaren katiak!
Nik emandako sententziyaren
okerrak eta kaltiak!
Anima onentzat zabal itzazu
zerubetako atiak,
egin ditezen nere barrengo
kontzientziko pakiak».
- 110/ Au da kondiak esan zubena:
«Nere emazte umilla!
Aren anima bera zera zu,
emen borreruak illa.
Urte askuan ni ibilli naiz
zure gorputzaren billa...»
Agindu ziyon lengo lekura
erretiratu zedilla.

111/ «Ai, Sigifredo! Ez naiz anima;
egiyaz dizut esaten.
Pentsatzen nuben, il nintzalako,
nola egongo ziñaten.
Bi gizon prestuk mortu ontara
gabaz ekarri ninduten.
Beren zakurra zala meriyo
biziya gorde ziraten.

112/ Ai, Sigifredo! Zeñen ona dan
Jaungoikuaren laguntza!
Beraz ez dezu ezagututzen
emaztiaren gorputza?
Ona eskuan zuk diamantez
apaindutako biatza...»
Orduan kapan bildu zuben ta
lertu zitzaion biyotza.

113/ Auspez oñetan jarri-ta ziyon:
«Ordia nola diteke?
Amets egin det bizi zerala;
bestela ezin liteke.
Ai, Jaungoikua! Ori neretzat
poz geiegiya litzake.
Lurrak gañian edukitzia
ere merezi ez nuke».

114/ Elur gañian auspez zebillen
emaztiaren onduan,
lo torpe batek zozorbatu-ta
ibillitzen dan moduban.
«Ai, il banintzan sententzi (y) ori
pentsatu nuben orduban!...
Nigatik iñork ainbeste pena
pasako etzuben munduban».

115/ Bere senarra alaitu zedin,
itz egin ziyon onela:
«Bizi al zaizkit aita ta ama?»
Bai. Osasuna zutela.
«Ote dakite kulparik gabe
basuan illa naizela?»
«Bai, Jenobeba; guziyok geunden
lutuz jantziyak bezela».

116/ Izketan ola egondu ziran
biyak denbora askuan;
bai aurra ere zelatatutzen
kueba-zuloko kaskuan.
«Amatxo: gizon gaixtua al da ori?»
galdezka boza estuban.
«Ez, Desdixado: zure aita da;
muñ egiyozu eskuban».

117/ Basauntza-larruz jantziya zegon
mutiltxo bozal-bozala;
au borobilla, begi biziya,
arpegi zabal-zabala,
kolor gorriya, ille kizkurra,
aita zan bezel-bezela:
«Au, Sigifredo, zuria det nik,
zerorren igual-iguala».

118/ «Ai, Jenobeba! Nola ez dizut
nik zuri sinistatuko?
Bai; esan nuben nere semetzat
ez nubela ezagutuko;
gañera berriz —zer itxumena!—
biyak ezpataz iltzeko...
Eskerrak, Jauna, ditxa dedala
orain besuan artzeko!»

119/ Semetxua artu besuan eta
negarrez zuben esaten:
«Ni naizelako zenbat pena ta
mixeri pasa dezuten!
Alaz guztiyaz ez didazute
arrazoi txar bat ematen...»
«Ai, Sigifredo! Nik banekiyen
nola engañatu zinduzten».

120/ «Bai, Sigifredo: zazpi urte da
etzaitudala ikusi.
Gañera ez nuben nere guraso
onen berririk ikasi.
Pena guztiyak aztutzen zaizkit
aiek diralako bizi.
Komeni balitz ara juatia
eska zaiogun Jesusi».

121/ Kondia asi zan oraziyuan
kontutik iya jonian;
aurra poztu zan aita ikusi-ta
ain deboziyo onian;
berez jarri zan belaunikoka,
zekiyelako denian,
bi eskutxuak gora jaso-ta
amaren aldamenian.

122/ Aitak ikusi zuben orduban
semetxuaren jarrera;
negar-malkuak ugari asko
zijuazkiyon lurrera:
«Ni naizelako etorri ziñan
onen paraje txarrera.
Lagun nazazu obia izaten,
Jesus, emendik aurrera».

123/ Beti senarra triste zegon-ta
kotsolatzia nai zuben;
galdetu ziyon bakarrik al zan
edo lagunik bazuben:
«Bai, Jenobeba: askorekin naiz,
nik etorri nai ez nuben...
Orra Jainkuak zeñen ederki
gauzak zuzentzen dituben».

124/ Gerriyan zuben kornetarekin
deitu ziyoten berela;
bazirudiyen aingeru batek
zerutik jo ziyotela:
danak korrika etorri ziran
kondiak zerbait zubela...
Ikusi zuten beste birekin,
zein ziran etzekitela.

125/ Ikaratu-ta gelditu ziran
metro batzuben buruban,
kasik kondia bertan utzi-ta
abiyatzeko moduban.
«Nere emazte Jenobeba da!»
oju egin ziyen orduban...
Poz ura zer zan esango duben
mingañik ez da munduban.

- 126/ Kondiak ala agindu zuben:
«Su on bat egin dedilla»;
nola bait-zegon Jenobebaren
gorputza oso debilla...
Bestiak zaldiz juateko etxera
arentzat arropa-billa;
ikusiya esan, kotxia artu,
azkar etorri zedilla.
- 127/ Jenobebaren gorputza gaitzak
galduba zeukan kasuan,
ama-semiak angabilletan
artu zituzten basuan.
Gurutze Santu egurrezkua
zubela bere besuan,
kotxe-birera eraman zuten
errespetuzko pausuan.
- 128/ Alde batian kondia zaldiz,
Bolfio, berriz, bestetik;
zazpi urtian mantendutako
basauntzatxua atzetik.
Zekiyenikan atera gabe
etzan gelditu etxetik:
ongi etorriya nork egin bazan
salta zanian kotxetik.

129/ Entrada artan guk ez dakigu
zenbat señora dama zan;
aien tartian zuriz jantziya
neskatxa gazte bat bazan.
Lepuan zeukan kollare piña
Jenobebaren perla zan;
agoniyako gau trixti artan
eman ziyona: Berta zan.

130/ Bere parera zitzaionian
etxeko andre kondesa:
«Agur, señora: nere eskutik
lore eder au ar beza».
Ezagaturik neskaxa arren
kariñua ta fiñeza,
geroztik arek serbitu zuben
il zan artian printzesa.

131/ Partiak laster zabaldu ziran
udan eguna bezela;
zarpi urtian iltzat zeukaten
kondesa etorri zala.
Palaziyoko jira guztiyak
anka non jarri etzala...
beren biyotzak ainbesteraño
manifestatzen zirala.

132/ «Miragarrizko milagrua da»
jende guztiyak zeritzan;
erriyetako kanpanak ere
danak bueltaka zebiltzan.
Itzaldi on bat egin ziyoten;
geiago ari ezin zan.
Zazpi urtian buruban bere
oi ederrian etzin zan.

IX

JENOBEBAK BERE GURASO ZARRAK OSTERA IKUSTEN DITU

133/ Bolfiok: «Jauna —galdetu ziyon—:
idea dabil nerekin:
gurasuari jua ta esatia
zer gertatu dan onekin».
«Bire luzia, negu-biyotza,
oinbeste urte zerekin...
Gaztiago bat bialduko det;
geratu zaite gurekin».

134/ «Larogei urte kunplitu zaizkit
dadukadala biziya;
bedorrek daki bitoriya asko
naizela irabaziya.
Aundiyena au da. Eman bear dit
ara juateko graziya:
bestela bertan ilko nintzake;
sinistu beza guziya».

135/ Kondiak ontzat artu zituben
ematen zizkan ordenak.
Agindu ziyon eskojitzeko
amairu zaldi onenak;
gañerako ere ala berian
beretzat nai zitubenak...
Jaungoikuaren laguntzarekin
asko dezake gizonak.

136/ Amairu gizon zaldi gañian
juateko ziran prestatu,
goiz-arratsari lagun egiñaz...
Ala ere etziran aspertu.
Egun askoko biria zala
eztago zertan dudatu...
Palaziyoko albo-erriyan
gau batez ziran geratu.

137/ Zeuden tokira gizon batzuek
juntatu ziran berela;
zer gertatzen zan galdetu ziyen:
kondesa bizi zutela.
Ura esposatutako obispua
erriyan bertan zegola;
gurasuari nola itz egin
erakutsiko ziyola.

- 138/ Arrazoi-bere aundiya zala
Bolfiok ziyon igarri:
goizian jua-ta esplikatzia
zer nola zuten ekarri:
«Modu txarrian nik itz egin-ta
gaizki ez ditezen jarri,
obispo jauna kontsejatzera
argatikan naiz etorri».
- 139/ «Gurasu aiek illa dalako
trixtiak daude entero:
geroztik eliz-puntziyo on bat
egiten dute urtero.
Gaurko egunez tokatutzen da;
argatik naute espero.
Danok batian jua biar degu
ontara geran ezker».
- 140/ Duke-dukesen bizi-lekuba
aldetik ikusi zuten:
palaziyoko armarri denak
lutuz jantziyak zeuzkaten.
Obispo jaunak funtziyorako
noiz deituko ote ziyoten;
beren alaba bizi zutenik
asko pentsatu etzuten.

141/ Obispo jauna sartu zitzaien
guraso prestu aieri
arpegi laño alaiarekin
itz egitera biyeri.
Esan ziyoten alegratzeko,
ez tristetzeko geiegi.
«O, jauna! Ezta gure tartian
kontsuelorik ageri».

142/ Obispo jaunak esan zizkaten
ejenplo asko ta onak:
Jakob, semia, Jose, galdu-ta
izandu zituben penak:
«Arkitutako kontsuelua
nola itz egin gizonak?
Beokin ere au balezake
aiekin egin zubenak».

143/ Ez dago dudik, guraso onak
trixte zutela esango:
«Bai, aiek ditxa izandu zuten,
baño guretzat ez dago».
«Orduan zuten Jaungoikua da...
esan diyotet lenago...
Beron alaba Jenobeba're
oraindik bizirik dago».

- 144/ Gorputz guziyak egin ziyoten
bildurgarrizko mugira;
itzikan gabe gelditu ziran
biyok alkarri begira.
Pozaren aundiz negar-malkuak
zetozkiyela begira.
«O, Jaungoikua! Guretzat ere
kontsueluak badira».
- 145/ Pixka batian ala egon-ta
izketan ziraden asi:
«Obispo jauna: egiya ote da
alaba zaigula bizi?
«Amairu zaldun or daude bian;
aiengandik det ikasi:
nik baño obeto esango diye
berak dutena ikusi».
- 146/ Bolfiok juan-ta esan ziyoten
gertatu zana egoki:
«Semetxo gazte guri batekin
etxian dago ederki».
«Gure arraza galdu zalako
ditugun penak eduki!
O, Jaungoikuak zenbat dezaken
munduban iñork ez daki!».

147/ Obispo jaunak esan ziyoten
kariñoz erdi parrian:
«*Te Deum* kantatu biar degu gaur
alaitasun ederrian,
beron alaba esposatu zan
aldariaren aurrian».
Belaunikoka duke-dukesak
egondu ziran lurrian.

148/ Elizan Jauna adoratu-ta
atera ziran etxera,
birian biar ziraden gauzak
prebenitu-ta jartzera.
Obispua ta duke-dukesak,
len jua ziranak atzera
zaldi gañian etorri ziran
alaba ikusitzera.

149/ Baldin bada iñor aien ondora
etorri nai lukienik,
pentsamentubaz danak jutia,
ala desio nuke nik.
Ezta izandu, ezta izango,
ezta munduban dagonik,
mingañez ango pasaizua
esplikatuko dubenik.

150/ Guraso onak beren alaba
ikusi zuten orduban,
begiyetatik ura zeriye
iturriyaren moduban.
Biyak batian laztandu zuten
zortzi urteren buruban:
«Amaika negar guk egin degu
il ziñalako munduban».

151/ Duke-dukesak begira zeuden:
«Au da aurraren azala!»
«Beok illoba orixe dute...»
Kartzelan jaiua zala...
«Ondo alere ait'antzekua
onen arpegi zabala...»
Musu bana eman-ta esan ziyoten:
«Jaunak bedeinka zaitzala!».

152/ Obispo jaunak ala esan ziyon:
«O, Jenobeba zuzena!
Bete da nere espiritubak
adierazten zubena.
Aita Eternuak bendiziyuak
bialtzen ditu zuena,
zerala koroier baten zai
mundu onetan zaudena».

153/ Bai: Jenobeba laster jarri zan
lengo osasun fuertian,
esku-erakutsi onak egiñaz
biarrekuen artian.
Gerran zebiltzan pamili asko
jarri zituben pakian.
Geroztik ala bizitu ziran
uniyo eder batian.

154/ Jenobebaren esanetara
jende guziya jarri zan;
gau eta egun izketarako
txandarik artu ezin zan.
Ejenplo onak erakutsiyaz
urte askuan bizi zan.
Zer edadetan klaro esateko
guk ez dakigu noiz il zan.

X

JENOBEBAREN ERIOTZA

155/ Errematia ona eman ziyon
mundu ontako lanari,
barkaziyua eskaturikan
bere gaizkille danari,
bitartekotza eskaturikan
Jaungoikuaren Amari:
alaxen il zan, bere anima
entregatu-ta Jaunari.

156/ Jendiarentzat guzizkua zan
aren eriyotza ona:
bizi zala ere bazerekiten
birtutetsuba zegona.
Entierruan izandu ziran
ezin konta ala persona...
Jenobeba da santa egiña
eliz askotan dagona.

157/ Il ta gero ere basauntzatxuak
Jenobebari nai ziyon,
—orregatikan goizero beti
gelara juaten zitzayon—.
Geroztik jaten emanagatik
iñori artzen etzizon...
Sepulturaren gañian il zan...
Araño lagundu ziyon.

158/ Erretratuba sepulturari
jarri ziyoten segiran
baliyo aundiko marmola piñez;
kastatu-bildur etziran;
basuan ere ermitatxua,
obra onak egin ziran.
Orra esan Santa Jenobebaren
pasaizuak zer ziran.

XI

BUKAERA

- 159/ Oiek guztiyak egin zituzten
Golo bizi zan artian
kondesa preso eduki zuben
lurpeko zulo batian,
ordu beteko gustorik gabe,
pena aundiyen tartian,
burutik ura zetorkiyola
ez dakit zenbat urtian.
- 160/ Urkatutzeko sententziya zan
lendabiziko zuzendu:
orduban zaldiz puskatutzeko
juezak zuten agindu.
Jenobebaren erreguz ziran
aien biyotzak bigundu...
Libre uztia nai zuben baño
etzuben logratu zandu.
- 161/ Golok etzeukan eskapatzerik;
ondo zeukaten itxiya,
zijuanari erakusteko
guardiyarekin utziya.
Azkenerako urrikaltzen zan
ikusten zuben guziya...
Orra despeira: ezpatarekin
kendu ziyoten biziya.

162/ Bai, Jenobeba: esan gabiak
asko gelditzen zaizkizu,
nola ez dedan eskolarikan...
zedorrek ondo dakizu.
Baldin zeruban nere izketak
kalterik egin badizu,
ez jakiñian uts egin badet,
barkatu biar dirazu.

163/ Jenobeba da obra onakin
zeruba irabaziya:
gureztat ere aren biria
ez dago galeraziya.
Komeni bada, eman zaiguzu
ondo iltzeko graziya,
gero zurekin goza dezagun
eternidade guziya.

«AI GURE ANTXIÑEKO GURASO NOBLIAK...»

Onoko bertso auek Juan Krutz Zapi-
rain'enak dirala, bere pamilikoak esanda
ikasi degu. Bizente semeak eta Juan Kru-
tzen errañak ala adierazi dute ao batez;
baita Salvador eta Manuel, Juan Krutzen
anai Joxeren semeak ere.

Aspalditik giñan susmotan, ala izango
ote zan; zenbait bertsozalek gauza bera
esana baitziguten. Adibidez: Jose Ramon
Erauskin Lujanbio, Txirritaren illoba, Al-
tza'ko Gazteluene baserrikoa; Otxoki ba-
serriko Patxi Lazkano bestea, au ere Altza'
koa; Errenderi'ko Juan Mari Lujanbio, Sai-
buru bertsolariaren semea; Antonio Le-
kuona, Oiartzun'go Aranburu baserrikoa,
ta abar.

Ta bertsoetatik ere zerbait somatu dite-
ke. Lenengoan onela esaten baita:

Adelantua dala
uste du jendiak...
jarri dituztelako
tren eta tranbiak...

Ta bigarren bertsoak onela dio:

Itza berriz noranai
alanbrian dabil...

Bertsolariak ezagutu zituan *adelantuak*, auek dira beraz: trena, tranbea eta telegrafoa edo telefonoa.

Ikus dezagun orain aurrerapen oiek zein urtetan azaldu ziran Euskalerrira; orrela, bertso auek noiztsu jarri ziran ikasiko degu.

Trena, 1863 urtean agertu zan emen.

Tranbea, 1890'an jarri zuten. Lenengo, mandoak-eta mugitzen zuten. Ori ez da izango, guk uste, bertso auetako tranbea. Aurrerapen koxkorra baitzan.

Argi-indarrezko tranbea, Bentaberri'tik Errenderi'ra, 1897.XI.2'an asi zan; Donosti'tik Ernani'ra, 1902'an; Endaia'tik Donosti'ra, *frontera* edo *topo* esanda ezagutzen dana, 1912'an; Donosti'tik Andoain'era, 1911.VIII.17'an; ta Andoain'dik Tolosa'ra, 1912.VIII.28'an.

Telegrafoa, berriz, arizkoa edo alambrezkoa alegia, 1854 urtean jarri zuten Madritik Irun'eraño.

Telefonoa, Gipuzkoa'ko Diputazioak ja-

rria, 1909'an asi zan probintzi guzian. Ta lentxeago ere Donostia'n bazan (1).

Itz gutxitan esateko: telegrafoa: 1854; trena: 1863; tranbea, Donosti ingurukoa: 1897 edo 1902; Endaia'koa ta Tolosa'koa: 1912; telefonoa: 1909.

Beraz, «noranai alanbrian dabillen itza» telegrafotzat bakarrik artuta, bertso auk 1897 edo 1902'ekoak izan ditezke; ta, telefonotzat ere artuta, 1909'ekoak.

Dana dala, beti ere Juan Krutz Zapi-rain'en denborakoak.

Orrezaz gañera, Donosti inguruko bert-solariren batenak bear dute; alegia, trena ta tranbea ta beste oiek danak ikusten zituan bertsolaria.

Beraz, bertsoen esanetatik ere, besterik gabe, Juan Krutzengana oso urbildu ta alderatu gera; ta, duda guziak kentzen dituana, Juan Krutzen pamilikoen eta gañerako bertsozaleen testigantza.

Doñua, lendik ere kantatzen zan; Juan Krutzek etzuan, noski, berririk sortu. Bañan bertso auk Euskalerrri guzira zabaldu ziran eta orain doñua ere bertso auen ize-netik ezagutzen da; *Ai gure antxiñeko bertsoen doñua esanda entenitzen da.*

(1) Argibide auk: *Geografía General del País Vasco Navarro, Provincia de Guipúzcoa, por Sera-pio Múgica.*

1/ Ai gure antxiñeko
guraso nobliak
zituzten legiak,
guk ainbat trabaju ta
fetxarik gabiak!
Adelantua dala
uste du jendiak
jarri dituztelako
trena ta tranbiak;
ondoren datozenak
ez dira obiak.

2/ Orain eun urteko
zenbat gizon abil
ez baziraden il,
bat txoratu liteke
munduan balebil:
emengo tren da tranbi
eta automobil,
itza berriz noranai
alanbrian dabil...
Lengo birez gezurra
besterik eztabil!

3/ Tren da tranbi-biriak
ikusteko emen
zaleturik geuden;
izan ere alako
jornalak al zeuden?
Iru edo lau pezeta
irabazi arren,
biziyoz bete gera,
zorrak berriz gallen;
askotan gastatzen da
kobratu baño len.

4/ Eztet nai gizasemei,
ezkongai ta ezkondu,
ez eman da ez kendu;
dan gauza aitortziak
lotsa ematen du:
aitak eta amak jantzi,
etxian mantendu;
askok irabazia
eskas izaten du;
probatutzen dubenak
ala esaten du.

5/ Baita neskatzak ere
ezkongai zauztenak,
asko edo geienak;
batez ere kalia
serbitzen daudenak:
Illiak arro jarri,
motzak berriz gonak;
oien txorakeriyak
ez dirade onak;
oiek ikusten zetik
begira dagonak.

6/ Eta gañera oien
jantzi sobrantiak
dira txokantiak:
espaldetako boltsak,
kuello mudantiak,
txanbra eta abrigua,
gonak bolantiak,
zapata koskorduna,
botoi brillantiak,
buruan mantilla ta
eskutan guantiak.

7/ Oraingo neskatxa gaztiak
daude orgatistak,
gure engañistak,
Jesusen legiaren
kontrako artistak;
korputzari kenduta
animari bistak,
mutillakin artuaz
txokoetan listak;
oiek dira Judasen
errematantistak.

8/ Baita itzaiak ere
duten enpliu
esatera nua:
txiki erdiya maiz ta
amarretakua;
bazkaldu ta kafia,
kopa ta purua;
txapela oker-okera,
arrua burua;
au ez da baserrirako
gobernu-modua!

Bertso auek askotan argitaratu dira. Argitaraldirik zarrenak, guk arkitu ditugunetan, bi bertso-paper dira; biak moldiztegi-izenik gabeak. Zarrenak dirala, ortografiak salatzen du garbi asko: «Ai gure anchiñeco guraso nobliac...».

Paper oietako bat, Arizkun'en eskuratu genduan. Ez nuan apuntatu zein etxetan. Utsegiterik gutxien paper onek du, eta berari segitu diogu. Utsegiterik gutxien esan degu; bañan banaka batzuk onek ere baidu. Moldiztegiaren errua izango da, ziur asko. Zuzendu ditugu oker oiek, bañan ara zeintzuk diran, paperaren ortografia zarrean:

1/5: fechoric gabiak; 1/8: jarri ditustedaco; 2/10: guesurrac; 2/11: ez dabil; eztabil jarri degu, len ere punturako dabil badago-ta; ta esan ere ala egiten baita; 7/1: egañista; 7/7: bista; 8/1: Baita ytzayac guere.

Ta 7/2'an, *orgatistac* esaten da. Guk, beintzat, ez dakigu zer esan nai duan itz orrek. Beste argitaraldi guziak ere orrelaxe jartzen dute.



Bigarren bertso-papera ere, len esan bezela, ortografia zarrez dago. Bi tokitatik eskuratu degu: Tolosa'ko Manuel Urreta zanarengandik eta Getari'ko Iraola-zarra baserritik.

Paper onek utsegite edo aldaketa geiago du: lengo paperak dauzkanak eta beste

auek: 1/1: Ai gure Anchiñaco: 2/1: Orain egun urtezco; 2/4: bat choratu litesque; 3/2: icusteco; alegia, *emen* falta du; 4/4: dan gauza aytortzia; 5/7: luse berriz gonac; 7/1: Oraingo nescachac gastiac; 7/5: con-traco carlistac.

☆ ☆ ☆

Bi bertso-paper auek, firma bezela, onoko izen au dute: *Juan Mendiola*. Ez dakigu nor izan diteken; Juan Krutzen pamilikoak ere ez dakit. Kopiatzallearen izena-edo izango ote da?

☆ ☆ ☆

Bertso auek, gerra aurreko *Argia* aldizkarian ere agertu ziran. *Argia* onek, *Galde-erantzuerak* izeneko sail bat bazuan. Edozein galdeera egin zitekean. Baita ere, adibidez, sedazko soñeko urdin argi bateri tinta-mantxak eta lanazko oial gorri bateri ardo-mantxak kentzeko modurik bai ote zan. Askotan eta askotan, ordea, bertsoak eskatzen zituan jendeak. Ala, 4.859'garren galdeeran, bertso auen eskea egin zuan irakurleren batek; baita andik puska batera argitaratu ere *Argia* orrek; onoko aldaketa auekin ordea:

1/1: Ai gure antziñako; 2/1: Ai oiñ be-rreun urte; 5/2: ezkongai zautenak; 5/10: oiek ikusten dizkik; 6/7: gona bolantiak; 6/8: zapata koskordunak; 6/11: eskuetan guantiak; 7/1: Oingo neskatx gaztiak.

Bañan zein egunetan argitaratu ziran

Argia aldizkari orretan, ori ezin esango degu. Bi aldizkari-puska, bi *recorte* alegia, eskuratu ditugu: bata, Manuel Urreta zarenarengandik; bestea, Urretxua'n, Manuel Beraza apaiz jaunaren eskutik. Jaun auek, bertso-sail ori guraizeakin ebaki ta bere-xi bai, egin zuten; bañan egunik apuntatu ez. Ta orain billaka asteak, denbora geiegi bearko luke.



Errenderi'ko Makazaga moldiztegiak ere, argitaratu zituan bertso auek paperetan; etxe ontatik, iru paper baditugu guk beintzat.

Oietako bat, Oiartzun'en eskuratu genduan, bertako Antonio Arsuaga'ren bitartez. Paper onek aldaketarik ez du; bertsoak, guk jarri bezelaxe alegia.



Makazaga'ren bigarren bertso-papera, Usurbill'en, Aginaga ballaran jaso genduan, Juan Jose *Beltza*'ren eskutik.

Bertso-paper onek aldaketa geiago du. Aldaketarik aundiena, bi bertso berri dituala; onako auek:

Mutill gaztiak ere
dadukaten kezka:
maite dun galdezka;
zigarrua ezpañian da
kortejatu nexka;

soñuba jo ta dantzan
jendia gañezka,
diru danak gastatu
teatro ta festa;
bigotiak ere nai
bizarrikan ez-ta.

Ara bertso berriyak
papelian jarri
kantatzeko sarri,
adiskide guziyen
entretenigarri;
biyotz-biyotzetikan
maitatu alkarri,
nai badezute senar
on bana ekarri;
ia, zar da gaztiak,
ondo irakurri.

Bertso onetan *papelian* esaten da. Ori, Urola aldeko izkera da. Juan Krutzek *paperian* esango zukean.

Bigarren aldaketa, bertsoen ordena: 2, 3, 4, 5 ta 6'garrena. Urrena, lenengo bertso berria; ondoren, 8'garren bertsoa; ta, azkenik, bigarren bertso berria. Bi bertso falta, beraz: gure saillaren lenengoa ta 7'garrena.

Ta itzetan, onako aldaketa auek: 2/1: Orain egun urteko; 2/2: zenbait gizon abill; 2/8: itza berriz nolana; 3/2: ikusteko zeuden; 4/1: Ez det nai gizasemeik; 4/4: dan gauza aitortzia; 5/7: motza berriz gonak; 7/1: Oraingo neskatx gaztiak; 7/2: daude

zabrantiak; 8/3: txiki erdiyak maiz ta; 8/5: amaiketakua; 8/10: au ez da basarriko.

☆ ☆ ☆

Makazaga'ren irugarren argitaraldia, irugarren bertso-papera alegia, ez nuan apuntatu zeñi jaso nion. Onen aurrekoa bezelaxe dago; aldaketarik gabe alegia.

☆ ☆ ☆

Beste bertso-paper bat ere bada: «*Del-fin — Ondárroa*» moldiztegiak argitara emana. Urretxua'n, Manuel Beraza apaiz jaunaren eskutik jaso nuan. Aurreko papera bezelaxe dago, onoko bi aldaketa auek izan ezik: 5/1: Oraingo neskatxaren; 5/2: jantzi sobrantiak.

«KRISTOK ABISATZIAN...»

Onoko bederatzi bertso auek, Altza'ko Gazteluene baserriko Jose Ramon Erauskin Lujanbio'ren aotik jasoak ditugu. Baita doñua ere. Jose Ramon au, Txirrita zarenaren illoba da.

Jose Ramonek, bertso auek Juan Krutz Zapirain'enak zirala esan zigun.

Juan Krutzen semeari, Bizenteri, bertsoak erakutsi ta galdetu genion ori, bertsoak zeñenak ziran alegia, ta onela erantzun zigun:

—Adituak ditut oiek nere aitari; askotan kantatzen zituen. Arenak izango dira.

Ez dakigu nola zabaldu ziran bertso auek. Guk ez degu bertso-paperik iñon arkitu. Jose Ramon ere etzan zera orrezaz gogoratzen. Bañan, berak buruz ikasi ez balitu, galduak ziran bertso auek betiko. Bearbada, bertso geiago ere izango zan. Onela idatzi zigun Jose Ramonek: «Etzait besterik gogoratzen; baño gogoratuko baltzaidake, bialduko diot».

Ona emen bertsoak, beren doñua aurretik dutela:



- 1/ Kristok abisatzian
mundutik juateko,
pronto jarri gaitezen
kontu emateko;
danak bildu biagu
egun baterako,
bera zelai santura
zaigu aterako,
an berexiko gaitu
bi aldetarako.

2/ Allegatuko zaigu
gaba edo eguna,
Josefetako zelaira
juan biar deguna;
an ikusiko degu
Jesukristo Jauna
bi aldetâ berexten
gaizto eta ona;
poztuko da emen oraiñ
beldurrez dagona.

3/ Zerura ta infernura
partituko gerade,
fameliya batian
bizituak ere;
akaso anai-arrebak
izango dirade,
alkarri itzegiteko
korajerik gabe...
Egun penagarriyak
ikusteko gaude.

4/ Kontzientziko mantxak
garbitu artian,
ez daukagu sartzerik
zeruko atian;
ia, pekatariyak,
prebeni gaitian,
beti ibilli gabe
animen kaltian,
Jaunak rezibitzeko
emendik juatian.

5/ Zenbat ote dirade
beren buru txarrez
daudenak infernuan
gau t'egun negarrez?
Oñaze ta tormentu,
tapaturik garrez,
besuak zabaldua
beti diadarrez,
bañan alare andik
atera biarr ez.

6/ Senarra aruntz eta
onuntz emaztia,
zer pena izango da
orla berextia!
Danak egin biagu
despeira tristia,
anima bat pozez ta
negarrez bestia,
geiago alkarrekin
biziko eztia.

7/ Ia, pekatariyak,
egin zagun junta,
nola libratuko geran
Jesusena juanta;
eztegu engañatuko
gezurra esanta,
ain gutxi emen bezela
dirua emanta,
berak ezautuko'igu
zeñek degun falta.

8/ Zer diadarrak eta
penazko pausuak
infernura dijuan
anima gaxuak!
Artuko dute etsai
soberbiosuak,
eternidade guziyan
erretzeko suak;
ori dakar munduko
bizitza gozuak.

9/ Luziferrek sartzian
artuko du giltza,
geio ez ateratzeko
azkeneko itza;
justuak berriz zerura
bear dute iza,
tronpeta-soñua juaz
musikaren gisa,
irabazi dutelako
sekulako ditxa.

AZKENEKO GABA

Len ere esan bezela, Juan Krutzen emaztea, Mikaela, 1918'eko Urriaren 4'an il zan; ta gizonak, eriotz ori gai artuta, biotza arintzearren-edo, amaika bertso auek jarri zituan.

Bertsolariaren aotik jaso zituana, Don Manuel Lekuona izan zan.

Lenengo aldiz, uste degunez, *Quinto Congreso de Estudios Vascos, Vergara 1930* deritzaion liburuan agertu ziran; orduko itzaldiak bildu zituan liburuan alegia. Liburu ori 1934 urtean argitaratu zan.

Argitaraldi ontan, izenburua *Azkeneko gaba* dute bertso auek; liburu ontarako ere, ori bera jarri degu.

Len ere esan degunez, urte berean il zan Juan Krutz, 1934'eko Martxuaren 8'an alegia. Ta Don Manuelek, eriotzaren berri *Yakintza* aldizkarian eman zuan, 1934, XI-XII'eko zenbakian. Idaz-lanaren izenburua: *Dijoazkigunak-Zapirain'dar Juan Krutz;* eta, bukaeran, bertso auek.

Bi argitaraldi auek ez dute alkarren artean aldaketarik; aitatzerik merezi duanik ez beintzat.

Bertsoen aurretik, argibide jakingarri auek ematen ditu Lekuona jaunak *Yakin-tza* ortan:

«Negarti-ixuriduna da. Baiñan eusko-negarra derizkiot nik Juan Krutz'en negarrari; *romantiko*-negar aizun kutsuz kutsatu gabeko negarra; ezin geiagoz egiten dan negarra; iñork ikusi ez gaitzan, orma-aldera begira egin oi degun negarra. Olakoxea derizkiot nik gure olerkariaren negarrari.

Ber-berari entzuna det nik olerki au. Bi aldiz entzun ere. Eztarria korapillatu egiten zitzaion, urteak yuan-da gero ere, zeinbait bere ahapaldi kantatzean. Baita neri ere entzutean... Eta, eztulak ematen alegia, antxe egoten giñan biok eztarriari eragiñaz ahapaldi batetik bestera.

Gizagaixoa!

Aingeruzko emakume on arri azkeneko ur-txurruta eman zionean, —bertsolaria izan!— beti oi bezela gaixoari irrizko zerbait esan bearrez, «Nork emango dit neri ur-txurruta, gaixotzen naizenean?» esan zion gizagaixoak. «Alaba ta biok antxe aterako gakizkitzu bidera» erantzun zion gaixoak. Eta berriz ere negarra eztarrian nolabait ito bearrez, irriz-irriz senarrak: «Eskribitzen ere ainbeste ba'dakizu-ta, kartatxo bat egin bearko didazu andik?» Eta emaz-

teak: «Salomon ta Lege Zarreko gizon yakintsuak ere ba'zekiten ainbeste; baiñan eztet egundaiño entzun aien kartarik beste mundutik onera etorri izan danik. An ez da nunbait olako oiturarik».

Olakoxe yardurio garratz-gozoetan ageri zaizkigu senar-emazte gaixoak, Zapirain'ek utzi digun olerki sakonean. Andrea, eriotz ikaragarria etorri zai, bare-bare, xotil-xotil; gizona, negar-ujol garratza ezta-rrian gora noiz lertuko, ta ala ere ezpainen irria erakutsi nai...»

Bestetan ere argitaratu izan da bertso-sail au; baiñan beti ere Lekuona'ren argitaraldi auei kopiatuta. Ala uste degu beintzat. Orrelaxe egin zuan, adibidez, Aita Onaindia'k bere *Milla Euskal Olerki eder* liburuan. Orregatik, ez gera arduratu argitaraldi guzien zerrenda osatzen.

- 1/ Ipoi txiki bat kontatuko det
gaba eguna aututa,
baju-bajutik aстера nua
enago oso altu ta;
daukadalako nere laguna
kanpo santuan sartuta,
etzat biyotza kontsolatutzen
pentsamentu au artuta;
negar-malkuak saltatzen zaizkit
despeira akordatuta.

2/ Urriko illaren irugarrena,
San Prantziskoren bezpera,
ura il zan baño bizi geranok
oraindik aztu ez gera.
Neri lagun bat eman zidanak
Berak kendu dit ostera,
gure despeira nolakua zan
nua esaten astera:
kontseju asko eman-ta juan zait
mundu ontatik bestera.

3/ Bezperatikan eskatu ziran
San Prantziskoren jantziya,
egun artantxe iltzeko zeukan
desiua ta antsiya:
«Jaungoikuaren graziyan ustez
jarri det kontzientziya;
itz-alditxo bat nai dizut egin,
iduki adbertentziya:
gaur azkeneko gaba det eta
artzazu pazientziya».

4/ Txokora aldera begira zegon,
ni sillan erdi negarrez;
galdetu ziran iya zer nuben;
erantzun niyon: «Ezer ez».
Enkargatu dit entierua
zer nola egin par-parrez:
«Gañera nai det nere gorputza
eramatia bizkarrez...» (1)
Arek orduan esantakuak
kontatutzia ez da errez.

- 5/ Biyok bakarrik geunden kuartuan
 goizaldeko garayian;
 agindu ziran jeiki-aldera
 jira nezala oyian.
 Jarri nuben ta «Txit ondo nago,
 asko itz egin nayian;
 San Agustinen jakinduriya
 baneduka mingañian;
 baño alperrik: denbora jua zait,
 eriyotza det gañian».
- 6/ Begira-begira jarri zitzaidan;
 nik uste nuben il zala.
 Agindu ziran ume gaxuak
 zintzo leziya nitzala;
 orretarako ejemplo ona
 aurretik eman nezala;
 gurasuentzat erakusteko
 bide oberik etzala.
 Agindu niyon kuidadu oiek
 munduan utzi zitzala.
- 7/ Ur preskua maiz ematen niyon;
 an negon aldamenian:
 «Ni onla zeñek serbituko nau
 miñez jartzen naizenian?»
 Ala esan ziran: «Mundu ontatik
 bestera zuazenian,
 alabarekin aterako naiz (2)
 birera, zatozenian;
 arpegirikan ez det gordeko
 ikusten zaitudanian». (3)

8/ Begiratu ta ikusitzen nau
malkuak nerizkiyola...
Ala esan ziran: iltziak aña
pena ematen niyola.
Zeru ederra alkantzatzeko
esperantzetan zegola;
ara joatian Jaungoikuari
erregutuko ziyola:
munduko nere bakardadia
aztuko etzitzaiola.

9/ Esan baitziran ara juatian
nitaz oroituko zala,
agindu niyon nola bizi zan
karta bat egin zezala.
Banekiyela ura baño len
jakintsun asko jun zala:
lege zarreko profetak eta
Salomon ere an zala;
bañan oraindik iñorengandik
kartik etorri etzala.

10/ Zori oneko illunabarra,
San Prantziskoren eguna!
Iltzera joaki ta ura zan poza
manifestatzen ziguna!
Au esan ziran: «Zu izan zaitut
mundu ontako laguna;
momentu au da alkarrengandik
partitu bear deguna;
auxen da ditxa Jesus maitiak
erregalatzen diguna.

11/ Begiyak gora jaso zituen,
burua berriz makurtu;
azkeneko itzak: «Agur betiko;
gaizki egiñak barkatu...»
Aren anima nora joan zan
nik enezake juzkatu;
bañan santuak eskatutako
ezer etziyon ukatu...
Ezaguera ederrarekin
orra mundua bukatu.

(1) Donosti-Loiolan il zan gaixoa; eunki onen asieran. Anartean sortu-berria bide zan gorputzak zalgurdian eramateko oitura, ta nai zuana bizkarrez eramaten zuten. Baserritarrak ia beti. (Lekuona'ren oarra *Yakintza'n*).

(2) Alaba, Maria Pilar, bost urterekin 1909 urtean illa.

(3) Beste munduan arpegia estaltzea, ez-ezagun egitea da. Eriotzeko orduan eriaren ondoan egon ziranai ez omen die onek beste munduan bein ere arpegirik ukatzen. Ala da errian esana. (Lekuona'ren oarra *Yakintza'n*).

AI AU BARRENGO ILLUNTASUNA!

Bost bertso auek *Bertsolariya* aldizkarian argitaratu ziran, 31'garren zenbakian, 1932.IV.17'an, Juan Krutz Zampirain'ek jarriak zirala adieraziaz eta or goien jarri degun izenburuarekin.

Izan ere, gaia orixe dute: andrea ta alaba ilda, barrenean sentitzen duan illuntasuna.

Len ere esanik daukagunez, alaba, Maria Pilar, 1909 urtean-edo il zan; andrea, berriz, 1918'an. Geroztikakoak, beraz, bertso auek. Andrea il zaneke saillaren ondotik jartzen ditugu.

Bertsolariya'k ez du esaten zein doñutan kantatzen diran; bañan Iparragirre'rena artu bear dala, berealaxe antzemango dio edozein bertsozalek. Doñu ori, Xenpelarren liburuan argitaratu genduan: *Auspoa* 88-89-80, 120 orri-aldean.

1/ Nere biotzak eztu billatzen
konsuelozko plazarik,
argatik dabill bere denbora
munduban ezin pasarik;
andre ta alaba ill,
beti begira nabill
begiyak gora jasorik;
eztakit zertan paltatu detan
ez naute egiten kasorik.

2/ Au petxuaren mobimentua!
Au biotzaren kolpia!
Dudarik gabe izan biar du
bere lekutik saltia;
egunezko tristezak,
gabian lorik ezak (1)
egiten dian kaltia;
eztakiyenak ez daki zer dan
etxian baten paltia.

3/ Ai au barrengo illuntasuna!
Ez diyot opa ñori;
medikurikan ez det billatzen
sendatutzeko miñ ori;
enau asmatzen ñork,
oraiñ eskatzen diyot
Jaungoikuaren Amari,
dakiyelako nola lagundu
alargun daguanari.

(1) *Bertsolariya*'k: *gabian loik ezak*; zazpi silaba bear baititu, obeto dago *lorik*.

4/ Nere biotzak sufritutzen du
makiñatxo bat naigabe,
baño persona illtzen zalla da
penakin beste miñ gabe;
nik pasa ditut, jaunak, (2)
gabak eta egunak
eze askorik jan gabe;
argatik enaiz konsolatuko
mundu ontatik juan gabe.

5/ Nere biotza saltoka dabil,
atera nai du kanpora,
ezta munduban kontentatuko
iyo bitarte an gora;
orduak enbiruak:
zeruko aingeruak
bilduko zaizkit ondora;
gaur edo biyar ez dakit baño
etorriko da denbora.

(2) *Bertsolariya* k: *nik pasa diyot jaunak.*

(1930)

GURE EUSKERA

BERTSO BERRIAK

JUAN KRUTZ ZAPIRAIN'EK JARRIAK

Onoko bertso auek iru argitaralditan eldu dira gure eskuetaraño.

Lenengo argitaraldia, bertso-paper bat, «*Montepio Diocesano'ko irarkolan*» inprentatua. Errenderi'ko Joakin Ganborena Zabala'ren eskutik jaso genduan. Paperaren izenburuak, or goien jarri ditugunak dira; abizena Zapiain esaten du, ta osatu egin degu. Izenburuaren ondoan, Juan Krutzen argazkia dago.

Bigarrena, *Argia* aldizkaria. Altza'ko Gazteluene baserriko Jose Ramon Erauskin Lujanbio'ren eskutik jaso genduan, bañan puska bat, *recorte* bat alegia; orregatik, eguna ez dakigu.

Irugarrena, *Bertsolariya* aldizkaria, bigarren zenbakian, 1931'eko Agorrillaren 27'an.

Iru argitaraldi auetan, bertsoak berdindaude, aldaketarik gabe alegia, bi tokitan izan ezik: *Bertsolariya*'k onela dio 11/5'an: Gu galdu naiez dabiltz etsaiak; eta 12/7'an: zu iltzekotan, erri ta mendi.

Don Manuel Lekuona'k *Yakintza* aldizkarian (1934, XI-XII) Juan Krutzi buruz egindako idazlanean, bertsolari onen bertso-saillak aitatzen ditu, ta onela dio:

«...Errenderiko Olerki-Egunerako Euskerari buruz egindako bertso-berri orria...».

Onako au izango da: onako au bertso-berri orria baita, bertso-papera alegia; eta euskerari buruz Juan Krutzen beste lanik agertu ez baita.

Errenderi'ko Euskal Olerki-eguna, 1930'eko Garagarrillaren 1'an ospatu zan. Ordurako egiñak, beraz, bertso auk.

Saiburu'ko Juan Mari Lujanbio'k onela kantatzen ditu bertso auk:





- 1/ Nere barrengo estutasun bat
kantuz bear det zabaldu,
Euskal-erriko anai maitiak,
nai banazute lagundu.
Oinbeste urtian dagon izkuntza
orain nai digute galdu...
Gure Jainkuak orrelakorik,
arren, utziko ez al du!

- 2/ Naiz aberatsak, naiz beartsuak,
zar, gazte, aundi, txikiyak,
jakitun egin nai nituzke gaur
euskalerritar guziyak;
danon biyotzak ikui ditzala
Jaungoikuaren graziyak,
ikas dezagun zer lege diran
guraso zarrak utziyak.

- 3/ Lur zabal onen asiyerako
emakume ta gizonak,
euskeran eta nekazaritzan
il arte jardun ziranak;
gure guraso Aitor ta Amalen
ogibide au izanak,
biyok dira gaur geien-geiena
zokoratutzen diranak.
- 4/ Jakiña dago izketa-era au
eztala sortu berriya;
irurogei ta amar etxalde
ziran garaian jarriya.
Babiloniyaa izandu zuten
naspilla izugarriya:
ordukua da guk orain degun
eusker a maitagarriya.
- 5/ Euskerak zenbat urte dituen
oso jakintsu ez nago;
biñipin Jesus baño berrogei
ta amar gizaldiz lenago:
Aitor izena zuen aitona
aztua ez da egongo,
galdu baño len gozo pixka bat
ez al diyogu emango?

6/ Sei milla urte inguratuak
entzun izan det dirala,
irurogei ta amar izkuntza
munduan jarri zirala;
ordukua da gure euskera
ta artian iñor etzala,
Aitor etxalde guztiyarekin
onera etorri zala.

7/ Euskaldunaren iturburua
Tubal'en seme Aitor zan;
aren ezpañetan gure euskera
orain ez bezain jator zan;
gure aitonen txiki-denboran
ere alaxe omen zan,
baita gaur ere erbestetikan
jendia nastu ezpazan.

8/ Iturri ontan len ur ona zan,
orain nastua ta otza;
gure artian bein egin zuen
lurmentzen ez dan izotza;
birau zikiñik nai eta ere
ezin esan dan izkuntza,
au galdutziak erdibitzen du
euskaldunaren biyotza.

- 9/ Erdalkeriyen berotu gera
sinismenian ozturik,
gabiltzalako erbestetikan
jendiarekin nasturik;
badirudigu bizi generala
nor ta zer geran azturik;
lotsagabe ta izkuntza txarra,
ortik ez dator besterik.
- 10/ Ai, euskaldunak! Ez ote gera
noizpait zintzotzen asiko?
Bide ortatik zer datorkigun
laister degu ikusiko;
euskerarekin Euskalerrriyan
ez gaitu iñork autsiko,
euskera gabe berealaxe
etsaia zaigu nausiko.
- 11/ Eztago urrerik, ezta zillarik
mundu onetan dagonik,
nor bere etxian jaun eta nausi
izatia aña danik.
Orregatikan dabiltz etsaiak
utsegin gabe egunik,
bañan gutarrik izango ote da
morroi bizi nai duenik?

12/ Bedeinkatua izan dedilla,
euskeraz, zure itzala!
Zuz erakutsi zizkidan neri
munduan inor nitzala.
Zeruko Jaunak mila urtian
gurekin gorde zaitzala!
Zu galtzekotan, erri ta mendi,
urak irunsi gaitzala!

(1930)

ORAINGO LEGIA

Onoko lau bertso auek, Errenderi'ko 1930'eko Oarso aldizkaritik artuak ditugu.

Bertsoen azpian, egillearen izena dago: *Juan Cruz de Zampirain* Toki ta izen bat ere esaten dira: *Arramendi, 10 julio 1930*. Bertsoak paratu zituaneke eguna izango da; ta Arramendi Juan Krutzen baserria dala, len ere esana degu bein baño geiagotan.

Bertsoen gañean, ia orri-alde osoa betetzen duala, argazki bat dago, onoko adierazpen onekin: *Paisajes renterianos-Arramendi*. Ta Arramendi'ko ataria ikusten da: baserria; zenbait lagun, batzuek exerita, besteak zutik; ganadu-parea gurdiaekin; zakurra, olloak, meta bat eta abar.

Bertsoak izenbururik ez dute; emen dutena, zerbait bear ta geok jarria da, lenengo bertsoetik artuta.

Au bezelako bertso-motarik, ez degu orain arte arkitu. Iparragirre'rena bezela

asten da, ta erdiko bi puntu oiek ere or
ditu. Bañan moztu bezela egiten da, ta uste
baño len bukatu; laburragoa da alegia. Ala,
kantatu ere, Iparragirre'ren doñuaz egin
diteke, bañan erditik aurrera zertxobait
aldatuaz.

Ona emen Saiburu'ko Juan Mari Lu-
janbio'k nola kantatu digun:



1/ Lau bertso berri botzera nua
motibo gabe *al trompón*,
berdiñ etzaizkit kantatutzia
neri kostako bi txanpon;
oraingo legia
bakoitzak beria,
gañerakuak or konpon.

2/ Sei milla urte iraulitako
inbiriya ren kaldera
aize gaiztuak arrimatu du
gu bizi geran aldera;
oraingo bolaran
jendia nola dan
enteratuko al gera!

3/ Baserritarrak ez omen gaude
tokatutzen dan klasian,
izendatzeko ez dakit bañon
esan dutenak bazian;
ori zeñek daki
guk beziñ obeki
pobria nola bizi'an?

4/ Juiziyuan sartubak gera,
ez gera txoro gaztiak;
ez du baliyo arraia juanta
saria botzen astiak;
euskaldunak azkar
artu zagun alkar,
or konpon bitez bestiak!

**JOSE ZAPIRAIN'EN
BERTSO-LANAK**

«NERE BIOTZA PENETAN DAGO...»

Bere emaztea izatera iritxiko zan neskatxarekin asi baño len, beste andregai bat ere izan omen zuan Joxe Zapirain'ek. Ari jarritako bertsoak ere ba omen zituan. Ta oietakoak dirade, Aitzondo'ko Pilar Etxebeste'k eman dizkigun auek. Zoritxarrez, bi bertso bakarrik, eta bigarrena, puntu bat falta duala:

Nere biotza penetan dago,
ia sartu da tisiko;
zenbat naitasun dizudan zuri
ez det adieraziko;
zu gabetandik gelditzen banaiz
enaiz gustora biziko,
penagarria geldituko naiz
nere denbora guziko.

Nere biotza penetan dago
beti negarrez urtutzen,
zenbat naitasun dizudan zuri
ez dago errez neurtutzen;
.
.
egun bat onik ez det pasako
zu ez bazaitut artutzen.

Bertso auetatik, punturik ere etzekian
Joxeren seme Salbadorrek; bañan bazirala
bai, ta ara nola jakin ere:

Egun batez, aitarekin zala, onela esan
omen zuan Salbadorrek:

—Bilintxek, maitasunezko bertso eder
askoak baditu ba!

Ta aitak erantzuna eman omen zion:

—Nik ere badauzkat olakoak!

Ta bertso batzuek kantatu zituan, bere
lenengo andregaiari jarriak zirala esanaz.

Oietatik, esan bezela, punturik ere
etzeukan buruan Salbadorrek. Bañan, ba-
da-*ezbada* ere, Pilarrek emandako bertso
oiek irakurri genizkionean, orduan onela-
xe esan zuan:

—Bai, oietxek dira; orain gogoratzen
zait, *tisiko*, *biziko*, *guziko* ta puntu oiek
zituen bertsoa kantatu zuala; ortaz seguru
nago.

DEMONIYOZKO ATSUAK

Amar bertso auek, Aitzondo'ko kuadernotik ditugu. Bertako Pilar Etxebeste'k eman digu gertaeraren berri:

«Nik berari aditua dakat, egun batean nola oso ondo partitu zan bere emaztegaiarekin, eta urrena joan zanean, oso goibel ta seriya. Ta:

—Zer dezu, Maria?

Ta etziola esan nai. Ta orduan esan ziola:

—Ezpaidazu esaten zer dezun, ez naiz joango esan bitarte! Igual da gau osoa pasa bear badet ere!

Eta orduan nola esplikatu zion zer esan zioten:

—Orrera etortzen bazera, miseri aundiak pasa bearko dituzu! Ikulluko beiak ere erdirakoak, eta oso gaizki biziko zera!

Joxek orduan, ba, bertsoak jarri zizkielela ori esan zutenai».

Beraz, ezkongaietako bertsoak ditu auek

Zapirain'ek; ta 1904.VIII.27'an ezkondu baitzan, egun ori baño lenagokoak bear dute.

Kuadernoan izenbururik ez dago; zerbait bearko zala-ta, or goien dagoana guk jarria da, lenengo bertsoetik artuta.

1/ Neregatik zer esan dituzten
demoniyozko atsuak,
denak ez ditut aditu baño
ikasi ditut batzuak;
kulparik gabe neri sortutzen
testimoniyo paltsuak,
al bada ondo garbi zitzute
pekatuaren kutsuak,
merezi-paltan ez dira eta
jartzera nua bertsuak.

2/ Bi atsu oiek ez dira bizi
alkarrendandik aparte,
auzuak dira ingurukuak,
kamiyua da bitarte;
neregatikan gaizki esaten
aritu dirade fuerte,
neska bat ere beren aldeko
banderakua badute,
ni ez nijuan kantak jartzera
egiya esan balute.

3/ Oiengatikan bertsuak jarri
ta aстера nua kantari,
graziyak eman biar dizkatet
merezi dituztenari;
gezurrarekin egin dezute
makiña bat inbusteri,
berak desio zuen gauzarik
ezin supritu besteri,
orreatikan gaizki esaka
aritua da neska ori.

4/ Nere gogua deskantsatzeko
egin biar ditut itz bi,
naiago nuke pasadizuak
ondo baldin banekizki;
geiago ere txarki esanak
izango dirade noski,
kulparik gabe neregatikan
esan dutelako gaizki,
nik jakiteko beldur ziraden,
bazuten kuidakoik aski.

5/ Gure ezkontza galtziagatik
egin dute alegiña,
jakiñik nola neskatxa bati
nion amoriyo fiña;
anparatzalle izango al ditut
Jesus ta Ama Birjiña,
esan zituzten: «Obe zenduke
ara juango ez baziña,
miseri asko pasa biarra,
ori daukazu jakiña.

6/ Ara jua ta ez derizkiyot
ondo biziko zeranik:
ganaru danak erdirakuak,
ezer ez dute berenik;
ez gero pentsa itz bat bakarrik
gezurra esan deranik;
aldez aurretik abertentziyan
orain jarritzen zaitut nik:
ara jua ta pasako ez dezu
sekula egun bat onik.

7/ Aizazu: ango gauzik geienak
bestek eramaten ditu,
ta ganaruak erdirakuak,
oriyek ondo aditu».
Berak desio zuen gauzarik
besteri ezin supritu,
nigatik gaizki itz egitia
ez da askorik kupitu,
nik ez niyoten kantik jarriko
egiyak esan balitu.

8/ Galerazi nai zenizkidaten
pentsatu nituen martxak,
neregatikan gaizkiya pranko
esan dezute bakotxak;
neri eratxi nai zizkidaten
berak daukazkiten mantxak,
guk besterenak daukazkigula
azienda ta kosetxak,
kontzientziya ederra dauka
ori esan dun neskatxak.

9/ Pasadizuak diran bezela
ederki ditut neurtuko,
pazientziya bestela ez det
iñola ere artuko;
emakumerik gaixtuagorik
mundura ez da sortuko,
oik desiua izanagatik
ni enaiz mutilzartuko,
oietakorik ez da geiago
nere goguan sartuko.

10/ Leku askotan jakin dezaten
orain biar det otsegin;
jakiña dago, oien artian
ez da egongo atsegin;
ustez egoki aritua naiz,
apenas dedan utsegin,
ta urrenguan gezurra nola
dakizutela itzezin,
oietan pena duenik bada
garronduari atzezin.

1914'EKO GERRA

1914'eko Europa'ko gerrari ere paratu zizkion bertsoak Joxe Zapirain'ek.

Altza'ko Arrues baserriko Joxe Garmendia'k, frantzes eta inglesen alde jarri zituan; Joxe Zapirain onek, berriz, alemanen alde. Ta biak, bertso-mota eta doñu berean jarri ere.

Arrues'ko Joxe Garmendia'renak, gorde dira: *Auspoa*, 76, 51 orri-aldetik aurrera. Bañan Joxe Zapirain'enak galdu, iru izan ezik; paperetan zabaldu ote ziran ere ez dakigu.

Lenengo au, Zapirain'en seme Salbado-
rrek emana da:

Aita Santuarengana
ziraden juan
asitzeko gerran,
bañan libertaderik
etzieten eman;
aspaldi orietan
or zebiltzan teman,
batallan asi dira
frantzes ta aleman;
orain ikusiko da
gogorrena nor dan.

Bertso ori bera, beste onela eman zigun
Zapirain'en seme Manüelek:

Berrogei urte oitan
or zebiltzan teman
frantzes ta aleman,
.
asi dira gerran;
Aita Santuarena
ziradela juan,
bañan permisurikan
etzioten eman;
orain ikusiko da
gogorrena nor dan.

Beste bertso au, Saiburu'ko Juan Mari
Lujanbio'k emana:

Bata bestien kontra
orrenbeste lagun
beti gau ta egun,
ez dakit pakia noiz
ikusi biagun;
tiro ta kañonazoka
gogor dute jardun,
portunatzen bazaie
autsitzia Berdun,
frantzesaren bildurrik
ez daukate ordun.

Ta irugarrengo au, Aitzondo'ko Pilar
Etxebeste'ri jaso:

Frantzes eta aleman
ingles eta Rusi
gerran ziran asi,
alemana jirako
zalako igesi;
aurrenian bazuten
bastante pantesi,
eta eztakigu zer
bear dan ikusi;
azkenian jarriko
zaiote nagusi.

BERTSO BERRIAK
ZAPIRAIN'DAR JOSEK JARRIAK

ESKARMENTAGARRI

Zortzi bertso auek, bertso-paper batetik ditugu. Paper orrek ez du moldiztegi-izenik; bañan, dudarik gabe, Errenderi'ko Makazaga'renean argitaratuta dago. Altza'n, Gazteluene zaserrian, Jose Ramon Erauskin Lujanbio'ren eskutik jaso genduan.

Xenpelarrek onela dio mutilzarrai jarritako bertsoetan:

animosua ez dago mutill
zarraren biotza.

Ezta gizon ezkonduena ere, zenbait aldiz beintzat. Orixe bera gertatzen zitzaion Joxe Zapirain'eri, bertso auek jarri zituztanean. Arritzekoa ere ez da alako familia zuan guraso batentzat. Ta ezkongaiari ezkontzea zer dan adierazi nai die, eskarmentuan garaiz sartu ditezen.

Orregatik, *Eskarmentagarri* jarri diegu bertso auei bigarren izenburua, kako tarte-

koa alegia, itz ori bigarren bertsoetik artuta eta sail onen bereizgarri izan dedin.

Zapirain'ek ez du bertso auetan emaztearen faltik aitatzen. Alargundu aurretik jarriak dira, beraz; 1919/II/28'garrena baño lenagokoak, alegia.

«*Denbora tristiak*» iruditzen zitzaizkan orduko aiek gure bertsolariari; bañan tristeagoak bidean zituan gizagajoak...

1/ Bertso berri batzuek
biar ditut jarri,
ezkongai daudenentzat
eskarmentagarri;
nere pasadizua
esango det sarri:
askotan izaten da
alimentu urri,
ikasi nai duena
nigana etorri.

2/ Ai, oraindik ezkongai
zauzten gaztiak,
beti're baliyo du
zerbait ikastiak:
allegatuko dira
denbora tristiak,
diferentzi gabeko
jaia ta astiak,
eskarmenta zaitezte
nerekin bestiak.

3/ Pentsamentu orrekiñ
zenbait gazte ero:
ezkondutzian ondo
bizitzia espero;
asko ibiltzen dira
damututa gero;
aditzeko moduan
esango det klaro:
sufritu egiñ biar
beñ artu ezkerero.

4/ Beiñ artu ezkeroztik
beren gurutzia,
obligatuak daude
elkar laguntzia;
leneztandik obia
zerbait pentsatzia,
baño eztu baliyo
gero damutzia;
orra adierazi
zer dan ezkontzia.

5/ Aditzen nuen baño
ez buruan sartu:
oraiñ familiyaren
diña eziñ sortu:
obe nuen nik ere
banitz mutill-zartu;
onela izateko
inbiriya nork du?
Obeto bizitzeko
ez andrearik artu.

6/ Batzuek badirade
batere eztutenak,
asko duenak ere
badakazki lanak;
gu beziñ umetsuak
ez dirade danak,
sufritu egiñ biar
Jainkuak emanak,
arriskurik ez dauka
geldi daguenak.

7/ Ondo ikas itzute
nere leziyuak,
gauzak erakutsitzen
ditu juiziyuak:
asko ezkondu-azten
gaitu biziyuak;
umiari eman biar
beren leziyuak,
orra gurasuaren
obligaziyuak.

8/ Beñere gauz onik ez
inbiriosuak,
aztuta bizi gera
egun erosuak;
ederki arrapatu
gaitu erasuak,
obligaziyo asko
dauzka gurasuak;
onekiñ bukatzeko
dirade bertsuak.

«BEIN MUNDUTIKAN FALTATZEN
DANAK...»

Onoko sail au, moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batetik degu; iru tokitatik eskuratu genduan papera: Inazio Ugartemendia, Bentzalaga, Alkiza; Jose Antonio Berrondo, Erdiko-etxe, Errenderi; Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza,

Paperak ez du egillearen izenik esaten; bañan Jose Ramon orrek, Joxe Zapirain'ek jarritako bertsoak zirala esan zigun.

Jose Antonio Berrondo'ren paper orretan ere, bertsoen azpian, eskuz idatzita, firma bezela alegia, onelaxe dago: Jose Zapirain.

Orain, liburu au prestatzerakoan, bertsolariaren semeai galdetu ta baietz esan digute ao batez: beren aitak jarriak dirala.

Orixe bera esan zigun Saiburu'ko Juan Mari Lujanbio'k ere: Joxe Zapirain'enak zirala.

Beste argibide bat ere eman zuan jaun onek. Onela esan zigun:

—Oik dira, andrea il baño lenagotik azken jarri zituenak.

Ain zuzen, bertso-paperaren itxura ordukoxea da. Ortaz gañera, beste munduko kezka eta goraberak, askotan aitatzen ditu Zapirain'ek bere bertsoetan; bañan, bere emaztea il zan ezkeroztik, ura beti aitatzen du, ta ontan ez du ori egiten.

Juan Mari Lujanbio'k arrazoi izango du, beraz, eta andrearen eriotza baño lenagokotzat jo dezakegu, nik uste, sail au.

1/ Bein mundutikan faltatzen danak
geiago eztu bueltikan,
bertso batzubek jarriko ditut
artutzen badet betikan;
aspalditxuan etzait arkitzen
desiyuaren faltikan:
eskola galant askua duten
gizonak joanagatikan,
jakinduriyak kentzen dizkate,
ez dute egiten kartikan.

2/ Notizi ori bialdu duenik
ezta oraindik jua granorik,
bire oietan ezta egongo
alanbre eta palorik;
mundu onetan bizi diranak
egite'ituzte lana oik,
nonbait emendik eziñ atera
beste aldeko planorik,
andik onera itzegiteko
ez dago telefonorik.

- 3/ Fede gabiak esaten dute
alkarregana biltzian:
kristaba ere igual dala
animaliyen antzian;
animaz arrunt aztuak daude,
utzitzen dute atzian,
geroko eztala kuidadorikan,
akabo dala iltzian;
orrelakuak faltatutzen du
fede santuko itzian.
- 4/ Ez dakitenak abertentziyan
aguro ditut parako:
gu Jaungoikuak ez gaitu bota
mundura bakarrerako;
animaliyak egin zituben
gure serbiziyoarako,
estudiyuak sortzen dituzte
alderdi askotarako,
bañan emengo jakinduriyak
eztu baliyo arako.
- 5/ Mundu onetan izandu dira
bastante jende abillak,
orain bizirik asko dabilta
eta badira len illak,
Jaungoikoaren kontra egiñik
izugarrizko batallak,
baña arentzat eztu baliyo
gizonak eta mutillak;
oien moduko fedia zuten
juduak eta jentillak.

6/ Jaungoikorikan eztala esaten duten gizonak badia, (1) oien partetik laister galduko litzake kristandadia; zuzena baño errezago da okerrerako biria, engañatutzen erreza dago oraingo gazte jendia; ganantzirikan eztu egiten, franko oztu da fedia.

7/ Fede gabiak esaten dute eztala Jaungoikorikan, eta ain gutxi zerua eta gañera infernurikan, munduba ondo pasa ezker ezala kuidadorikan; baña ez degu sinistu biar iñork orrelakorikan, ni konfiantza osuan nago, ez det egiten dudikan.

8/ Aditzalliak, artu zazute gauz ortan erreparua: sillu ederra berekin dauka, orra señale klarua; dudarik ezta, izango dira infernua ta zerua; zenbait gizonak eztakit zertan kantsatzen duben burua: egiyarikan sinistatzen ez, ez dute fede berua.

(1) Bertso-paperak: *badira*.

9/ Diferentziya aundiya dago,
ezin konpondu kituan,
lenago ere oien buruan
pasa izandu nituan:
illargiya ta eguzki ere
nola ikusten dituan,
minuturikan faltatu gabe
or dabilta segituan,
oriyek lengo zarrak dirade,
norbaitek jarri zituan.

10/ Itxasua ere beti or dabil
bere lekuan bueltaka,
errespetatzen du ark oraindik (2)
jarri ziyoten ataka
gizonak berriz errenditzeko
pentsamenturik eztaka,
aspaldi xamar pasa zituben
bere neurriya ta marka,
onak badira oraindik baño
oraintxen oso banaka.

11/ Fedeko gauzik aditu nai ez,
iya galdu da dotriña,
beti Jainkua desondratutzen
blasfemiya ta zikiña;
euskaldun asko ortan ari da,
kastillanua jakiña;
biyotza ere gogorra dute,
arriyarekin egiña,
Judasek baño gaiztuagua du
orrelakuak mingaña.

(2) Bertso-paperak: *are oraindik*.

12/ Oien mingaÑak maiz aitatzen du
ostiya eta kaliza,
gau eta egun desondratutzen
Jesukristo ta Eliza,
Ama Birjiña eta San Pedro
igual-igual oien gisa;
demoniñuen modukua da
oien munduko bizitza,
orrelakuak Jaungoikoagandik
apartatuak dabilta.

13/ Munduban ere eztira bizi
trankilidade osuan:
desesperatzen maldiziyoka
berdin igual dan kasuan;
gaiztakeriyak trabatu ditu
demoniñuen lazuan,
leku txarrian sartuko dira
urrengo estropazuan:
eternidade guzi-guziko
Judasen kalabozuan.

ALARGUNA!

Jose Zapirain bertsolariaren emaztea, Maria Kontzezion Ezeiza Oiartzabal, bederatzirekin ama gaztea, 1919.II.28'an ilzan, goizeko zortziretan, Bordaxar base-rrian. Ori, len ere esanik gaude; baita nola ilzan ere:

Europa'ko gerra bukatu berrian, gripezurriterik gaiztoena zabaldu zan. Gerrak bai, bañan arek etzuan mugarik errespetatu; ta Bidasoaz onuzko aldera sartu ta emen ere eriotz asko egin zituan.

Bordaxarren, Saturnino ez beste danak gaixotu ziran. Danak, gaitza menderatu ta onik atera ziran. Ama, ordea, aur egin berri samarra baitzegoan, danetan aulena uraxe arrapatu zuan ta ura eramane. Ogei ta emezortzi urte zituan.

Senarrarentzat naigabe ura zer izango zan, ez dago esaterik. Ta, bertsolaria izanik, bertsoak jarri zituan, ta bi bider jarri ere. Ta bere gañontzeko bertsoetan ere, maiz askotan aitatzen du bere emazte zana.

Bi jarri-aldi oiek orain emen arkituko ditu irakurleak. Oietan lenengoa noiz jarria dan, oso alde-alde esan genezakela uste det. Irugarren bertsoak onela esaten baitu:

ta gaztienak berriz
iru illabete...

Semerik gazteen ori 1919.I.17'an jaioa zan, ta iru illabete erantsita, urte bereko Apirillaren erdi-aldea degu. Garaitsu orretan parako zituan Zapirain'ek bertso auk.

Len ere esanik daukagunez, Joxeren anaiak, Juan Krutzek, gauza bera egiña zuan: aren emaztea ere, illabete batzuek aurretik, gripez gaixotu ta illa zan, ta senarrak bertsoak jarri. Biotzaren naigabeak ez-ezik, anaiaren bertsoak ere bultzatu al zuten Joxe bertso jartzera?

Baditeke; bañan zer zaio orregatik? Bai anai batena ta bai bestearena, bertso-sail bikañak dira; zein baño zein ohea. Ta Jau-nari eskerrak ematekoa da, bi anai bu-ruzvide bera emana.

☆ ☆ ☆

Amargarren bertsoak onela dio:

familiya dadukat
franko banatua...

Ama il ondoren, iru seme atera ziran etxetik:

Zazpigarrena, Juan Krutz, Loiola'ko Telleri'ra joan zan, bere osaba ta aitajauna zan Juan Krutzen etxera.

Gazteena, Jose Mari, esan bezela berrogei eguneko aurra baitzan, Astigarraga'ko Añaztegi baserrira eraman zuten, amaren aizparen etxera.

Araxe eraman zuten, baita ere, Saturnino, laugarren semea.

Etxetik oso urrutira gabe zeuden, bañan aitak etzuan pakerik izan danak ostera etxeratu arte. Alik azkarren ekarri zituan.

Añaztegi'n pena artu zuten; etxean lau alaba baitziran, eta semerik bat ere ez. Bañan Joxeri, asko bazituan ere, etzitzaion iñor sobratzen...

☆ ☆ ☆

Bertso auen argitaraldirik zarrena, gure iritzirako beintzat, moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper bat da. Altza'n, Txirritaren illoba dan Jose Ramon Erauskin Lujanbio'ren eskutik jaso genduan.

Bertsolariya'n ere agertu ziran bertso auek, 32 zenbakian, 1932.IV.24'an.

Baita ere Manuel Lekuona'ren *Literatura Oral Vasca* deritzaion liburuan (1). Ain zuzen, bertso auek artzen ditu Lekuona'k ixpilluzat, bertsolarien buru-jokabidea nola dan adierazteko.

Ortaz gañera, eskuz idatzirik ere eskuratu izan ditugu: Altza'ko Patxi Otxoki'ren (Frantzisko Lazkano) eskutik, Azkoi-ti'ko Demetrio Larrañaga *Traki*'ren eskutik, eta abar. Baita makinaz idatzita ere.

Bañan bertsoak berdintsu daude oietan danetan; aldaketarik gabe alegia.

Bertso-paperak, *Bertso Berriyak* beste izenbururik ez du; ta ondoren, firma bezela: *Jose Zapirain*. Beste zerbait komeni zala-ta, *Bertsolariya*'k daukan izenburua ezarri diogu guk bertso-sail oni: *Alarguna!*



Len esan bezela, oso bertso ezagunak dira auek; ezagunak ez-ezik, erriaren gogokoak ere bai. Ara nola dion Basarrik bere lan batean:

«Errenteri'ko Jose Zapirain jaunak bere emaztearen eriotz ondoren jarri zitun bertsoak kantatzera askotan beartu nau erriak. Lenengo aldiz kantatu nitularik, etzendu-teke sinistuko zenbat karta ta eskari eto-

(1) Colección Auñamendi, 45, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1965.

rri zan gure etxera; nik eztakit zenbat kopi atera izan nitun jendea atsegintzeko.

Ezekoa ematen asi bear izan nun azkenik, lan orrek denbora lastimagarria lapurtzen zidalako.

Euskaldun baserritarra, pluma eskutan artuta karta egiten asteko, oso premizko edo gogozko zaion zerbaitegatik izango da. Beste gañontzean ezta pentsatu ere olako buruzpiderik.

Gure etxera amar bat karta irixten ziran egunero, Gipuzku, Bizkai ta Naparrutik, radioz entzun zituzten bertsoak eskatuz».

Andik piska batera, onela jarraitzen du Basarrik:

«Ondoren datorren ontan —irugarren bertsoan alegia— «prueba egin dutenak sinistuko dutela», dio, bertsolariaren naigabea ta izakera trixtea nolakoak ziran.

Ta... nola ez!, neri radiotik entzuten alargun bat, bi ta ogei baño geiago egongo ziran, Zapirain jaunaren kaso berdintsuan».

☆ ☆ ☆

Doñua, bi modutara jartzen degu: lenengoa, Joxeren seme Manuelek kantatu digun bezela; eta bestea, Aitzondo'ko Pilar Etxebeste'k kantatu diguna:



Musical score system 1, consisting of six staves. The first staff is in treble clef with a key signature of two sharps (F# and C#) and a 3/8 time signature. The remaining five staves are in alto clef with a key signature of one sharp (F#). The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, rests, and slurs.



Musical score system 2, consisting of three staves. The first staff is in treble clef with a key signature of two sharps (F# and C#) and a 3/8 time signature. The second and third staves are in alto clef with a key signature of one sharp (F#). The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, rests, and slurs.



1/ Kantak jarriko ditut
artzen badet betik,
neri gertatu zaidan
motibuagatik;
ez det esango egin
etzirala faltik,
biyotza konsolatu
ezin penetatik,
iya atera nitzan
nere onetatik.

2/ Nere sentimentuak
biar ditut esan,
suerte txarrerako (2)
mundu ontan izan:
gripek arrapatuta
emaztia il zan,
errezatutzen diyot
al dedana elizan,
beratzi semerekin (3)
alargundu nitzan.

(2) Bertso-paperak: *suerte charreaco.*

(3) Bertso-paperak: *bederatzi semerekin.*

- 3/ Semerikan zarrenak
 ditu amalau urte,
 ta gaztienak berriz
 iru illabete;
 oiek gobernatutzen
 lana badaukate,
 nik emaztia illa
 ez det gutxi kalte,
 prueba egin dutenak
 sinistuko dute.
- 4/ Goguak ematen dit
 adieraztia
 nola gelditu zaidan
 famili gaztia;
 nik esan ditudanak
 gezurrak ezta, (4)
 gripek arrapatuta
 il zan emaztia,
 oraingo bertsu oiek
 franko penaz tia. (5)
- 5/ Enaiz gezurtiya ta
 kristau burlosua,
 alargun gelditzia
 ai zer erasua!
 Bizi-modu klasi au (6)
 ezta erosua;
 urrikalgarriya ta
 franko penosua,
 ume txiki askokin
 dagon gurasua. (7)

(4) Bertso-paperak: *gezurrac estira.*

(5) Bertso-paperak: *franco penas dira.*

(6) Bertso-paperak: *bizi modu clasian.*

(7) Bertso-paperak: *dago gurasua.*

- 6/ Jendiari emango
diyot aditzia,
orain probatuko det
zer dan bizitzia;
kasikan obe luke
kristabak iltzia,
ez ume txikiyakin
orla gelditzia,
ai, gauza tristia da
alargundutzia!
- 7/ Ez diyot desiatzen
munduan iñori
neri gertatu zaidan
deskalabru ori;
errezatutzen dizkat
Ama Birjiñari
egunian bi aldiz
zazpi abe mari,
arren pazientziya
emateko neri.
- 8/ Ai, zenbat gizon gazte
t'andre familiko, (8)
au goguan dutela
eztira ibilliko;
orla bakartutzia
iñork eztu naiko,
gu biyok bizitzia
etzan konbeniko,
bestela Jaungoikuak
etziñuen ilko.

(8) Bertso-paperak: *Ai zenbat gizon ta andre gazte fameliko*; bertsolariaren semeak esan didatenez, or goien jarri degun bezela kantatu da beti.

- 9/ Esango det, jendiak
 nai badu aditu,
 beratzi seme nola
 zaizkidan gelditu;
 lengo bizimoduan
 nai nuke segitu,
 pazientzi onian
 pasako banitu,
 erremediyo danak
 Jainkuak baditu.
- 10/ Jaungoikuak badauka
 guziyen kontua,
 beratzi semerekin (9)
 nitzan sonatua;
 deskalabro onekin
 nago penatua,
 familiya dadukat (10)
 franko banatua,
 emaztiaren faltan
 desordenatua.
- 11/ Manifestatzen ditut
 daukazkidan penak,
 baña ez ditut esaten
 pasadizu danak;
 eskerrak dauzkidala
 aiudante onak,
 orlako ume txikiyak
 badituzte lanak,
 amarik gabetandik
 azi biatenak.

(9) Bertso-paperak: *bederatzi semerekin.*

(10) Bertso-paperak: *familiya daucat.*

- 12/ Kontatuko det gure
munduko atzena,
atenziyua badet
orduko itzena;
ni naiz obligatua
arkitzen naizena,
errezatutzen diyot
al deten maizena,
bizi naizela etzait
aztuko izena.
- 13/ Sekulan ez det artu
ainbesteko penik,
eta ez derizkiyot
artuko dedanik:
barkaziyua eskatu
beregana joanik,
azkeneko partidari
bi musu emanik,
geiago itzegiten
eztaukazu lanik.
- 14/ Bertsuak jarri ditut
nere borondatez,
portunosua ez naiz
izandu suertez.
Au biyotzeko pena
konsuelo-partez,
esanaz: «Ill biarra
ementxen det nai t'ez!
Nitaz errezatzia
akordatu zaitez!».

15/ Beti pena bat daukat
au gogoratzian,
ateratzen ez dana
nere biyotzian:
nola deitu ninduben
ark eriyotzian,
azkeneko enkargua
auxen eman zian: (11)
errezatu nezala
artaz pensatzian.

16/ Ez izan gezurra dan
errezelorian:
begitik ezin kendu
negar-malkorikan;
ez daukat fiestik eta
dibersiyorikan,
kasik gabian ez det
egiten lorikan,
iñundikan ez daukat
konsuelorikan.

17/ Barrengo tristurarik
ezin det bialdu,
nere estadu ontaz
zeiñ ez urrikaldu?
Lengo bizi-moduai (12)
nai niyoke eldu,
esperantzarik ez det
oraindikan galdu,
Jainkuak aren falta (13)
ordainduko al du!

(11) Bertso-paperak: *ausen eman siran.*

(12) Bertso-paperak: *Lengo bizi-modu ari.*

(13) Bertso-paperak: *Jaungoikuak aren falta.*

18/ Len polliki giñanak
franko aldrebestu,
baten faltan guztiyak
nola geran nastu;
nere biyotzik ezerk (14)
ez lezake poztu,
beti pensamentu bat
eta ezin aztu,
mundu onetan iñork
gustorikan eztu. (15)

19/ Utzi biziya ta
gaiztorako griña,
guziyak ez daukagu
bizitza berdiña;
batzubek disgustua
ta bestiak miña,
pazientziyan pasa
zagun alegiña,
gustora izateko ez da
mundua egiña.

(14) Bertso-paperak: *nere biyotzik ezere.*

(15) Bertso-paperak: *ezdu.*

EMAZTIAREN ERIOTZA

Onoko au, Joxe Zapirain'ek bere emaztea il ondoren jarri zuan bigarren bertso-sailla da.

Bi tokitatiek eskuratu degu: lenengo, Aitzondo'ko kuadernotiek; bigarren, Oiarzun'go Gurutze ballarako Ttipiberri baserritik, moldiztegi-izenik ez duan bertso-paper batean. Bañan, letraren itxuragatik-eta, Errenderi'ko Makazaga'renean inprentatua dagoala ematen du. Oietan bietan bertsoak berdina daude.

Sail onek kuadernoan izenbururik ez du; bertso-paper ortan bai ordea: or goien jarri deguna.

Noiz jarriak ote dira bertso aukerak? Seigarren bertsoak onela dio:

Beatzi seme badadukazkit
sanuak eta biziya,
okerrenian pasatukuak
pranko koskortzen asiya...

Emazteak, semerik gazteena berrogei

eguneko aurra utzi zuan. Orregatik, gure iritzirako beintzat, denbora-puska on bat eta bearbada urte-mordoska bat igaro arte, etzeukan senarrak ori esaterik. Bañan puska edo mordoska ori zenbaterañokoa dan, orixe ezin esan genezake.

Zazpigarren bertsoan onela esaten da:

bizi naizela etzait aztuko
Aingeru Goardako eguna,
eta orduan lurperatu zan
nere munduko laguna.

Emaztea, Otsaillaren azken egunean il zan, 28'an; ta Martxoaren lenengo egunean lurperatu zuten.

Joxe Zapirain'en semeak onela esan di-date:

«Gure aitak onela esaten zuan:

—Aingeru Goardako eguna, nere andreari lur eman zioten eguna da, ta nik, bizi naizen arte, ez det lanik egingo egun orretan!

Bi anaiak (Juan Krutz eta Joxe), oso lagunak ziran aiek; eta urtero-urtero, egun orretan, goizetik atera eta etziran etxera azaltzen illundu arte. Lan guziak utzi eta ez dakit nun pasatzen zuten.

Guk esan bear bagendu, eliz aldetik buelta bat egin gabe etzuten utziko.

Egun orrek bazuan beste oroipenik ere: Beren beste anai bat, Joxe Ramon, arrobiren batean zebillela-edo, tiro bat lertuta bere lagunak il, ta bera bizirik geratu. Larrarekin aritzen omen ziran: larraren bolba edo muña atera, polbora sartu ta arekin metxa egin.

Oso egun señailea zuten, beraz.

- 1/ Au bakardade penagarriya
lagunarekin oituta,
gure Jainkuak elkarrengandik
orain berexi gaitu-ta!
Arenganako amoriyua
ez daukat oso aztuta,
nik alegiñak egiten dizkat
denak merezi ditu-ta.

- 2/ Gure munduko despeida zer zan
nua esaten aстера;
ez dakitenak badira eta
nijua erakustera,
au aztutzera gelditu gabe
gogoratzeko oстера;
enkargu asko emanda jua zan
mundu ontatik bestera.

- 3/ Au pentsatzian biyotza triste,
negar-malkuak begiyan,
enkargu asko eman zizkiran
mundu ontatik abiyen;
ta esan ziran: «Arkituko naiz
errezuaren premiyan,
al dezuna ondo erakutsiyaz
bizi zere familiyan.
- 4/ Ta esan ziran: «Uztera nua
nere famili maitia,
milagrua da neregandikan
gaitz onek aldegitia;
ezta posible mundu onetan
geiago ezer egitia,
ume gaxuak gobernatuaz
bizitzen saia zaitia».
- 5/ Nere denboran portunosua
izan naiz suerte txarrez,
eta orduko pasadizua
esaten ez dago errez;
jakiña dago gure despeira
izango zala negarrez,
ai, mundu ontan guk elkarrekin
geiago bizi biarr ez!

- 6/ Beatzi seme badadukazkit
sanuak eta biziyak,
okerrenian pasatakuak,
pranko koskortzen asiyak;
emaztiaren paltan daukazkit
onelako desgraziyak,
Jaungoikuaren laguntzarekin
aziko ditut guziyak.
- 7/ Orain neretzat portunatu da
izaera alarguna,
au da gauza bat beti goguan
eduki biar deguna;
bizi naizela etzait aztuko
Aingeru Goardako eguna,
eta orduan lurperatu zan
nere munduko laguna.
- 8/ Otsaillaren errematia
Martxuaren lenbiziya,
egun artantxen portunatu zan
gurekiko desgraziya;
jakiña dago bakarrarentzat
umiak eziñ aziya,
orain alargun pasa biar det
nere denbora guziya.

9/ «Ezin det baño saiatuko naiz
zuri konseju ematen,
ai, ondo dakit nik nere paltan
nola biziko zeraten:
al dezunetik eman zaiezu
ume gaxuari jaten,
eta badakit bakarrarentzat
oiek zer lana daukaten.

10/ Mundua laister bukatuko det,
ez det urruti azkena,
ta zure kargu gelditutzen da
orain familiya dena;
ume gaxuai enkargu asko
emango niyotekena,
izketarako gauza izan ez,
onek ematen dit pena!

11/ Ume gaxuai eman nai nizken
al nituzkian ordenak,
zerbait itzegin nai nuke baño
ez dit laguntzen barrenak;
aje gaixtuak arrapatu nau,
izan leikian txarrenak;
nerekikua ikusi dezu,
orain zure kargu denak».

12/ Ai zer pena ta naigabia zan
oi argandik aditzia!
Eziñ egon ta aldegin nai ez,
ura orduko trantzia!
Ta esan ziran: «Ez det urruti,
emen datorkit iltzia!»
Milagro al zan jolas oiekin
biotza erdibitzia?

13/ Esango ditut pasadizuak
denak ikasi ditzaten,
diferentzirik batere gabe
gu're ez giñan izaten;
gure partira nolakua zan
orain asi naiz esaten,
ontaz aurrera bizi diranak
elkar estima dezaten.

14/ Esango ditut pasadizuak
iñork nai badu aditu,
denbora juanda gero penetan
iñor ez dedin gelditu;
bata bestien diferentziyak
pazientziyan unitu,
naiago nuen neronek ere
alaxen egin banitu.

15/ «Nere emazte biotzekua,
pena ematen dirazu,
au azkeneko itzaldiya da
eta aditu biazu:
diferentzirik batere gabe
ez gera izan ni ta zu,
gaizki egin ta gaizki esanak
barkatzen al dizkidatzu?»

16/ Guk bezelako azken despeda
egiten dute bakanak, (1)
nere kontuak entzungo ditu
atenziyua daukanak:
aitortu nizkan gaizki egiñak
eta gañera esanak...
«Nik ez daramat gorrotorikan,
barkatzen dizkitzut danak!»

17/ Deitu ninduen: «Etorri zaite
barkaziyuaren billa!»
Ai ua pena izugarriya,
biotza neukan umilla!
Nere nayian munduan ezta
gure Jaungoikuak illa,
desio diyot nere partetik
zeruan gerta dedilla!

(1) Aitzondo'ko kuadernoan eta bertso-pape-
rean, *bakarrak* dago; bañan *bakanak* bear duala,
dudarik ez da.

LENGUAN IKUSI DET

Onoko sail au, Aitzondo'ko kuaderno-tik eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik artua degu. Bertsoak berdin daude batean eta bestean. Kuadernoak izenbururik ez du; liburuxkak, or goien jarri deguna dauka, ta gaiari ondo dago-kiona da.

Joxeren semeak esan digutenez, gauzak onela gertatu ziran:

Joxek, gau batez, emaztea il ondoren, ametsetan egin zuan: Bera estazioan omen zegoan. Alako batean, trena etorri, ta trenetik bere izenez oju egin zioten: «Joxeee!!!» Entzun orduko, emaztearen boza zala ezagutu, ta antxe ikusi zuan, trenean, txuriz jantzita eta bi aingeru esku banatatik zituala.

Trena gelditu, izketan asi ziran eta zerura zijoala esan zion, Orduan Joxek:

—Ia, ba, neretzako ere tokia badan edo egiten dezun!

Ta emazteak:

—Bai; an danentzat tokia bada!

Ori esan da trena berriz ere martxan jarri; ta, emaztea leiotik agurka ari zitzaiola, Joxe esnatu.

Amets orrek asko goxatu omen zituan bertsolari onen penak eta samiñak.

Ta Aitzondo'ko Pilar Etxebeste'k, onela esan digu:

«Joxek esaten zuen, iru amets egiña zala; bi egizkoak atera zitzaizkala, eta irugarrena ere, artan sinistuta zegoela.

Lenbizikoa, nola arbola batean birigarro-kabi bat zegoen, gabean egin zuela amets, eta joan zala urrengo goizean ikustera, eta atera zitzaiola egiz: antxe zegoela kabia bere umeakin.

Bigarrena, nola erniatu egin zan amets egin zuen, eta andik amabost egunera nola agertu zitzaion ernia.

Irugarrena, berriz, trenean zijoala ikusi zuela, ta nola bere emazteak esan zion purgatoriotikan atera ta zerura zijoala; artean etzala allegatu, baño laixter allegatuko zala; eta ura ere esperantzetan eta sinistuta zegoela gañera, egia aterako zala».

- 1/ Kontatuko det nere
bizitza tristia:
milagrúa litzake
il zana piztia,
ikusteko aski det
begiyak ixtia,
au da ametsetako
gauzak sinistia.

- 2/ Memoriyan ez daukat
idea gaiztua;
lenguan ikusi det
il zana piztua,
eta pentsamentua
da gauza listua:
amets bat egin eta
nago sinistua.

- 3/ Konsuelua daukat
au gogoratzian,
ai zer alibiyua
nere biotzian!
Amets bat egin nuen
lengo arratsian:
zerura zijuala
berak esan zian.

4/ Pentsamentura neri
etorritzen zait maiz,
engañatua nago
deskuidatu banaiz;
esan ziran: «Zerura
allegatu enaiz,
oraindik enaiz sartu
baño sartuko naiz».

5/ Nunbait etzan etorri
egoteko betan,
esanaz: «Allegatu
enaiz zeruetan,
oraintxen arkitzen naiz
oso gutxin paltan».
Nik ua ikusi det
baño ametsetan.

6/ Gau batez ikusi det (1)
lotan naguela,
oraindik bazekiyen
non zeguen gela;
aingerutxua bere
eskutik zuela,
itz bi eginda joan zan
nigandik berela.

(1) Kuadernoan eta liburuxkan *ikasi*; guk uste, *ikusi* bear du, ta ala jarri degu.

7/ Besuan da eskutik
zuan aingerua,
ala arrimatu zan
nere inguruâ;
ametssetako gauza
ezta segurua,
esan ziran: «Oraintxen
banua zeruâ!»

8/ Ametsa ezin artu
oso segurantzán,
baño geroztik nago
pranko esperantzán;
galdetu niyon neretzat
tokirik bai al zan,
baietz esan ta azkar
aurretikan joan zan.

9/ Nunbait etorri zan au
neri esateko,
ala gertatzen bada
nik ez det kalteko:
«Oraintxen nago laister
zerura juateko,
zuretzat ere ezta
lekurik paltako».

10/ Au da partida motza
emaztiarena,
luzieneko ere
minutu bat dena;
izketan asi orduko
etorri zan trenan,
elkarren alde ziran
poza eta pena.

11/ Elkar ikusitzeko
izan degu era,
bisita egitera
etorri zait bera;
denbora asko baño len
partituak gera:
«Agur, banua, gero
etorriko zera!»

LENBIZIKO GURASUAK

Berak olakorik ezer ez bazuan ere, *Lenbiziko gurasuak* jarri diogu izenburua onoko sail oni, lenengo bertsoetik artuta. Gaia ere orixe baitu: Adan da Ebaren gertaera.

Bertsolariak olako gairen bat dutenean, esakizunak nundik izango dituzten berealaxe pentsatzen degu danok: *Lardizabal'en Testamentu zarreko eta berriko kondaira* deritzaion liburutik.

Ain zuzen, ara nola esan digun Joxe Zapirain'en seme Salbadorrek:

«Tolareberri'ko eskola ortan genbiltzala, saria atera eta eman zidaten Kondaira zar ori euskeraz. Etxera ekarri nun, etxean irakurri gendun, ta gero inguruko baserri guzi-guziak irakurri zuten ura, eta azkenean galdu egin zan. Ez dakit zeñek artu zuan».

Beraz, lenengo irakurtzen entzun eta urrena bertsoak jarri; Joxek ola egingo zuan. Bere anai Juan Krutz ere orrelaxe moldatu zan San Jenobebarenak jartzeko.

Bertsoak ez dute biderik ematen noiz jarriak diran somatzeko. Bañan Salbadorren eskola-denbora 1924 urte-inguruan izan baitzan, gutxi gora-bera ordukoxeak dirala pentsa genezake.

Txirritaren illobak, Altza'ko Gazteluene baserriko Jose Ramon Erauskin Lujanbio'k eman zizkigun bertso aukerak. Makinaz idatzitako paper batean daude, eta egillearen izena, *Zapirain'tar Joseba*, bertsoen azpitik dago. Len ere esan degunez, Gazteluene ta Bordaxar auzo xamar egiten dira: ordu laurden bateko bidea oñez.

Bertso aukerak, *Ai gure antxiñeko* bertsoen doñuaz kantatu bear dira. Doñu ori, 136 orri-aldean arkituko du irakurleak.

1/ Lenbiziko gurasuak.

Eba eta Adan,
ala omen ziran,
paradisuan jarriyak
guzizko aukeran;
paltarikan etzuten
jaten eta eran;
ez dakit pasadizua
ondo esango dedan;
orra gu oien paltan
nola bizi geran.

2/ Adan lendabiziko
egin zuen lurrez,
sortu zuen errez,
ta Eba emaztia
saietseko ezurrez;
ondo portatu izan
baziran ezer ez,
etsaia an zebillen
inkurriyo txarrez,
engañatu zituen
tranpiyaz gezurrez.

3/ Arbola bat ziyoten
Jaunak debekatu,
izateko kontu,
artatikan jatia
zutela pekatu;
maiz juaten ziran ara
ta etsaiak tentatu,
peligroko lekutik
ezin apartatu;
orain pasatzen dana
an ere gertatu.

4/ Paradisuan zuten
frutik ederrena
ez jateko ordena;
askotan arrimatzen
ziraden arrena;
desioz beterikan
zeukaten barrena;
guk ere inbiriya
degu alkarrena,
gizon ta emakumeak
daukagun txarrena.

5/ Beti idea txarra
buruan zeukaten,
asi naiz esaten,
peligroko tokira
maiz ziraden juaten;
etsaiak etziyoten
pakerik ematen:
tontuak ziradela
ezpazuten jaten;
bizitza ditxosua
onla galdu zuten.

6/ Etzuten sinistatu
egiya esanta,
berak zuten falta:
il egingo zirala
artatikan janta;
debekatu ziyoten (1)
pekatua zan-ta,
probatu egin zuten
arbolara juanta,
orduan eman ziyen
kastigu galanta.

7/ Peligroko tokira
egiten ziran juan,
nai dizutet esan,
orain asko bezela
deskuidatu ziran;
Ebak ale bat artu,
berak erdiya jan:
«Tori beste erdiya,
artu zazu, Adan!
Iya probatu zazu
zeñen ederra dan!».

(1) Paperean: *debekatu ziyen*. Motx, beraz. Bañan 3/1 ta 5/6'an *ziyoten* dago. Orrela, neurrian ondo dago; Altza aldean ere ala esaten da, ta bertsolariak ala jarriko zuan. Orregatik, orrela idatzi degu. Bañan beraxeago *ziyen* dago: *orduan eman ziyen*. Olakorik egiten badakite bertsolariak: kome-ni zaienean era bat, ta etzaienean bestea.

8/ Bertsuak jarri ditut
denak ikasteko,
adierazteko,
borondatia badet
nik erakusteko;
desiua zeukaten
elkar ikusteko,
alakuak ziranik
etzuten usteko, (2)
gero erroparikan
etzuten jazteko.

9/ Elkar ikusi eta
zeuden lotsatuak
eta penatuak,
piko-ostuarekin
biyek tapatuak;
oker egin da gero
zeuden damutuak,
ortaratu baño len
atera kontuak.
orra zer ondoria
duen pekatuak.

(2) Paperean: *etzuen uzteko*.

10/ Probatu zuteneko
beldurak ikaran,
ezkutatu ziran;
Jaungoikua ejuka:
«Zer egin dezu, Adan?»
«Esango dizut bada
zer gertatu zaidan:
Zuk debekatutako
arbolatikan jan».
«Ta pekatua zala
ez al nizun esan?».

11/ Engañatu zituen
etsaien esanak
len ondo ziranak,
ta berentzako jarri
nekia eta lanak,
ta mantxatu ginduzten (3)
ondoreko danak;
merezi balu emango
genizkake famak,
orra zer egin zuen
lenbiziko damak. (4)

(3) Paperean: *ta mantxatu ginderaten.*

(4) Paperean: *tamak.*

12/ Pekatu egiñ azi
Adan ta Ebari,
badakigu ori,
ta oinpian burua
zanpatu berari;
mesere izugarriya
egin zigun guri,
indarra kendu ziyon
demoniyuari,
eskerrak Jesus eta
Ama Birjiñari!

13/ Paradisua zuten
arbolaz betia,
on da esatia,
batetik debekatu
ziyoten jatia;
ortatik etorri zan
guretzat kaltia,
galdu zuten betiko (5)
munduko izatia,
ordutikan itxi zan (6)
zeruko atia.

(5) Paperean: *galdu zuten*; itzen bat palta dala-ta, *betiko* ori guk erantsia da.

(6) Paperean: *ordundikan itxi zan*.

14/ Oiek pekatu egin
zuten mediante,
ala esaten dute,
ortatik etorri zan
guziyentzat kalte;
kastigatu zituen
mundukuak fuerte;
itxita pasa zuen
makiña bat urte,
Jesus il da zerura
iyo zan arte.

BERTSO BERRIAK
ZAPIRAIN'DAR JOSE'K JARRIYAK
AMERIKETARA

Jarri-aldi au karta bat da; Ameriketako Segunda izeneko bati bertsolariak egiten dion eskutitza.

Segunda ori nor ote zan? Zapirain'en seme Salbadorrek erantzun dio galdeera orri.

Aitaren koñata omen zan; bere amaren aizpa, alegia, Frantzesillaga-zarra baserriko alaba.

Len ere esanda daukagunez, baserri ori Errenderi'ko partean dago, Astigarraga'ko bentatik Landarbaso aldera artu ta andik berreun bat metrora.

Ameriketara joan zan Segunda ori; ta an ezkondu, pamelia azi ta onera geiago gabe il.

Arako prestatu zanerako, Joxe Zapirain eta bere emazte bearra adiskide egin eta ezkondu-asmotan zebiltzan. Orregatik, Segunda orri azken agurra egiteko avarian,

Joxe ere an omen zan eta bertso batzuek kantatu ere egin zituan.

Sail ontako amargarren bertsoak onela dio:

Arrats batez partitu
giñan iru lagun...

Joxe, Maria bere emazte bearra ta Segunda izango ziran.

Apari orretara gonbidatu bazuten, etxekotzat artua zutela esan nai du; ta ala, guk uste, Joxe eta Mariaren ezkontza ere, pranko alderatua egongo zan.

Txeetasun onek badu bere esan-naia: bertso auek noizkoak diran somatzen lagunduko digu. Amaikagarren bertsoan onela esaten baita:

jon ziñala badira
ogei ta sei urte.

Len esan bezela, Joxe ta Maria 1904. VIII.27'an ezkondu ziran. Segunda zerbait aurretik joan bazan, urtearen asiera-edo izango zan. Ta, ogei ta sei erantsita, 1930 urtea degu.

Ain zuzen, seigarren bertsoan onela esaten da:

beatzi semerekin
guraso bakarrak...

Alargundu ondorengo bertsoak, beraz. Ta, len ere esanik dagoanez, emaztea 1919.II.28'an il zitzaion.

Zortzigarrenean, berriz, onela dio:

semeak dadukaizkit
bastante aziyak...

Ta zazpigarrenean:

batzuek or dabilta
soldadu serbitzen...

Ta lau seme zarrenen kinto-urteak, 1926, 1927, 1928 ta 1929 izandu ziran.

Beraz, len esan bezela, 1930 urte-inguruan jarriak izango ziran bertso auek.

☆ ☆ ☆

Errenderi'ko Makazaga'k bertso-papere-tan inprentatu ta zabaldu zituan; papere-ren alde batean onoko auek, eta beste aldean *Intxauspe* dalako batek Arantzazu'ko Amari jarritakoak.

Bañan moldiztegi-utsegite bat dala us-te degu; bigarren sail ori, oker ez bana-go, Orio'ko *Itxaspe* baserriko seme batek jarri baitzituan; Iraztortza abizena.

Makazaga'k bi argitaraldi egin zituan; dana berdin bietan, tinta-kolorea ta 2/9'an izan ezik. Emen batek onela dio: *estima-*

tuet nitzaz; eta besteak: estimatuaz nitzaz.
Guk bigarrenari jarraitu diogu.

Paper oiek gure eskuetaraño etorri ziran, bañan zeñek emanak ziran guk apuntatu ez.

☆ ☆ ☆

Bertsolariak etzituan bertso auk inprentara bialdu; berak ezer etzekiala argitaratu zituan Makazaga'k. Joxeren seme batek, Manuelek, kontatu digu nola gertatu zan ori:

«Urte batez, Lezo'ko fiestetara joan nintzan; eta an gizon bat, bertsoak kantatu ta paperak saldu ari zan. Alderatu ta aitaren bertsoak kantatzen zituela konturatu nintzan. Galdeera egin nion:

—Gure aitarenak dira bertso oiek! Nondik dituzu?

Ez baitet uste publikatuak ziranik. Eta arek erantzun zidan, Usurbil'koa-edo zala, eta Ameriketatik bialduak zituela.

Gero, etxerakoan, kasua zeatu nion aitari ta onela esan zidan:

—Segundak bialiak izango dizkik!

Gure amaren parienteak izan bear zuten Usurbillen edo or nunbait, eta gure amaren aizpak bere zea oietara bialiak izango ziran».

- 1/ Abisatzera nua
emendikan ara,
koñata ta koñadu
ta illobetara;
itz egiten badakit
piska bat euskera,
bertso berri batzuek
biar ditut para,
baita bialdu ere
Ameriketara.

- 2/ Pentsatu det bertsuak
zuri bialtzia,
akaso baliteke
birian galtzia;
fortunatutzen bada
allegatutzia,
fabore egin biar
dezu letutzia,
estimatuaz nitzaz
akordatutzia.

- 3/ Ni European bizi naiz
ta zu Amerikan,
ez det ezagututzen
zure umerikan,
ta zuk ere apenas
nere semerikan;
ez degu galdu biar
lengo legerikan;
pazientziya artu zagun,
ez da oberikan.

4/ Segunda, laister dizut
adieraziko,
bertsuak bialtzia
ez det lenbiziko;
partitu giñan geren
denbora guziko,
ni emen eta zu or
gerade biziko,
noski munduban elkar
ez gera ikusiko.

5/ Segunda, biyotzetik
maite zaitut oso,
argatik egin dizut
orrenbeste kaso;
egin nitzan beatzi
semian guraso; (1)
bide luzia dago
legor ta itxaso,
bisita egingo nuke
balego eroso.

6/ Beatzi semerekin
guraso bakarrak,
nik ikusi izan ditut
istillu gogorak;
bire luzia dago
ura ta legorak,
alperrik dira gure
pena ta negarrak:
elkar ikusi gabe
gera ill biarrak.

(1) Bertso-paperak: *semiaren guraso*.

- 7/ Segunda, zaude zu or (2)
bertsuak aditzen:
bakarrik, badakizu,
ondo ezta gelditzen;
ari naiz familiya
ederra azitzen,
batzuek or dabilta
soldadu serbitzen,
erakutsi dirate
begiyak argitzen.
- 8/ Adituko ziñuben
gure notiziyak,
nolakuak ziraden
nere desgraziyak;
semeak dadukaizkit
bastante aziyak
osasuna daukate (3)
Jaunari graziyak,
nik ere alderdi txarrak
ez ditut guziyak.
- 9/ Nola partitu ziñan
gurekin gau batez,
aztu bazaizu ere
akordatu zaitez:
ni aldrebestu nitzan
betiko suertez,
ala biarko zuan
duda gabe nai t'ez;
Segunda, ondo bizi
orain nere partez.

(2) Bertso-paperak: *Segunda, zaudezu zu;* bertsolariaren semeak esan didatenez, or goien jarri degun bezela bear du.

(3) Bertso-paperak: *osasuna daukate.*

10/ Arrats batez partitu
giñan iru lagun,
ni akordatutzen naiz
beti gau ta egun;
ez dakit Jaungoikuak
lagunduko digun,
bata bestiarentzat
errezatu zagun,
ia zeruan elkar (5)
billatutzen degun.

11/ Segunda, biyotzetik
maite zaitut firme,
ni akordatuko naiz
bizi naizen arte;
jon ziñala badira
ogei ta sei urte,
eta egin zenduben
bastante suerte;
desio dizut eta
ondo bizi zaite.

12/ Pariente danetan
zabaldu da sona,
jakindu det fameli
ona daukazuna;
ez det ezagututzen
nik zure gizona,
Jaungoikuak dizula
arren osasuna,
ondo konserbatzeko
aberastasuna.

(4) Bertso-paperak: *ia zerua elkar.*

ZARRAREN PASADIZUAK

JOSE ZAPIRAIN'EK JARRIYAK

Bertso auek, *Bertsolariya* aldizkarian agertu ziran, 22'garren zenbakian, 1932'eko Otsaillaren 14'an.

Izenburua, or goien jarri degun ori be-
ra dute *Bertsolariya*'n ere, eta orixe da
gaia.

Berrogei ta emezortzi urte zituan or-
duan Joxe ZapiRAIN'ek, eta agidanean be-
re buruari zarra irizten zion, edo zartzen
asia beintzat. Ala ere, beste ogei ta sei
urteko bizia izango zuan.

Beraren seme Manuelek esan digunez,
bertso auek jarri zituan garaian, izan zuan
bere makal-aldia aitak; gero askoz bizko-
rrago ibilli omen zan.

1/ Pentsamentua badet
bertsuak jartzeko,
kontu politak dira
goguan artzeko:
guziyak desiua
badegu zartzeko.
iñork ez du gogorik
gazterik iltzeko.

2/ Urtiak juan eta
egin gera zartu,
begi-bista juan ta
belarriyak gortu,
belaun-gozo txarra ta
junturak gogortu;
alare eziñ gera
munduban aspertu.

3/ Zartziak oek danak (1)
ekarritzen ditu:
arpegiko bizarra
ta illia zuritu,
burua nastua ta
memoriya aitu,
geiago're badira
esango banitu.

(1) *Bertsolariya'n: Zartziak dek danak.*

4/ Ortzak ere nigandik
dira aldegiñak,
oiek bezela igual
juan ziran agiñak,
nonbait etziralako
betiko egiñak;
sentiduak kontatzen
badaki mingañak.

5/ Gaztetako umoria
etzait oso aztu,
oraiñ biyotzik eziñ
ezerekiñ poztu;
gorputza motela ta
odoletan oztu,
zartziak ezer ere
gauza onik eztu (2).

6/ Orra nolakua dan
zartutako martxa:
alderdi guzietan
zikiña ta mantxa,
gustora izateko
bizi-modu motxa,
exertzen dan tokitik
zutik eziñ altxa.

(2) *Bertsolariya'n: ez du.*

7/ Ez gera akordatzen
sasoi degun arte,
oraiñ aldiz aurretik
emango det parte:
gaztetasunak ditu
ogei ta amar urte,
orduan egoten da
gorputzetik fuerte.

8/ Gaztia ibiltzen da
alai eta parrez,
zergatik umoria
sortzen duen errez;
danen berri badaki
iltzen danak zarrez,
azkenian tristura
kontsuelo orde.

9/ Aurki irurogei urte
nere edaria,
juan da dibertsiyua
eta umoria;
arpegiya ximurra,
txarra koloria,
biyotzian tristura
eta doloria.

- 10/ Ez dirizkiyot ori
gezurra danikan,
gaztiak ez daukate
orlako lanikan;
biyotzetikan eziñ
atera penikan,
zartziak ezer eztu
alderdi onikan.
- 11/ Bizi-modu ori zer dan
nago ikasiya,
zarraren izaera
pranko itsusiya;
istimaziyo txarra
t'ezñ ikusiya,
badaka naiko lana
eta desgraziya.
- 12/ Ez genduke egin bear
orrelako gauzik, (3)
gero zer datorkigun
ez ematen trazik;
istimaziyo txarra
ta ikusi nai ezik;
gaztiak, zartutzeko
ez eduki pozik.

(3) *Bertsolariya'n: orlako gauzik.* Neurrirako motx xamar, beraz. Orregatik, *orrelako gauzik jarri degu.*

13/ Au da gaztientzako
akordagarriya,
egiya esatia
ez da pikardiya;
ara zartuta askok
daukan alderdiya:
ospitalera edo
mixerikordiya.

14/ Orra pasadizua
kontatu zarrena,
aiek danak juntatzen
dira alkarrena;
gorputza baldarra ta
anketik errena,
ezaguera galtzia
ori da txarrena.

GORA EUSKERA!

Bertso auek, euskera dute gaia; ainbeste ta ainbeste bertsolarik erabili duten gaia, alegia. Izan ere, euskeraren egoera larria, euskaldun danok biotzean daukagun zauri minbera bat da; ta bertsolariantzat are minberagoa noski.

Iru tokitatik ditugu bertso auek: *Bertsolariya* aldizkaritik, 44 zenbakian, 1932. VII.17'an; Aitzondo'ko kuadernotik eta *Nere bizitzako bertso batzuek* izeneko liburuxkatik.

Izenburu bera dago iru toki oietan; orgoien jarri deguna alegia.

Bertsolariya'n amabost bertso agertu ziran; kuaderno eta liburuxka oietan, berriez, amabi daude: 13, 14 ta 15'garrena palta.

Ta noizkoak ote dira bertso auek? *Bertsolariya'n*, esan bezela, 1932.VII.17'an agertu ziran, eta ordukoxeak izango dira.

1/ Bertso batzuek jartzera nua
eusker a dala meriyo,
orreatikan daukat biotza
oso triste ta seriyo;
lur jotzeraño bajatu da ta
piska bat nai det gora iyo,
nik lagundu nai nuke baño
bakarrik ez det baliyo.

2/ Bertso batzuek jartziagatik
orain asi naiz benetan,
atzeritarrak ikusten ditut
nabillen leku danetan.
Euskera baño garbiagorik
ote da mundu onetan?
Iya galduan dabil lelako
biotza daukat penetan.

3/ Lengo izkera aztuta orain
ikasi dute berriya,
orain oinpian artu biarra
da gauza penagarriya;
orreatikan daukat biotza
tristeturikan jarriya,
iya galduan dabil lelako
eusker a maitagarriya.

- 4/ Nere biotza ez da arkitzen
konsueluak poztuta,
guziyak igual ezin juzkatu
askok kulparik ezta;
orain erderaz ikasi dute
euskeraz oso aztuta,
orra zer lanak egin dituzten
atzerritarrak nastuta.
- 5/ Orra zertatikan etorri dan
gure arteko nastia:
asko lekutan ikusten ditut
senarra ta emaztia,
esan derana, bat euskalduna,
atzerritarra bestia;
orreatikan dago euskera
penatua ta tristia.
- 6/ Batzuek gogor egiten degu,
oraindik ez da soill galdu;
baño segitu eziñ duela,
ainbesteraño da auldu.
Zuraitz aundiyak beste txikiya
nola egiten du itzaldu?
Au ere ala jarriya dago,
eziñ liteke azaldu.

7/ Esango ditut pasadizuak
asi ezkerro beiñ ola,
segira onetan aguantatzia
ez da posible iñola:
badakizute mudatzen dala
txertatutako arbola,
oi bezelaxe nastua dago
euskaldunaren odola.

8/ Euskera ori sortu zutela
makiñatxo bat urte da,
ta au dan baño zarragorikan
munduan iñor ote da?
Adar askoko arbol-klase bat
sortu zitzaigun tartera,
zañak daukazki ondo egiñak
ta ezin degu atera.

9/ Lenago aparte izaten zana
oraiñ daukagu urrian,
etorri eta sartu zitzaigun
euskaldunaren lurrian;
zañak daukazki ondo egiñak
ta eziñ bialdu aurrian,
morroi bezela etorri zan ta
nagusi nola jarri'an (1).

(1) Aitzondo'ko kuadernoan, *Bertsolariya'n* eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkan *jarri dan* dago. Bañan punturako *jarri'an* bear du, eta esan ere orrela egiten da.

10/ Borondaterik iñork badauka
orain nijua eskera:
aztutzen utzi biar ez degu
guraso zarren izkera;
ainbeste urte gure tartian
bizitu zeran euskera,
orain laguntzen ezpadiyogu
ondo portatzen ez gera.

11/ Ni borondate osuan nua
bertso berriyak jartzera,
nere aldetik saiatuko naiz
al derana laguntzera;
gure euskera maitagarri au
etzagun utzi galtzera,
Jaungoikuaren laguntzarekin
indartuko da atzera.

12/ Askok ez dute aditu naiko
euskerazko arguyuak,
pena izateko ainbeste badu
Kantabri ontan jayuak;
au galdu nayik egiñ dituzte
izugarrizko sayuak,
laguntzalliak baño geiago
daukazki kontrariyuak.

- 13/ Asko dira euskarazko itzik
 nai ez dutenak aditu;
 au galdu nayik saiatzen dira,
 kontrariyuak baditu.
 Zerbait geiegi kontatu gabe
 nik obeko det gelditu, (2)
 geiago ere esango nuke
 laguntzalliak banitu.
- 14/ Asko lekutan pentsatu dute
 batzoki oiek jartzia,
 iruritzen zait gauza on dala
 onetakuan sartzia;
 lastima dala badakizute
 gure izkera galtzia,
 orrengatikan pensatu degu
 euskera indartutzia.
- 15/ Gure izkeraz ez giñan iñor
 askorik urrikaldutzen,
 bestela ezin utzi ziteken
 oinbesteraño aulduzen;
 orain batzuek, erori gabe,
 asi gerade eldutzen,
 «Gora euskera!!» oju egin zagun, (3)
 etzagun utzi galdutzen.

(2) *Bertsolariya'n: nik oteko det gelditu.* Zapirain'en seme Salbadorrek, *obeko* bear duala esan digu. Ola bai; ola esan-naia ederki artzen zaio.

(3) *Bertsolariya'n* bakarrik dago bertso au, eta emen "Gora Euzkadi!" dago. Zapirain'en seme Sal-

(1932)

GURE FEDE SANTUAREN ALDE
JOSE ZAPIRAIN'EK JARRIYAK

Bertso-sail au, *Bertsolariya* aldizkarian agertu zan, 41 zenbakian, 1932'eko Gargarrillaren 26'an, ta or goien jarri degun izenburuarekin agertu ere. Ta beste inon ez ditugu bertso auk arkitu.

Izenburuak ederki adierazten du gaia. Errepublik-denbora zan, eta, agidanean, Joxe Zapirain'en iritzirako, gauzak etzi-joazen zuzen, erlijioaren aldetik beintzat; aren gustorako, saltsa mintzen asia-edo.

Bigarren bertsoak onela dio:

jesuitak beali
dituzte igesi.

badorrek esan digunez, ez da orrela; "*Gora euskera!*" omen da. Ori da bertso auen gaia, eta orrekin bukatu. Amabosgarren bertso onetan ere, euskeratik ari da: artaz urrikaltzen ez gerala; aulduta dagoala; bañan batzuek eldutzen asi dirala ta ez degula galtzen utzi bear. Ta, ori dana esanda, "*Gora euskera!*" batekin bukatu bear...

Errepublikak, 1932.I.23'eko agindu batez erbestera zituana; bertso auek, berriz, 1932.VI.26'an argitaratu ziran; orregatik, bitarte ortan jarriak izango dira.

1/ Bertso berri batzuek

bera ditut jarri,
gu gabiltza larri;
apaiz ta jesuitak
daude penagarri;
zer iria daukaten
begiratu orri,
gauza onik ez dala
diyogu igarri,
ta Jesusen legia
galduko da sarri.

2/ Orain zer gertatzen dan

kontatzen naiz asi,
nai dunak ikasi,
ortarako laguntza
eskatu Jesusi;
ondo dakitenak nai
ez dute ikusi,
orain gaxtuak jarri
zaizkigu nagusi,
jesuitak beali
dituzte igesi.

3/ Oiek bear zutena
traidoriak jan du,
sinistiak lan du; (1)
zuten irabaziya
apaizari kendu;
oiengatik biarko
norbaitek mantendu,
ai zer gauza ederra
egingo bagendu,
premiyan dagonari
al dana lagundu.

4/ Euskalduneri kendu (2)
digute indarra,
esan biat, orra!
Pasadizu au daukat
kontatu biarra:
makiña bat lekutan
badago negarra,
oso galdu nai dute
lengo lege zarra,
berriya jarri dute
baño oso txarra.

(1) *Bertsolariya*'k: *sinistia lan du.*

(2) *Bertsolariya*'k: *Euskaldunei kendu; neurri-
rako: Euskalduneri kendu.*

5/ Ez erakutsitzeko
eskolan dotriña,
zer lege zikiña!
Katolikuentzat ez
da ondo egiña;
orra nolakua dan
gaxtuaren griña;
biotzetikan artu
intentziyo fiña,
nor bere aldetikan
saiatu alegiña.

6/ Errezatutzen ere
nai ez dute utzi,
ziñatzen ain gutxi;
zerurako bidia
nai digute itxi;
Jesus gu salbatzera
mundura zan jatxi,
orain aren legia
dute galerazi;
ona galdu nai dute,
gaxtua erakutsi.

7/ Askok esaten dute (3)
ezin litekela
ametitu ola;
galdu nayik dabilta
fedeko eskola;
gaxtora erakutsi
gaztiak dirala,
berak nai badute or
konpon ditezela,
ta guri ere utzi
nai degun bezela.

8/ Lasaikeriyarekin
dabilta poztuak,
fedia oztuak; (4)
biziyo-klase denak
dituzte nastuak;
olakuak ez dira
persona justuak,
engañatutzen ditu (5)
munduko gustuak,
anima badute ere
dabilta astuak. (6)

(3) *Bertsolariya'k: Asko esaten dute.*

(4) *Bertsolariya'k: fedia ostuak.*

(5) *Bertsolariya'k: engañatzen ditu.*

(6) *Bertsolariya'k: dabilta astuak.*

9/ Trabatuaak dabilta
etsaien katian,
animen kaltian,
beti gaizki esaka
abua betian.
Zer egin biar dute
Arena juatian?
Kargu egingo diye
egunen batian;
ez daukate sartzerik (7)
zeruko atian.

10/ Gaztiak eta zarrak
egin zagun kontu,
beira etsaiak lotu,
gero denbora joanta
ez dedin damutu;
Jainkoa ofenditzia
dalako pekatu,
kristabak geradela
etzagun ukatu;
fede ontan nai degu
mundua bukatu.

(7) *Bertsolariya*'k: *sarturik*; bertsolariaren semeak esan didatenez, *sartzerik* bear omen du.

11/ Oi da gaiztakeriyan (8)
erakusitzia, (9)
legiak galtzia;
posible elitzake
ola burutzia:
dotriña galerazi,
kendu gurutzia;
obe degu Jainkoaz
akordatutzia,
fede ontan nai degu
bizi ta iltzia.

12/ Orra gaxtua oiek
daukaten iria
gaizki ateria:
oiek nai lutekena
da libertaria;
lagundu zaiguzute,
Jesus ta Maria,
anima salba zagun
bakoitzak beria,
penatzen pasa gabe
eternidadia.

(8) *Bertsolariya*'k: *Oi da gaiztakeriyan*.

(9) *Bertsolariya*'k: *erakustia*; bertsolariaren semeak: *erakutsitzia*.

BERTSO BERRIYAK
ZAPIRAIN'TAR JOSEK JARRIYAK

MIXIOA

Amairu bertso auek, Errenderi'ko Pello Zabaleta bertsolaria zanaren eskutik jaso genduan kanta-paper batetik ditugu. Ez da moldiztegi-izenik ageri; bañan gure iritzirako, letraren itxuragatik-eta, Errenderi'ko Makazaga'k egindako lana da.

Onoko sail onek eta onen aurrekoak, zer ikusia badute alkarrekin: ango 8 ta 10'garren bertsoak, eta emango 11 ta 12'garrenak, ia berdiñak dira; baita ere ango 9/10-11 ta emengo 6/9-10; ango 11/8-11 ta emengo 13/7-10; ango 12/8-11 ta emengo 1/7-10.

Zeñek zeñi kopiatu dio? Alegia, bi sail auetan zein ote da zarrena? Ezin esan; bañan garrantzirik gabeko auzia derizkiogu.

Mixio-bertsoak dira auek, bañan nungo ta noizko mixioa? Noizkoa dan ezin erabakiko degu; nungoa bai ordea, Saiburu

bertsolariaren seme dan Anjel Lujanbio'ri eskerrak. Errenderi'koa omen da. Ta argibide ori eman ezik, bi bertso ere kantatu zituan: 2 ta 3'garrena. Ta doñu ez-ezaguna baitzan, ona emen solfeoz, bertsoen aurretik:



1/ Bertsuak jarritzeko
dadukat iria,
oien mingaÑak badu
abillidadia:
erakutsi digute
zerura biria,
anima salba zagun
bakoitzak beria,
penetan pasa gabe
eternidadia.

2/ Adierazi digute
kulpitutik danai:
elkarrekin izateko
arriba ta anai;
ondo portatu dirala
esango det nonai;
utzi biziyua ta
pekatuko lanai,
betiko inpernura
ezpadegu jua nai.

3/ Jakiñaren gañian
danak gaitu jarri,
zer esplikatu duten
esango det sarri:
dantzatutzen dirala
oso lotsagarri,
arguriyo txarrak
esanaz alkarri;
anima entregatzen
diye Luziferri.

4/ Danak aditu degu,
zarra ta gaztiak:
elkar estimatzeko
bat eta bestiak,
ondo konpondutzeko
senar-emaztiak,
pekatutik atera
anima tristiak,
ez duela baliyo
geroko uztiak.

5/ Guziyak badaukagu
aingerutxo bana,
anima gordetzeko
Jesusek emana;
munduan sufritzen du
makiña bat pena,
anima konbertitzen
badaduka lana,
ez luke biali nai
Luziferrengana.

6/ Gorputza ibiltzen du
animen kaltian,
akordatuko zaio
egunen batian;
ai, purgatoriyoko
su-garren artian,
pekatuaren mantxak
garbitu artian,
ez daukagu sartzerik
zeruko atian.

7/ Gizon eta andriak,
mutil ta neskatxak,
danari arrapatu
dizkigute tatxak;
zertan faltatu degun
dakigu bakotxak,
utzi biziya ta
pekatuko martxak, (1)
ondo garbitutzeko
zikiñaren mantxak.

8/ Utzi alde batera
daukazkigun griñak, (2)
erremediatzeko
lengo utsegiñak;
engañatutzen gaitu
munduko atsegiñak,
gorputzak daukazkigu
dotore apañak,
baño kontzientziyak
geiena zikiñak.

9/ Munduan asko gera
inbiriosuak,
katolikuak eta
relijiosuak:
beñere gauz onik ez
lujuriosuak;
atentziyoz aditu
oraingo bertsuak,
gero ez gaitzan erre
inpernuko suak.

10/ Erakutsi digute
guri mixiyuak:
ez aztutzen uzteko
oien leziyuak;
bai eta eman ere (3)
edukaziyuak;
utzi pekatuba ta (4)
lengo biziyuak,
ibillera gaiztua
ta maldiziyuak.

11/ Lasaikeriyarekin
gabiltza poztuak,
biziyo-klase danak
dauzkigu nastuak;
alakuak ez dira
persona justuak,
engañatutzen gaitu
munduko gustuak,
anima badegu're
gabiltza aztuak.

12/ Zarrak eta gaztiak
egin zagun kontu,
gero denbora juanta
ez gaitzan damutu;
Jainkua ofenditzia
dalako pekatu,
kristabak geradela
etzagun ukatu,
fedea ontan nai degu
mundua bukatu.

13/ Posible ez litzake
ola burutzia,
pazientziyan pasa
geren gurutzia;
Jesusek nai badegu
gero laguntzia,
obe degu Jainkuaz
akordatutzia,
fede ontan nai degu
bizi ta iltzia.

(1) Bertso-paperak: *mantxak*; orrela poto da, ta moldiztegiaren utsegiteren bat izango da. *Martxak* jarri degu, ala bearko dualakoan eta 265 orri-aldean bertso onen berdintsua dago ta *martxak* diolako.

(2) Bertso-paperak: *daukagun*. Gaizki dago ori, bai neurrirako ta bai gramatikaz. Orregatik, *daukaz-kigun* jarri degu, beeraxeago ala baitago.

(3) Bertso-paperak: *baita eman ere*.

(4) Bertso-paperak: *utzi pekatuba*.

ALTZA'KO ELIZAN

Bertso auek, noiz egin zan ez dakigun Altza'ko mixio bati jarriak dira. Aitzondo'ko kuadernotik eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik artu ditugu bertsoak. Izenburua ere, liburuxka orretatik artua; Aitzondo'ko kuadernoak ez du olakorik ezer. Emengo bost bertso: 2, 3, 6, 7 ta 8'garrena, eta aurreko saillaren beste bost: 10, 4, 1, 2 ta 3'garrena, berdintsuak dira.

- 1/ Askok aditu degu
Altza'ko elizan
gu salbatziagatik
Jesus nola il zan;
ai, eriyotzarentzat
kuidadua izan;
asko aldiz digute
pulpitutik esan
nola etorriko dan
lapurraren gisan.

- 2/ Erakutsi digute
Altzan'n mixiyuak,
ez aztutzen uzteko
aien leziyuak:
zer ekarriko digun
gure sesiyuak,
utzi gorrotua ta
lengo biziyuak,
ibillera gaixtua
ta maldeziyuak.
- 3/ Denak aditu degu,
zar eta gaztiak:
alkar estimatzeko
bat eta bestiak,
ondo konpondutzeko
senar-emaztiak,
pekatutik atera
anima tristiak,
eztuela baliyo
geroko uztiak.
- 4/ Akordatuko zaigu
egunen batian,
baño eztu baliyo
denbora juatian;
beti ibilli gabe
animen kaltian,
iya, pekatariyak,
akorda gaitian
sartu baño lenago
etsaien tartian.

5/ Zertan faltatzen degun
dakigu bakoitzak,
danari arrapatu
dizkigute tatzak;
gizon eta mutillak,
andre ta neskatxak,
utzi biziyua ta
pekatuko martxak,
ondo garbitutzeko
zikiñaren mantxak.

6/ Oien mingañoak badu
abillidadia,
erakutsi digute
zerura biria;
anima salba zangun
bakoitzak beria,
artu damutasuna
eta doloria,
zer dan ondo pentsatu
eternidadia.

7/ Adierazi digute
pulpitutik denai
elkarrekiñ izateko
arriba ta anai;
ondo portatu dirala
esango det nun-nai;
utzi gorrotua ta
pekatuko lanai,
betiko inpernura
ezpadegu juan nai.

8/ Jakiñaren gañian
denak ditu jarri,
zer esplikatu duten
esango det sarri:
dantzatutzen dirala
oso lotsagarri,
arguriyo gaixtuak
esanaz elkarri,
anima entregatzen
diyo Luziperri.

9/ Erakutsi digute
inpernuko berri:
gorputza ta anima
dabiltzala larri.
«Ai, madarikatua!
—esanaz elkarri—
Zu zerala meriyo
naiz onera etorri!
Luziperren mendian
nola geran jarri!»

10/ Zer obligaziyuak
dauzkan gurasuak,
eziñ zuzendurikan
umien pausuak!
Erremate gaixtua
lujuriosuak,
gero erreko ditu
inpernuko suak;
onekiñ bukatutzen
dirade bertsuak.

AMAR MANDAMENTUAK

Bertso aukeratuak ere, Aitzondo'ko kuadernotik eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik ditugu. Izenburua ere, liburuxka orretatik berezia; Aitzondo'ko kuadernoak ez baitu olakorik izaten.

- 1/ Motiborikan asko badaukat
katak jarriko banitu,
ta erakutsi biar dizutet
Jainkua nola serbitu;
kristandadeko mandamentuak
amar jarriyak baditu,
esango ditut nola diraden
nai badezute aditu,
ikasi faltan geroko gaizki
inor eztedin gelditu.

2/ Lendabiziko irurak dira
Jaungoikua ondratzeko,
eta urrengo zazpiyak berriz
projimua serbitzeko;
mandamentuak eman zizkigun
bakoitzari beretzako,
oietakorik faltatu gabe
osorikan gordetzeko,
bat galdutzia naikua degu
anima kondenatzeko.

3/ Lendabiziko mandamentua
Jaungoikua amatzia,
eta fabore egiñ dezagun
gutxitan ofenditzia;
lastima dala badakizute
anima kondenatzia,
Jaungoikuari oinbeste kostatza
etsaietara saltzia;
obia dala iruritzen zait
Berari entregatzia.

4/ Bigarrenian premiya gabe
ez egin juramenturik,
Jainkuarena baldin badegu
iñork akordamenturik;
orretarako eztegu biar
eduki pentsamenturik;
ezpaldin bada emen gordetzen
Kristoren mandamenturik,
alakuentzat ezterizkiyot
izango dala zerurik.

5/ Irugarrena meza osua
entzun 'ez egiñ lanikan,
asko ibiltzen geran bezela
premiya gabetandikan;
animarentzat ezterizkiyot
ori mesere danikan;
ezpaldin bada emen egiten
Jainkuaren esanikan,
geretzat ezta alkantzatuko
zeruko ondasunikan.

6/ Laugarrenian errespetua
ekarri aita ta amari,
orretarako laguntasuna
eskaturikan Jaunari;
aditzera au ematen diyot
premiya dadukanari.
orra nik esan nola segitu
fedea santuko lanari,
salbaziya emango diyo
ondo portatzen danari.

7/ Bostgarreneko obligaziya
degu inor ez iltzeko,
okasiyoko peligrotikan
al bada apartatzeko;
obligatuak gaude munduan
elkarri obeditzeko,
oponiyorik ez degu biar
projimurikan galtzeko,
eta orixen egiñ biagu
zerua irabazteko.

- 8/ Lujuriako pekatutikan
ibill gaitezen kontuan,
nai ezpadegu betiko sartu
inpernuko tormentuan;
engañatuak eztegu biar
munduko gozamentuan;
itzez ta obraz eta desioz,
gañera pentsamentuan,
anima asko ofenditzen da
seigarren mandamentuan.
- 9/ Zazpigarrena ezer ez ostu
projimuaren kaltian,
eta bakoitza beriarekiñ
aprobetxatu gaitian;
gure anima jarri dezagun
estadu eder batian,
trabatu gabe ibil gaitezen
etsai gaixtuen tartian,
gero okerrik izan eztediñ
beste mundura juatian.
- 10/ Zortzigarrengo mandamentuan
askok degun biziya:
testimoniyo faltsua eta
gezurrezko traiziyua;
nork bere tatzak besteri eman,
au da murmuraziyua;
bata bestia ama dezagun
maiz egin oraziyua,
alkantzatzia nai baldin bada
betiko salbaziyua.

11/ Beatzigarrena, nere kristabak,
eztegu aztutzekua:
projimuaren emazterikan
ez desiatutzekua;
oponiyua izan biagu
elkar estimatzekua,
Berak graziya emango digu
anima salbatzekua,
ori litzake bire zuzena
zeruan sartutzekua.

12/ Amargarrena besteren gauza-
rikan nai ez izatia,
projimo danak biar diyogu
elkarri borondatia;
alde batera utzi dezagun
etsai gaixtuen artia,
eta orduan artuko degu
Jainkuarekin partia;
orra nik esan nola iriki
zeruetako atia.

LEN AMAR LAGUN GIÑAN ETXIAN

Onoko bost bertso auek, Aitzondo'ko kuadernoan eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkan arkitu ditugu. Bertso guziak berdin dituzte, moldiztegi-utsegite bat edo beste izan ezik.

Aitzondo'ko kuadernoak izenbururik ez du; or goien dagoana, guk liburuxka orretatik artua degu, eta onek saillaren lenengo bertsoatik berezia du.

Len amar lagun etxean, eta orain iru bakarrik. Orrek samintzen du Zapirain'en biotza; eta pena orrek eraginda, bertso auek jarri.

Etzetik falta diranak nola sakabana-tuak diran, bigarren eta irugarren bertsoak diote:

bi seme illak, beste bi preso,
beste bi non dan jakiñ ez...

Preso dauden oiek nun diran, laugarren bertsoak dio: San Kristobal'en. Non diran ez dakien beste bi oiek, Bizkaira joanak ziran.

Bañan, len amar baziran eta orain iru, bat falta da, bertsoetan aitatzen ez dana ta etxetik kanpora bear zuana. Manuel da ori, kintak arrapatu ta soldadu zebillena. Etxean aitarekin ziranak, Joakin eta Jose Mari.

Oiek danak gerra-denborako kontuak dira; badakigu, beraz, bertso auek noizkoak diran.

1/ Sentimentu asko dauzkat nerekin
orain kontatu biarrak,
ez dakit nola zuzenduko'iran (1)
egin dituzten okerrak;
pazientzitik ez naiz atera.
Jaungoikuari eskerrak,
leku askotan jarri dituzte
tristura eta negarrak,
len amar lagun giñan etxian
ta orain iru bakarrak.

2/ Atentziyua izan zazute
nik esandako itzakin:
nere biotzik ezta poztutzen
dirua eta gauzakin,
eztakigu noiz jarriko geran
konsuelo ta pozakin;
bi seme illak, beste bi preso,
beste bi non dan ez jakin,
milagro ezta ni egotia
kuidado eta kezkakin.

(1) Kuadernoan eta liburuxkan: *zuzenduko diran.*

- 3/ Adierazi biar dizutet,
esango dizutet ziñez,
tristura ontatik iñola ere
apartatu al bagiñez;
atentziyua izan biagu
errezoko esko egiñez;
bi seme illak, beste bi preso.
beste bi non dan jakiñ ez,
nere biotza tristuran dago
ezin sendaturik miñez.
- 4/ Milagru ezta pena aundiya
izatia biyotzian,
negar-malkuak saltatzen zaizkit
iñoiz gogoratutzian;
ezeren mantxik eta batere
kulpagabek il zian,
beste bi preso Ondarretatik
San Kristobala joan zian,
zer kontatua izango dute
elkarrengana biltzian.
- 5/ Orra zer lana ekarri diran
nere semien paltiak,
ta ortatikan izandu ditut
familirako kaltiak;
ai, penosuek izandu dira
pasa ditudan urtiak,
kastigu oiek izandu dira
gogorak eta fuertiak,
emen izango al ditut arren
beste munduko partiak!

NERE BUKAERA

Bertso-sail au ere, Aitzondo'ko kuadernotik eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik artua degu. Aitzondo'ko kuadernoak izenbururik ez du; orriaren goenean jarri deguna, beste liburuxka orretatik onera aldatua da.

Auek ere gerra-denborako bertsoak dira. Orduan galdu ziran semeak, Jose Ramon eta Antoniok, eriotz aurrean izango zituzten sentimentuak adierazten dizkigute. Semeen izenean daude, bañan aitak jarririk izaki.

- 1/ Ez dakitenak badira eta
nua esaten astera:
onak gaudela ill biar degu
gaiztotu gabe osteria;
gu konfiantza onian guaz
mundu ontatik bestera,
egin ditugun obra ederrak
Jesusi erakustera.

2/ Derrepentian bukatu dira
gure munduko egunak,
orain baguaz eta adios,
adiskide ta ezagunak,
Jaungoikuari eskeñitzera
egin ditugun obra onak;
orain zeruan izango'itugu (1)
emengo partez lagunak.

3/ Orlakorikan pasako zanik
iñork etzuen usteko,
orain garaia allegatu da
mundu tristi au uzteko,
egin ditugun obra ederrak
Jesusi erakusteko,
ta suertia izandu degu
zerua irabazteko.

4/ Neurri gabia izan biar du
Jesusen borondatiak,
mundu onetan ondo ordaindu
pekatuaren kaltiak;
umiltasunak zabaltzen ditu
zeruetako atiak,
adios, aita eta anaiak
ta beste parientiak!

(1) Kuadernoan eta liburuxkan: *izango ditegu.*

Ernani'ko Pablo Zubiarrain'ek, *Ernani-Txikia* bertsolariak alegia, bialdutako paper batean, lau bertso oiek makinaz kopiatuta daude, bañan aldaketa auekin:

1/1: Ez dakitenak ikasitzeko; 1/3: onak
gerala il bear degu; 2/3: oraiñ baguaz eta
agur; 2/5: Jaungoikuari entregatzera; 2/6:
egindako obra danak; 2/7: emengo partez
orain zeruan; 2/8: izango ditut lagunak;
3/1: Orlakorikan pasako zala; 3/3: oraiñ
garaia iritxi da; 3/6: Jesusi eskeintzeko;
4/3: mundu onetan ongi ordaindu; 4/5:
umildadiak zabaltzen ditu; 4/7: agur, ai-
tatxo eta anaiak.

ONDO ILTZEKO PRESTATU

Dozena bertso au ere, Aitzondo'ko kuadernotik eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik artu degu. Bietan berdin daude bertso guziak.

Izenburua, kuadernoak ez du; liburuxkak, berriz, onela dauka: *Nere gogoko sentimentuak*, irugarren bertsotik berezita. Bañan ontan ez-ezik beste sail guzietan ere, bere gogoko sentimentuak adierazten ditu Zapirain'ek. Orregatik, ez diogu izenburu egokia irizten. Berria ta gaiari egokia, bertso berean, irugarrenean alegia, arkitu degu: *Ondo iltzeko prestatu*.

Onela gertatu zan, bertsolari onen semeak esan digutenez:

Gerra-denbora omen zan. Joxe, Erren-deri'ra kalera joan da etxera zetorrela, topo deritzaion tren txar orrek jo zuan, eta an inguruan zeudenak iltzat utzi zuten.

Bañan *Prantxesa* edo *Segari-Luxea* esaten zioten batek, onela esan zuan:

—Oraindik arnasa bazekak onek!

Ala, *Cuarto de Socorro*'ra eramán, an indizio batzuek sartu ta bizirik atera zuten. Burua dana lotuta ekarri zuten etxera. Berra etzan ezertaz oroitzen. Atzetik joa izan bear zuan.

Orregatik esaten du bertsoetan, olakorik uste gabe atera zala etxetik, eskapada la-tza egiña zala ta abar. Ta bere gertaera orretatik erakuspen bat ateratzen du: Beti prest egon bear degula.

- 1/ Orlako gauzik pentsatu gabe atera nitzan etxetik, adierazi biar dizutet lendabiziko itzetik:
Ama Birjiña, aparta nazu peligro edo gaitzetik,
Jaun Zerukuak libra gaitzala derrepenteko iltzetik.

- 2/ Peligrotikan apartatzeko agintzen digu dotriñak, eskarmentua sartu dit neri eskapa ori egiñak;
nere anima salbatutzeko egiteko alegiñak,
ta ortarako lagunduko dit zerutik Ama Birjiñak.

- 3/ Nere gogoko sentimentuak
nai ditut manifestatu,
inportantziko gauza da eta
kuidado asko kastatu;
aldez aurretik obeko degu
ondo iltzeko prestatu,
uste kabian etortzen da ta
ez gaitezela jostatu.
- 4/ Mundu onetan ibil gaitezen
atenziyoz ta kontuan,
itzez ta obraz eta desioz,
gañera pentsamentuan;
Jesusengana joan biar degu
azkeneko momentuan,
salbaziyorik eztu izango
iltzen danak pekatuan.
- 5/ Arrisku txarra du pekatuan
luzaruan ibiltzia,
orreatik da gauza biarra
aurretik prebenitzia;
askorentzako portunutzen da
derrepenteko iltzia,
ta orlakuak seguru dauka
anima kondenatzia.

6/ Pazientziyan sufri ditzagun
zenbait gaitz eta otz-bero,
ta ondorian zer datorkigun
esaten dizutet klaro:
gezurrarekin engañatzia
ez dezagula espero,
munduko gauzak zertako dira
anima galdu ezkerro?

7/ Zerurako ta inpernurako
aukeran dago biria,
ta nai deguna aukeratzeko
badago libertadia:
emen sufritu nai eztuenak
joaten da lasaikeriâ,
ez pentsatuko bagendu ondo
zer dan eternidadia.

8/ Jesukristoren legia degu
txuxena eta justua,
ori egiya izango dala
egon gaiten sinistua;
salbazyoko biria degu
meiarra eta estua,
onak zerura joango dira ta
inpernurako gaixtua.

9/ Ordu estua izango degu
eriyotzako trantzian,
zer ikara ta bildurgarriya
Jesus aurrian jartzian!
Gorputzetikan gure anima
kanpora ateratzian,
zer sentenziya izango ote dan
kontua entregatzian!

10/ Mundu onetan asko gabiltza
pekatutik pekatuâ,
ill ordurako eman biarra
bakoitzak bere kontua;
alakuantzat txarra izango da
Jesusen begiratua,
esango diyo: «Aldegin zazu,
gaixto madarikatua!».

11/ Jesusengana joaten bagera
anima garbiyarekin,
dudarik gabe ikusiko du
arpegi alaiarekin;
eta izketan asiko zaio
naitasun aundiarekin,
esango diyo: «Goazen zerura,
biziko zera nerekin!».

12/ Zuri laguntza eskatzen dizut,
Ama dolorez betia,
mundu onetan ordaindutzeko
pekatuaren kaltia;
desiatzen det nere anima
zerura eramatia,
orain onekin egiten degu
bertsuen errematia.

INPERNUA

Joxe Zapirain'en seme Manuelek, onela esan digu:

«Jai-egun batez, gure lengusu bat, Juan Krutz Ibarburu, aitaren arreba Mikaelaren semea, Loiola'ko Paskualdegi baserrikoa, Atotxa'ko praileetara joan zan mezetara.

Artean gerra bukatu berri xamarra zan eta meza ura, ildako gudariengatik ixilka aterea izan.

Gure lengusu ori, ez-jakiñean joan zan; bañan poliziak, an zerbait bazala-edo susmoa artu, ta etorri ta elizako jendea eraman egin zuan.

Garai artan, Donosti'ko Zapatari'n, *Inpernua* esaten dioten ortan, etxe aundi bat zan; gero ez da ola izandua, bañan orduan kartzela bezela usatzen zan. Ara eraman zuten jendea; berealaxe libratu zuten, bañan lenbiziko ara eraman: *Inpernura*.

Gure lengusu Juan Krutz ori, jaietan asko etortzen zan gure etxera; eta, ala, gure aitari zer gertatu zan kontatu zion.

Aitari gai polita iduritu zitzaion, ta bertso batzuek jarri zituen. Bera an izandu baltz bezela jarri; bañan bera ez, gure lengusua, bere illoba zan an izandua».

Zer esanik ez dago, *inpernua* itzak bertso-sail ontan bi sentidu, bi esan-nai dauzkala.

Bañan zergatik esaten diote *Inpernua* toki orri? Zapatariko Antonio Sorrondegik onela esan digu:

«Garai batean, Ameriketan izandako batek, taberna jarri zuan toki ortan. Andik barrena, garai artan, itzaiak ibiltzen ziran, beren idi ta gurdiakin. Orduko transportistak aiek baitziran. Ta, ardo-tragoxka bat edatera-ta, bide bazterreko taberna artan sartzen omen ziran.

Amerikano ura, Ameriketan fedea galduta-edo, eliza ta erlijioarengatik gaizki esaka aritzen omen zan beti. Ta itzaiak, aren izketa-moduaz arrituta, tabernari *Inpernua* jarri zioten izena».

Garai artan, etxe bakarra omen zan ura inguru artan; bañan, denborarekin, lagunak sortu zitzaizkan ondoan, eta orain ballara aundia dago an. Ta, len tabernari bezela, orain ballara guziari *Inpernua* esaten dio jendeak; baita erderaz ere: *El infierno*.

Bertso auek lau tokititik eskuratu ditugu: lenengo Aitzondo'ko kuadernotik; bigarren, *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik; irugarren, Altza'ko Patxi Otxoki'ren (Frantzisko Lazkano) kuaderno batetik; eta laugarren, Altza'ko Gazteluene'ko Jose Ramon Erauskin Lujanbio'k eman zigun makinaz idatzitako orri batetik.

Izenburua, liburuxka orretan, *Dozen erdi bat bertso* dago; bertso-sailla ala asten baita. Besteetan, batere izenbururik ez dago. Bañan dozen erdi bat bat baño geiago dira; zortzi alegia. Orregatik, ori kendu ta *Inpernua* jarri degu izenburutzat; gaiari ere obeki dagokiona da-ta.

1/ Dozen erdi bat bertso
biar ditut jarri,
denbora pasatzeko
entretengarri,
lenguan funtziyo bat
zutelako jarri,
eta zer gertatu zan
esango det sarri;
erakutsi digute
inpernuko berri.

- 2/ Entendimentutikan
nagola sanua,
ango pasadizua
esatera nua:
beñere etzait aztuko
orduko lan ua:
elizatik artuta
preso *inpernuâ*;
arren libra gaitzatzu,
Aita Eternua!
- 3/ Ango pasadizua
nua esatera,
eta sinistatzia
posible ote da?
Borondatez juan giñan
meza entzutera,
barrenan giñan denak
kanpora atera,
gero preso eraman
kartzela batera.
- 4/ Zer esatera nuan
au goguan jaso,
eta jende guziya
beldurtu zan oso:
esan dan funtziyu oi
izan dala kaso,
lagun asko giñaden
seme ta guraso,
elizan giñan danak
inpernura preso.

5/ Kontatu bear ditut
orduko kasuak,
aztu gabiak dauzkit
goguan jasuak;
guziyak arrapatu
gaitu erasuak,
katolikuak eta
relijosuak;
alare ez gaitu erre
inpernuko suak.

6/ Oiek egin dituzte
orrelako lanak:
presidiyuan sartu
elizara juanak,
nola emakumiak
igual gizonak;
berexi gabetandik
gaixto eta onak,
artu aurrian eta
inpernura denak.

7/ Batzuek izutu ta
bestiak beldurtu,
eta jendia zuten
oso gogor artu;
memori ona daukat
naiz pixka bat zartu,
oien aziyua iñork
ez lezake partu:
bizirikan geundela
inpernura sartu.

8/ Nunbait guztiyak igual
genduen merezi:
gaixtorik eta onik
etzuten berexi;
alako funtziyorik
nik ez det ikusi,
batzuek eskapatu
ziyoten igesi,
jakiña *inpernuan*
etsaia nagusi.

Aldaketak, Patxi Otxoki'ren kuadernoan
eta Jose Ramon Erauskin Lujanbio'ren
orrian: 1/5-6: lenguan gertatu zan —pun-
tziyua ori; 8/7-8: aien tarterik iñork— ezin
juan igesi.

SATURNINO IL ZANEAN

Bertso auek iru tokitatik eskuratu ditugu: Aitzondo'ko kuadernotik, *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik eta Oriamendi'ko Sebastian Salaberria'ren eskuz idatzitako orri batetik.

Aitzondo'ko kuadernoak eta liburuxka orrek, berdin dituzte bertso guziak. Salaberria'ren orriak aldaketa batzuek baditu; bertsoen atzetik jarriko ditugu.

Aitzondo'ko kuadernoak izenbururik ez du. Liburuxkak, berriz *Biotza daukat oso triste* dauka, lenengo bertsoetik artuta. Bañan orrek, sail onentzako ez-ezik, Joxe Zampirain'en jarri-aldi guzientzat edo geienentzat balio luke. Salaberria'ren orriak beste izenburu au du: *Bere seme erre zanaren emazte bearrari*. Bañan arentzat ez diran bertsoak ere badira emen. Orregatik, obe bearrez, or goien dagoana jarri degu guk izenburutzat.

Bertsolari onen seme bat, Saturnino, nola il zan, itzaurrean adierazi degu: 1941'eko

27'an, Eguberri irugarrenean alegia, oi bezela Urumea ibaian ondarra ateratzen ari zala, gasolina-poto batek su artu, eta lagunak, kanpora bota bearrean, Saturninoren anketara ixuri poto ori; erropa guziak su-garretan jarri, eta gerritik bera dana erre gizagajoa; klinikara eraman zuten, bannan andik zazpigarren egunera il, 1942'eko Ilbeltzaren 2'an.

Zenbait bertsoan aitatzten dan Pilar ori, Aitzondo baserriko Pilar Etxebeste da. Len ere esan degunez, orretzek egiten zion sekretariotza bertsolari oni, ta, ala, beraren eskutik jaso degu Joxek esan eta berak idatzi zuan kuaderno ori; ta liburu ontako beste bertso ta argibide asko ere berari zor dizkiogu.

Pilar ori, Saturninoren emazte-gaia zan; urtebete-edo bazeramakiten alkarrekin tratatzen. Saturnino erre zanean, bera ere aritu zitzaion klinikan kontu egiten.

Joxe Zampirain, andik aurrera ere, Pilar onengana joaten zan bertsorik papereratu nai zuan bakoitzean. Konfiantza osoan joan ere. Or ikusten da alabatzat artua zeukala, ta semearen eriotzak etzuala maitasun ori eten.

1/ Manifestatzen ditudan ainbat (1)
pena badaukat nerekin,
biotza daukat oso tristia
ta esango det zerekin;
adierazi biar dizutet
bertso bat edo birekin:
beratzi seme len banituen
ta gelditu naiz seirekin.

2/ Mundu onetan fortunosuak
oiek izandu ezta,
ta iruretan zarrena ere
oraindik pranko gaztia;
aita ta anaiak ta emaztegaia
oi da penetan uztia,
Ama Birjiñai nai dakiyola
zerua irabaztia.

3/ Gau eta egun ezin azturik
beti daukazkit goguan,
itz egingo det eztakitenak
konprenditzeko moduan:
esan detana, suertosuak
ez dira izan munduan,
Ama Birjiñak jarri ditzala
beren amaren onuan.

(1) Kuadernoan eta liburuxkan: *anbat*; Salaberria'k: *ainbat*. Ola obeto.

4/ Biotza daukat oso tristia
eta barrunbe illuna,
penagarrizko martiriyua
sua artu zuen eguna;
geroztik onuntz amaika negar
triste egiten deguna,
orain lurpian usteltzen dago
zuretzako zan laguna.

5/ Aizazu, Pilar, nik zuretzako
badaukat borondatia,
zure biotza arkitutzen da
pena gogorrez betia;
eta pentsatzen baldin badezu
gure etxera juatia,
barrena sartu nai bazenduke
zabalduko det atia.

6/ Aizazu, Pilar, jarri zaitia
nere bertsuak aditzen:
oker aundiya egin da eta
zalla da erremeditzen;
beren gustua egingo dute,
nik ez dizkitzut agintzen:
seme geiago ere baditut
danak ez bazaizkit iltzen.

7/ Gure tartian sartu dedilla
Jaungoikuaren graziya,
al baldin bada etzagun galdu
lenago irabaziya;
ez da posible ildakuari
ekarritzia biziya,
baño nik, Pilar, egingo dizut
al nezakian guziya.

8/ Penagarriya izan da oien
eriyotzako trantzia,
ta irurentzat fortunatu da
deskalabrozko iltzia;
ezta posible oien animak
inpernurako galtzia,
esperatzen det danak zeruan
elkarrengana biltzia.

9/ Aizazu, Pilar, egingo dizut
deklaraziyo klarua:
ai, lenagoko zure maitiak
aldegin zuen zeruâ;
amaika aldiz errezatzen det
salbia eta kredua,
iya guk ere egiten degun
ara juateko modua.

10/ Errematia egin biar det
bertsuetako lanian,
eta mundua despeitu dute
sasoyik ederrenian,
eta partida egiñak dira
oso ezauera onian;
Ama Birjiñak jarri ditzala
amaren aldamenian.

11/ Obra txarrikan etzagun egin
animarentzat kaltian,
gero okerrik gerta ez dedin
beste mundura joatian;
Aita San Pedrok sartuko gaitu
zeruetako atian;
laguntasun bat eskatzen dizut
bertsuen errematian,
emen bezela izan gaitezen
denak famili batian.

Sebastian Salaberria'ren paperak aldaketa auek ditu:

1/2: pena badauzkat nerekiñ; 3/5: irurak ere gusto askorik; 3/6: ez dute izan munduan; 4/4: su artu zuan eguna; 4/8: zuk bear zendun laguna; 6/3: oker aundiya izan da eta; 7/7: bañan, Pilar, nik egingo dizut; 8/6: inpernuetan galtzia; 9/3: mundu ontako zure maitiak; 9/4: aldegin dizu zerua; 10/1: Aizazu, Pilar, pena aundiya; 10/2: dago zure barrenian; 10/3: mundu ontatik joanak dira ta; 10/6: ezaguera onian; 11/3: gero okerrik izan ez dediñ.

AMA BIRJIÑARI

Zortzi bertso oraingo sail ontan. Bi tokitan arkitu ditugu: Aitzondo'ko eskuz idatzian eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkan. Bietan berdin daude bertsoak.

Aitzondo'ko kuaderno orrek izenbururik ez du; beste liburuxka orrek bai, eta ortik onera aldatua degu, gaiari ondo dagokiona baita.

Bertsolaria, zortzigarren bertsoan dienez, il ondoren, aita ta ama ez-ezik, emaztea ta iru seme illak ikusteko itxaropentan dago.

Len ere esan degunez, emaztea il zan lenengo, 1919'an; ondoren bi seme, 1936'an; irugarren semea, berriz, 1942.II.2'an. Gerroztikako bertsoak ditugu, beraz.

- 1/ Erakutsi biayot
ez dakiyenari
otoitza nola egin
Ama Birjiñari:
goizian ta arratsian
iru Abe Mari,
arren suerte on bat
emateko guri,
salbia ta kredua
Ama Semiari.

- 2/ Ezaueran sartzeko
badet edadia,
pentsamentu berri bat
daukat ateria:
mingañian badaukat
abilidadia,
bitartekuak ditut
Jesus ta Maria,
erakutsiko naute
zerura biria.

- 3/ Beste pensamenturik
ez daukat buruan:
Ama Birjiña, nabil
zure anparuan;
etsayik arrimatzen
etzait inguruan,
nere anima dago
leku seguruan,
espero det iltzian
sartzia zeruan.

- 4/ Ama Birjiña, daukat
zure anparua,
etsayik arrimatzen
etzait inguruâ,
zergatikan daukadan
goardi segurua,
Ark erakutsiko dit
biria zeruâ;
eta erreperuan
berriz aingerua.
- 5/ Gaztia nitzanian,
denbora batian,
beti ibiltzen nitzan
animen kaltian,
askotan trabatuta
etsaien tartian;
Jesus, lagun zaidazu
mundutik juatian,
San Pedrok sartutzeko
zeruko atian.
- 6/ Alperrik ari gabe
ni arguriyuan,
Jesus, bizi nai nuke
zure amoriyuan;
arren lagun zaiguzu
gure eriyuan,
gero sartu biagu
leku seguruan,
mantxak garbitu arte
purgatoriyuan.

7/ Enteratu zaitezte
nere esanian,
zer egin biar degun
gero azkenian;
Ama Birjiña, nabil
zure izenian;
Jesus, jarri nazazu
bire zuzenian,
zeruan sartutzeko
iltzen naizenian.

8/ Adierazi biar
diyotet danari:
laister utzi biayot
munduko lanari,
bisita egiteko
aita ta amari,
nere emaztia ta
iru semiari,
len maitiak nituen
lagun zar onari.

BIYOTZA PENAZ BETIA

Bertso auen gaia, len ere erabillia du bertsolari onek: emaztearen eta semeen eriotzak utzitako naigabe ta utsunea, ta aiek berriz ikusteko uste ta itxaropena.

Laugarren bertsoan onela dio:

laister juan biat emaztia ta
semiak bixitatzera.

Ta bostgarrenean:

aita ta ama ta emaztia ta
iru semiak ikusteko.

Irugarren semea, Saturnino, 1942.1.2'an il baitzan, egun ori ezkerozko bertsoak ditugu auek.

Zazpi bertso dira, eta ondoren, zortzi-garrena, gaiari ondo ez dagokion beste bat. Orrezaz gañera, beste mota batean jarria: bederatzi puntukoa alegia. Danetara, beraz, zortzi bertso.

Aitzondo'ko kuadernotik kopiatu ditugu; beste inun ez ditugu bertso auek arkitu.

Izenburua, zerbait gaiari dagokiona ja-

rri bear-eta, bigarren bertsoetik berezia dugu.

- 1/ Adierazi biar dizutet
daukadan amoriyua,
beti gustora ibilitzeko
ez naiz mundura jayua;
emengo berri badakit baño
zer dan ez dakit goi ua,
nere emaztia nonbait an dago
lenagotikan iyua,
bixitatzera juango nitzake
balegoke kamiyua.

- 2/ Alargunaren bizi-modua
mundu onetan ederr'ez,
pasadizu oi biar bezela
esaten ez dago errez;
biyotza penaz betia eta
begiyak berriz negarrez,
biria non dan billatu ezin
itxasoz eta legörrez,
ezkutatu zan bein betiko ta
berriz ikusi biarr ez.

- 3/ Atentziyua izan zazute
nik esandako itzakin,
nere barrenik ez da poztutzen
mundu ontako gauzakin;
ta eztakit noiz jarriko naizen
konsuelo ta pozakin,
begiyak malkoz betiak eta
biyotza berriz kezकिन,
bisitatzera pozik juango ta
biria non dan ez jakin.

- 4/ Beti ez degu ibilli biar mundutarraren antzera, alegiñian saia gaitezen anima salbatutzera; ta gazetako txorakeriyak aztutzen dira zartzera, zoragarritzko egun eder oi badator alderatzera: laister jua biat emaztia ta semiak bixitatzera.
- 5/ Ori egiya izango dala zenbaitek ez du usteko, kasikan pozez arkitutzen naiz mundu zikiñ au uzteko, ta esperantza osua daukat zerua irabazteko; Ama Birjiña daukat laguna biria erakusteko, aita ta ama ta emaztia ta iru semiak ikusteko (1).
- 6/ Zuri laguntza eskatzen dizut, Ama dolorez betia, mundu onetan ordaindutzeko pekatuaren kaltia; alde batera utzi dezagun inpernutarren partia, Aita San Pedrok irikiko du onarentzako atia, desiatzen det famili dena leku artara juatia.

(1) Kuadernoan: *ikusitzeko*.

7/ Obra txarrikan etzagun egin
animarentzat kaltian,
gero okerrik izan ez dedin
beste mundura juatian;
Aita San Pedrok sartuko gaitu
zeruetako atian,
laguntasun bat eskatzen dizut
bertsuen errematian,
emen bezela izan gaitezen
denak famili batian.

☆ ☆ ☆

Lepotik gora dauzkit
ajiak egiñak:
belarri gorra eta
ikusi eziñak;
ortzak ere nigandik
dira aldegiñak,
oiek bezela igual
juan ziran agiñak;
ta buruko miñak,
sugurra ta ezpañak,
eztarri zikiñak
ta itzegin eziñak;
danak eziñ kontatu
ondo mingañak.

GERRAKO ASUNTUARI

Sail au ere, Aitzondo'ko kuadernotik eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik artua degu. Len ere esanik daukagunez, liburuxkak kuadernoari kopiatu dio ta aldaketarik ez dute.

Bañan Aitzondo'ko kuadernoak beste kopia bat ere badu. Ontan, sei bertso dau-de bakarrik: 1, 2, 10, 3, 5 ta 4'garrena, jarri diran orden orretan. Kopia au geroztik-koa-edo izango da, ta Makazaga'k etzuan ikusi bere liburuxka ori ateratzerakoan. Bigarreno kopi-aldi orrek, bide eman digu guri, lenbizikoak dituan utsegite bat edo beste zuzentzeko; idazterakoan uste gabe egindako utsegite batzuek, alegia.

Kuadernoak izenbururik ez du; or goien jarri deguna, liburuxkak daukana da, lenengo bertsoetik berezita.

Gerra dute gaia bertso auek. Bañan ez Españiko gerra; mundu guzikoa baizik, 1939'an asi ta 1945'an bukatu zana.

Bertsoak diotenez, Ipar-Amerika ere gerran sartua zan, eta alemanentzat gauzak pranko okertzen asiak zeuden. Ortik pen-

tsa genezake, 1943 edo 1944'an jarriak izan-
go dirala.

- 1/ Bertso batzuek jartzera nua
gerrako asuntuari,
mundu guztiyak aditu dezan
astera nua kantari;
lendabiziko erreperatu
españolaren plantari,
Rusiya eta Alemaniya
gerran diralako ari,
ta miseriya sortu diyote
orain Europa danari.

- 2/ Pake onikan beñere eztu,
au da naziyo-klasia,
mundu guztiya ondatutzeko
pentsamentuan asia;
asuntu orrek igaroko du
pranko denbora luzia,
datorrenikan ez dakit baño
kontatuko det pasia,
orrek sortu du Españiko ta
Europa danen gosia.

- 3/ Al bada ondo kontatu nai det
gertatutzen dan kasua:
biria libre desio zuen,
eskatu zuan pasua;
bere mendian artu nai ditu
legorra ta itxasua,
oso jeniyo txarrekoa da
eta inbiriosua,
ta orain kontra atera zaizka
ingelesa ta rusua.

4/ Len ez nekiyen pasadizuak
berriro ditut jakindu,
zer kontatua bagendaukake
ondo esango bagindu;
mundu guztiyan berak bakarrik
orain nai luke agindu,
gogor samarra izanagatik
ez al liteke biguindu?
Kontrariyuak agertu zaizka,
amets gaiztua egin du.

5/ Pakian dagon makiña bati
ematen diyo auziya,
ta obeditzen ez baldin badu
aguro kendu biziya;
bi edo iru illabetian
menderatu du Frantziya,
ta orain berriz kontrariyua
atera zaio Rusiya,
baño orrekin eztu egingo
berak nai duen guziya.

6/ Lendabiziko muimentuan
ondo asi zan lanian:
gelditu gabe beti aurrera
egunez eta gabian;
emen jendia lasai zebillen
aurrera zijuania,
dudarik gabe kontrariyuak
baditu aldamenian,
ta orain berriz triste dabilta
eziñeratu danian.

7/ Al baldin bada egin biaitut
deklaraziyo justuak,
mesererikan eztigu egin
su gaiztu ori piztuak;
Alemaniko naziyu oiek
abillak eta listuak,
gezurra esanda egiya dala
asko daude sinistuak,
lasai zeudenak estututzeko
ez datoz egun gaiztuak.

8/ Gerrako ondo preparatu da
ogei eta lau urtian,
emen jendia lasai zebillen
ondo zijuan artian;
kontrariyua azaldu zaio
Amerikako Nortian,
ta sartu gabe geldituko da
ingelesako partian,
ta uste zuen jarriya zala
oso estadu fuertian.

9/ Pentsatutzen det pasadizu au
danari erakustia:
Rusiya eta Alemaniya,
japonesa da bestia;
oi da munduko naziyorikan
aundintxuenak nastia,
Norte-Amerikak ezta posible
oiri pakian uztia,
ta ingelesak esperatzen du
gerra ori irabaztia.

10/ Guziyak baño geiago dala
jakinduriz ta indarrez,
bañan ez ditu menderatuko
uste duen beziñ errez;
kontrariyuak atera zaizka
itxasoz eta legorrez,
orrek dadukan jeniyo txarra
pakian egon biarr ez,
zale bazan-da oraingo txandan
aspertuko dute gerrez.

11/ Guziyak baño geiago zala
espero zuen bakarrik,
barkaziyua izango zuen
ez balu egin okerrik;
naziyu ori gaiztua dala
eztago esan bearrik,
irabazteko esperantzarik
orain ez dauka bakarrik,
sortu dituen armamentuak
izango ditu alperrik.

12/ Aldez aurretik prebenituta
gerra ematen asi zan,
beldurrik gabe oso kontentu
etzegon lengo bizitzan;
kristandadia eztago gaizki
alemanaren peskizan,
orain orrentzat errezatutzen
komentu eta eleizan,
gaiztua da ta oi galdutzeko
kupirarikan ez izan.

- 13/ Aldez aurretik prebenituta
armetan zegon jantziya,
naziyu orrek ondatu ditu
Españiya ta Frantziya;
orlakuakin artutzen errez
eztago pazientziya,
orain penetan egongo dira (1)
orri pakian utziya,
gerran segitu nai baldin bada
ara komenientziya.
- 14/ Errenditutzen gaiztuak ziran
lendabiziko kolpiak,
sortu dituen armamentuak
etziran oso merkiak;
dudarik gabe alperrik ditu
egin dituen nekiak. (2)
Zertako ditu sumarino ta
aireoplano ta tankiak?
Ta alemana menderatzian
egingo dira pakiak.
- 15/ Denak dakigu nola diraden
gertatu diran kasuak,
egin dituzten aziyo txarrak
daude goguan jasuak;
iñork ikasi nai baldin badu (3)
nik jarri ditut bertsuak,
ta azkenian aziyo txarra
egin diyote rusuak,
pake onikan beñere eztun
naziyo inbiriosuak.

16/ Bertso berriyen errematia
orain egitera nua,
utzi biarra etorri zaio
artutako terrenua;
bukatu gabe geldituko da (4)
asita zuen lan ua,
zertako ditu sumarino ta
tanke ta aireoplanua?
Gaiendu zaizka ingelesa ta
Norte-amerikanua.

(1) Kuadernoan eta liburuxkan: *egon dira*.

(2) Aitzondo'ko kuadernoak: *egin dituen kolpiak* 309; liburuxkak: *egin dituen nekiak*. Onela jarri degu, bestela poto baita.

(3) Kuadernoak eta liburuxkak: *baditu*; bertsolariaren semeak diotenez, *badu* omen da.

(4) Aitzondo'ko kuadernoak eta liburuxkak *gelditu da* diote; bañan, bertsolariaren semeak esan didatenez eta itxura ere ala du, *geldituko da* bear omen du, ta ola jarri degu.

MANUEL PRAILE JOAN ZANEAN

Bost bertso auek ere, Aitzondo'ko kuadernotik eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik artuak ditugu. Izenburua ere liburuxka orretatik degu, kuadernoak olakorik ezer ez baitu eta gaiari ondo dago-kiona baita.

Manuel, semeetan azken bigarrena, 1947 urtean praile joan zan. Bertso auek aditzera ematen dutenez, aitarentzat naigabe aundia izan zan ori. Izan ere, seme batzuek il eta besteak mutilzar, familiaren segirarik etzuan inondik ikusten.

Manuelek, ordea, bi illabete bakarrik egin zituan komentuan. Ango bizimodua beretzat egiten etzala-edo ikusi ta etorri egin zan.

Ain zuzen, bera izan zan gero etxera ezkondu zana eta Bordaxarrera landare berriak ekarri zituana. Aitaren poza orduan!

1/ Aizu, Manuel, pentsatu dezu
prailietara juatia,
zenbatekua dan eztakizu
egin dirazun kaltia;
geroztik dago nere biotza
pena gogorrez betia,
komeni bada kunpli dedilla
Jesusen borondatia.

2/ Urtiak asko daukazkit eta
ari naiz pranko zartutzen,
Ama Birjiña, lagun zaidazu
pazientziya artutzen;
nere biotza tristuran dago
beti negarrez urtutzen,
geroztik ezta nere barruan
konsuelorik sartutzen.

3/ Ezaueran sartua zaude,
etzera ume gaztia,
pentsatu dezu mundu ontako
txorakeriyak uztia;
au bukatutzen degun orduko
gero badegu bestia,
biri ortatik seguro dago
zerua irabazia.

4/ Nere biotza tristetutzen da
ori pentsatzen asita,
berriz ikusiko etzindutela
jarriya negon etsita;
ondo dakizu nola juañ ziañan
denak negarrez utzita;
estimatu ta poza artu det,
egin diguzu bisita.

5/ Aizu, Manuel, segi zaiozu
pentsatu dezun lanari,
bire gaixtuak utzi dituzu
segitutzeko onari;
sentimentua eman zeniyen
zere senide danari,
akorda zaitez errezatzia
aitari eta amari.

AURRETIK BIALDUAK

Onoko amar bertso auk ere, Aitzondo'ko kuadernotik eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik artuak ditugu.

Izenburuan, kuadernoan batere ez eta liburuxka orretan *Nere kinto urtiak* dago, lenengo bertsoetik artuta. Ori irakurrita, soldaduzkaz-edo ari bear duala ematen du. Bañan ez da orrela; joan ere ez baitzan.

Urteak goitituak dauzkala esaten digu, ta aurretik bialduak badituala makiña bat lagun: kinto-lagun asko, emaztea, iru seme ta abar. Ta eriotzarako danak berdintsuak gerala esanda bukatzen du.

Orregatik, *Aurretik bialduak* jarri diogu sail oni izenburua, itz-pare ori irugarren bertsoetik berezita.

Joxek, 1873'an jaioa baitzan, 1892'an emeretzi urte osatzen zituan; ez ogei ta bat. Beraz, oraingo legeakin, 1894'eko kintoa zan. Orduan gauza auk beste modu batera eramango ziran edo ez dakigu zer izango dan.

Bere emazte zana berriz aitaten du emen Zapirain'ek; bein baño geiagotan aitatu ere. Or ezagun da, aren eriotzak ezerk ere bete ezin zuan utsunea utzi ziola.

Bertso auk noizkoak diran, errex somatu diteke. Bigarren bertsoan onela dio:

Irurogei ta amabost
ditut kunplituak...

Beraz, 1873'an jaioa baitzan, 1948'ekoak bertso auk.

Ta zazpigarrenean:

oraiñ ogeitamar urte
partitu nerekiñ...

Emaztearen eriotzagatik dio ori. Beraz, andrea 1919'an il baitzan, ogei ta amar erantsita, 1949 urtea degu, bertso auen jaio-urtea alegia.

- 1/ Nere kinto-urtiak
noventa y dos'ian,
orduan Errenderi'n
batzuek bazian;
oietakorik oraiñ
apenas bizi'an,
nik ere ez det iraungo
denbora luzian.

2/ Nere kinto-lagunak
geienak aituak,
eta beste batzuek
kojo geldituak;
urtiak daukazkigu
pranko goitituak:
irurogei ta amabost
ditut kunplituak.

3/ Zar asko gera oraiñ
esaten degunak:
Errematatu dira
munduko egunak;
iya egin ditugu
lur ontako lanak,
aurretik biralduak
baditut lagunak (1).

4/ Ondo konpontzen giñan
emen zan artian,
oraiñ elkarrengandik
gaude apartian;
beatzi semerekin
amalau urtian,
noizbait ere juango naiz
egunen batian.

(1) Kuadernoan: *baditeu*; liburuxkan: *baditu*.

5/ Jarri zaitezte nere
bertsuak aditzen,
ta munduko egunak
ari zaizkit aitzen;
oraindikan bizi naiz
ta zalla naiz iltzen,
emaztia asi zait
familiya biltzen.

6/ Pentsatu det danari
adieraztia,
nik esan ditudanak
gezurrak ezta;
penik ez dit ematen
mundua uzta,
aspaldiyan zai dago
nere emaztia.

7/ Emen utzi niñuen
naiko lanarekiñ:
dakizuten bezela,
beatzi umerekiñ;
oraiñ ogeitamar urte
partitu nerekiñ,
beatzitatik iru
an ditu berekiñ.

8/ Ikasiko zituen
gure notiziyak,
nola izandu ziran
emen desgraziyak:
iru illak arekiñ
ta nik sei biziya,
arengana juntatu
biagu guziyak.

9/ Emakumiak eta
igual gizonak,
kastillanuak eta
igual euskaldunak,
klase guztiyetatik
badirade juanak;
an berexiko dira
gaixto eta onak.

10/ Gizon ta emakume
fuerte indartsuak,
gizonik abillanak
eta jakintsuak,
an izango gerade
denak berdintsuak;
onekiñ bukatutzen
dirade bertsuak.

EMAKUMIEN JAZKERA

Bertso auek, Bordaxarren bertan esku-ratu genituan. Eskuz idatzitako orri batean daude; gero jakin degunez, Aitzondo'ko Pilar Etxebeste'ren letra da.

Emakumeen jazkera da bertso auen gaia. Orregatik, eta izenbururik ez baitzuten, orixe jarri degu saillaren ezaugarritzat.

Jose Zampirain illik, urte-mordoska bada: emezortzi baño geixeago. Gañera, zenbait urte lenagoztik ere jarriak izan zitezkean. Ala ere, ez dute bertso auek denborarekin ezertxo ere galdu; gaurko berri-berriak dirala dirurite.

Sail ontako lenengo bertsoa eta *Gora euskera* deritzaion saillaren bigarrena, berdiñak dira.

- 1/ Bertso batzuek jartziagatik orain asi naiz benetan, kastillanuak ikusten ditut nabillen leku danetan. Euskera baño garbiyagorik ote da mundu onetan? Iya galduan dabillelako biotza daukat penetan.

- 2/ Emakumiengatikan nua zerbait esaten aстера: nazkatutzeko modukua da oraiñ sortu dan jazkera, ta diferentzi aundi gabia ibillera ta izkera: denak erderaz ikusten ditut, iya galdu da euskera.

- 3/ Lendabiziko ekingo diyet zimendu edo oñetik: muskill onikan ezta sortuko arbola oien zañetik; kasik ez dute siñalerikan erantzitzian soñetik, zer koloreko larrua duten ikusten zaie gañetik.

4/ Zapata takoi altu xamarrak
badabizkite oñian,
justu-justuan dabilta zutik
anka-muturren gañian;
apainduriya egiten dute
norbere alegiñian,
pobria zein dan ezagututzen
eztago errez soñian (1).

5/ Alperrik uzten eztu utzi nai
gaztiak bere garaya,
oiek dabilten soñekua da
argiya eta alaya;
kasik kanpotik ikusten zaie
barrenen zer duten iya,
ezkutukua badadukate (2)
bistara azaldu naya.

6/ Zapata takoi altu samarrak,
oiek eztakit noraño,
betikan gona motxak dauzkate
belaunetatik goraño;
goitikan berriz petxuak bistan
titiyak ikusteraño,
oik udarako obiak dira
negu beltzerako baño.

(1) Paperean: *eztako*.

(2) Paperean: *badaukate*.

- 7/ Oso mia ta bistosua da
 oiek dabilkiten tela,
 petxua eta titiyak bistan
 len esan dedan bezela;
 oien gustoko denboralia
 eguzki aize epela,
 ilko lirake uda partian
 egingo baluke jela.
- 8/ Soñeku ori oso ona da
 baño denbora beruan,
 postura artako emakumia
 gaixtua da inguruan;
 arpegi dana autsez beteta
 illiak arro buruan,
 pobriak ere jazten zaizkigu
 aberatsaren moduan.
- 9/ Goitik petxua bistan daukate,
 belaunetik gora gonak,
 ernegatutzen jartzen dituzte
 mutillak eta gizonak;
 inbiri asko sufritu biar
 oiei begira dagonak,

 (3)

(3) Bederatzigarren bertso au bi bider idatzita dago. Bietan azkeneko bi lerroak falta dira. Erdiko lerroak berdin daude, bañan asierakoak ez. Asierakoak bigarren idatzi-alditik artu ditugu; lenengoan onela daude: Puntua artzia ez nuke naiko oraingo nere esanak...

- 10/ Emakumien jazkerarekin
zein ez liteke arritu?
Aztuta zeuden pasadizuak
orain nai ditut berritu:
zapata takoi altu oiekin
birian ezin korritu,
arpegi danak autsez beteta,
ezpañak ere gorritu.
- 11/ Diferentzirik ez det arkitzen
astian eta jairikan,
oin soñekuak eztu arrapatzen
autsikan eta loirikan;
eseritzian asitzen dira
zerbait tapatu nairikan,
tiratzen diye gogotik baño
ezin billatu gairikan.
- 12/ Alperrik galtzen eztu utzi nai
gaztiak bere sasoia,
oik dabilkiten soñekua da
bistosua ta lasaia (4);
ai, gorputzaren edertasuna
animarentzat etsaia,
oraingo neskak badadukate (5)
pintura eta usaia.

(4) Amabigarren bertso onen lenengo lau le-
rroak eta bostgarren bertsoarenak, ia berdiñak dira.

(5) Paperean: badaukate.

13/ Arrokeriyan zabilzatenak
eskarmentatu zaitezte,
neregandikan izugarriyak
aditu biaituzute;
autsez beteta ezpain gorrikin
ikusten ditut jai ta aste,
ta orlakuak ez lezake ein
pinturetako ainbeste.

14/ Kulpa gabeko emakumiak
zaudete pazientziyan,
ta orlakuak mantxa gaixtorik
eztauka kontzientziyan;
aberatsaren gisan dabilta
soñeko dotorentziyan,
pobria zein dan ezagututzen
eztago errez jantziyan.

15/ Kulpa gabeko emakumiak
ez gero artu punturik,
zuentzat gaizki itzegiteko
ez daukat pentsamenturik;
lege berriyak jarri dituzte,
eztago lengo konturik,
orain bezela kastatzen bada
merkatuko ezta pinturik.

GAUZIK PREZISUENA

Onoko sail au ere, Aitzondo'ko kuaderoan eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkan arkitu degu. Izenburua, kuaderoak ez du ta liburuxkatik artua. Orixe da, izan ere, gaia: mundu ontako gauzik prezisuen erabaki bearra. Bañan bertso auek noizkoak diran somatzeko, ez degu biderik ikusten.

- 1/ Au pentsatzen jartzen naiz
ni nerez prankotan;
gauzik prezisuen
zer dan mundu ontan;
asko ibiltzen gera
gaizki orren paltan,
osasuna onena
bat izatekotan.

2/ Pentsatu det denari
adieraztia:
onek poztutzen gaitu
zar eta gaztia;
osasuna ederra ta
dirua bestia,
munduan bizitzeko
gaiztuak ezta.

3/ Denari esaten diyet,
aberats ta pobre,
ez dakiyen guztiyak
jakitia obe;
iya zein ote dauden
iru oien jabe:
dirua ta osasuna
desgustorik gabe.

4/ Oiek guztiyak baldin
baditu berekin:
desgustorikan gabe
iñun ezerekin,
osasuna ederra ta
naiko diruakin,
ondo bizi liteke
oiek iruakin.

- 5/ Asko gera gu ori
desio degunak,
ezeren paltik eztu
oiek dituanak:
dirua ta osasuna
elkarren lagunak,
munduan pasatzeko
gustoko egunak.
- 6/ Aberatsak badira
desgustoz daudenak,
eta oientzat ere
sortzen dira penak.
Zein dira iru klase
oiek dituenak?
Bat ezpada bestia
falta degu denak.
- 7/ Adierazi biar
nuke alegiña:
guztiyok ez daukagu
bizitza berdiña;
asko lekutan elkar
konpondu eziña,
gustora izateko ezta
mundu au egiña.

8/ Laister emango diyot
orri errespuesta:
aberatsa izatia
bakarra ezta basta;
guztiyak zerbait falta,
ortan dago pesta,
munduan gusto danak
dituenik ezta.

GAUZA BAT PENTSATZEN

Eriotzaren ondoren zer? Ori da bertso auen gaia. Aitzondo'ko kuadernotik eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkatik artuak ditugu. Bietan berdin daude. Izenburua, liburuxkatik artua da; kuadernoak ez du olakorik ezer.

- 1/ Alperrik egon gabe
denbora pasatzen,
lenguan jarri nitzan
gauza bat pentsatzen:
iltzen danik eztala
geiago azaltzen,
eta abisurikan
ez dute bialtzen.
- 2/ Bertso batzuek jartzen
biar nuke ekiñ,
esplikaziyo onik
ez nezake egiñ;
beste munduko berri
nai genduke jakiñ,
pobre ta aberatsak
izango'ira berdiñ.

3/ Ez eratenik eta
aiñ gutxi jaten,
emendik eztu iñork
ezer eramaten;
gu bezelaxen dira
aberatsak juaten,
nik eztakit dirua
zertarako duten.

4/ Munduan ibilliyak
kafe eta fondan,
iya zenbat orlako
emendikan jon dan;
eztakit ango berri
jakitia on dan,
iñork ere eztaki
inpernua non dan.

5/ Zerua goien eta
inpernua bian,
bañan iñork eztaki
oik biyek non dian;
askotan ibilli naiz
ni oien galdian,
bañan eztira egongo
elkarren aldian.

6/ Oi jakiñ nai genduke
seitatican bostek,
oi ondo dakiyenik
emen iñor eztek; (1)
ikasi nai luteke
zenbait zar ta gaztek,
ango berri eztaki
Jesukristok bestek.

7/ Abilla nai baluke
gizonak burua,
lenbiziko ikasi
nola dan kredua;
Jesusek egin zuen
arako modua:
lenbizi inpernura jetxi,
gero iyo zeruâ.

8/ Nere sentimentua
esango det jator:
oi dakiyenik emen
eztagola iñor;
danak juan biar degu
ara itsu ta gor,
zergatik abisurik
iñundik ez dator.

(1) Kuadernoan eta liburuxkan: *ez dek*; *pun-*
turako obe: eztek.

9/ Oi dakiyenik emen
eztagola iñon,
ezer eztakigula
biarko degu jon;
akaso ikastia
denak genduke on,
badala badakigu
bañan ez jakiñ non.

10/ Kantak jartzeko nago
espaziyo betan,
bañan jakinduriya
dago illunpetan;
oi dakiyenik iñor
ezta mundu ontan,
zergatik ez datorren
iñor andik bueltan.

Aitzondo'ko kuadernoan, bi aldiz kopiatuta daude bertso auek. Lenengo, or goien jarri degun bezela; ta bigarren bertsoak beste orden onetan dituala: 1, 10, 2, 3, 9, 4, 5, 7, 8 ta 6'garrena. Ortaz gañera, onako aldaketa auek: 1/5: il danikan eztala; 4/3: iya zenbat olako; 4/6: ikastia on dan; 6/3: oi dakiyenik emen; 6/4: iñor ere eztek; 7/3: lendabiziko ondo; 7/4: ikasi kredua;

8/3: oi ondo dakiyenik; 9/7: bairala bada-
kigu; 10/4: daukat illunpetan; 10/5: oi da-
kiyenik; 10/8: iñor ere bueltan.

Ta ondoren beste bi bertso: *Aurretik
bialduak* deritzaion saillaren 9 ta 10'garre-
na. Bearbada, emen izango zuten bertso
oiek bere tokia; emen egokiago ematen du-
te.

PENTSAMENTU BAT EGIÑA NAGO

Onoko zazpi bertso auek ere, Aitzondo'ko kuadernoan eta *Nere bizitzako bertso batzuek* liburuxkan arkitu ditugu. Izenburua ere, liburuxka orretan zegoan. Bigarren bertsoaren asiera da.

Zer pentsamentu ote da ori? Bestetan ere esaten du, bañan azken bertsoan onela dio:

gorroto txarrak uztera nua
barkatzen diyet danari.

Ori da bertso auen gaia. Pasa zituanak pasata, ez du edozeñek olakorik egi-ten.

Seigarren bertsoan onela dio:

ontaz aurrera nik ez dadukat
denbora askoko biziya...

Bere azken urteetako bertsoak dira, beraz, itxurak diranez beintzat.

- 1/ Ezaueran sartua nago,
juiziyuan jantziya,
gorroto txar bat daukat nerekiñ
iñola eziñ utziya;
ta ortarako eskatzen diyot
Jesusi pazientziya,
konfesiya ona eginda
kunplitu penitentziya,
geroko mantxik gabe garbitu
nai nuke kontzientziya.
- 2/ Pentsamentu bat egiña nago
obra berri bat asteko,
nik oi egingo dedanik emen
iñork ez dute usteko:
oraiñ idea ateria naiz
gorroto txarra uzteko,
ori litzake ejenplo ona
denari erakusteko,
biri ortatik juañ biar degu
zerua irabazteko.
- 3/ Ezaueran sartua nago,
ez nago txoro gaztia,
pentsatutzen det gorroto txarrak
erabat denak uzta;
au bukatutzen degun orduko
gero badegu bestia,
munduko gauzak anguarekiñ
konparatzeko ezta,
desiatzen det nere animak
ditxa ori irabaztia.

4/ Gazte denboran gaixtua nitzan,
zartuta egin det muantza:
oraiñ biguintzen asiya dago
len gogor zegon biyotza;
denbora asko baño lenago
juan biarra naiz aruntza,
Ama Birjiñai eskatzen diyot
graziya eta laguntza,
bire onian jarri nai ditut
anima eta gorputza.

5/ Egun bat eta biko ez nitzan
mundu ontara sortuta,
oraindik ere zenbat luze dan
eziñ liteke neurtu-ta;
gazte-denboran gaixtua nitzan
baño ondu naiz zartuta,
len kanpotikan ibiltzen zana
daukat barrena sartuta,
nere anima salbatutzeko
pentsamentua artuta.

6/ Nere animak eta gorputzak
izandu duten auziya:
ezin konponduz pasia dute
oraiñ arteko guziya;
barrenan orain sartua daukat
Jaungoikuaren graziya,
ontaz aurrera nik ez dadukat (1)
denbora askoko biziya,
al baldin bada etzagun galdu
lenago irabaziya.

(1) Kuadernoan eta liburuxkan: *daukat*.

7/ Errematia egin biayot
bertsuetako lanari:
bire gaixtua uztera nua
segitutzeko onari,
eta gaitzikan desiatutzen
ez diyot projimuari;
laguntasuna eskatzen diyet
Jesus ta bere Amari:
gorroto txarrak uztera nua,
barkatzen diyet danari.

ZERURA

(AZKEN BERTSOAK)

Zapirain'darren bertso-bilduma au ikusi ondoren, onela idatzi zigun Aita Justo Mari Mokoroa'k:

«Bertso oiek beste bertso eder batzuk gogora ekarri dizkidate, *Zerura* izenburu zutela nundipait jasota neuzkanak: Jose Zapirain'enak izan ere. Bein aitatu nizkizun, baña eztakarzki zure bilduma onek. Or bialtzen dizut kopi bat».

Ta onoko zortzi bertso auek bialdu ziztuan:

1/ Adierazi biar
dizutet danairi:
laster utzi biayot
munduko lanari,
bisita egiteko
aitari ta amari,
nere emaztia ta
iru semiari,
len maitiak nituen
lagun zar onairi. (1)

2/ Urte asko gañian
ta odolak otzak,
aurki deia egingo
digu eriotzak;
ez naiz atzeratuko
azaltzeko lotsak:
neke danak utzita
aspaldin biotzak
gora begiratzen dit
zerurako pozak.

3/ Eliza maitatu det
beterik legia;
semiak azi ditut,
egin det neria;
illunpetik argira
juateko iria;
bitartekuak ditut
Jesus ta Maria,
erakutsiko naute
zeruko biria.

(1) Bertso au eta 299 orri-aldeko bigarrena,
ia berdiñak dira.

4/ Ate-ondotik pozez
kantatuz bertsua:
«Lengo maitien billa
dator gurasua!»,
entzungo det San Pedron
izketa goxua:
«Aspaldiyan zai dago
famili osua,
atoz beren artera
betiko, gaxua!»

5/ Emen arrantzale zan
guztizko gizona,
San Pedro degu zeru-
atezai dagona:
«Biotz-biotzez laztan
Jaunan esku ona;
beko gauzak aztuta
eseri, aitona,
ar zazu irabazi
dezun zoriona!»

6/ Laister erantzuera
au diyot emango:
«Aita balitz, eluke
aztutzeko esango;
neketan utzi ditut
an seme geiago;
aien aita're ni naiz,
bildurretan nago;
aieri laguntzeko
ezer ez al dago?»

7/ Gelditzen zeratenak,
eduki goguan
ez gerala egongo
berex luzaruan:
laguntzeko asmuak
daukazkit buruan,
ez naiz lasaituko ez
mundu ez zeruan,
seme danak ikusi
bitarte onduan.

8/ Enteratu zaitezte
nere esanian
zer egin biar degun
gero aizkenian;
Ama Birjiña, nabil
zure izenian,
zeruan sartutzeko
iltzen naizenian. (2)

(2) Azken bertso au osatu gabe egongo da, besteak bost puntukoak eta au lauhoa baitago.

ARKIBIDEA

ZAPIRAIN ANAIK (BIZITZA)

Iru Zapirain	9
Aita ere bertsolari	10
Juan Krutz, jaio	12
Joxe, jaio	16
Senideak	17
Gerratea	19
Telleria	20
Bordaxar	22
Juan Krutz, alargun	24
Joxe, alargun	26
Juan Krutzen bertso-lanak	27
Joxeren bertso-lanak	31
Juan Krutz, aotik aora	36
Joxe, aotik aora	37
Juan Krutzen azken urteak	44
Joxeren azken urteak	47
Gure aitaren pasadizuak (Manuel Zapirain'ek)	49

JUAN KRUTZ ZAPIRAIN'EN BERTSO LANAK

Santa Jenobeba (Argibideak)	61
Santa Jenobeba (Bertsoak)	78
Santa Jenobebaren itz bi	78
Jenobebaren ezkontza	80

Sigifredo - palaziyuan Jenobebaren sarrera	83
Jenobeba sartzen dute presondegian	89
Jenobeba basamortura	96
Jenobebaren basamortuko bizitza	99
Sigifredo kondia gerratik bueltatzen	110
Sigifredok bere esposa Jenobeba arkitzen du	113
Jenobebak bere guraso zarrak ostera ikusten ditu	122
Jenobebaren eriotza	129
Bukaera	131
«Ai gure antxiñeko guraso nobliak...»	133
«Kristok abisatzian...»	146
Azkeneko gaba	151
Ai au barrengo illuntasuna!	158
Gure euskera	161
Oraingo legia	168

JOSE ZAPIRAIN'EN BERTSO LANAK

«Nere biotza penetan dago...»	173
Demoniyozko atsuak	175
1914'eko gerra	180
Eskarmentagarri	183
«Bein mundutikan faltatzen danak...»	187
Alarguna!	193
Emaztiaren eriotza	206
Lenguan ikusi det	214
Lenbiziko gurasuak	220
Ameriketara	229
Zarraren pasadizuak	237
Gora euskera!	243
Gure fede santuaren alde	249
Mixioa	256
Altza'ko elizan	263
Amar mandamentuak	267


Len amar lagun giñan etxian	272
Nere bukaera	275
Ondo iltzeko prestatu	278
Inpernua	284
Saturnino il zanean	290
Ama Birjiñari	296
Biyotza penaz betia	300
Gerrako asuntuari	304
Manuel praile joan zanean	311
Aurretik bialduak	314
Emakumien jazkera	319
Gauzik prezisuena	325
Gauza bat pentsatzen	329
Pentsamentu bat egiña nago	324
Zerura	338

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^o Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^o Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*)
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.^o Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.
31. M. Soroa: Baratzan. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza.

33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere laguneren bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.

- 88-89-90. A. *Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*).
91. A. *Zavala*: Txapel bertsolaria.
92. I. *Alkain*. — A. *Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. A. *Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. A. *Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak.
- 95-96. A. *Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. A. *Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. A. *Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. A. *Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena.
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972.
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. A. *Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. A. *Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. A. *Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurrak.
119. A. *Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. A. *Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. A. *Zavala*: Zapirain anaiak.



AUSPOA
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA